inkestatuek uste dute euskara batu hori gehiago markatua dela idatzian ahozkoan baino. Bertako fonetika eta prosodia atxikitzen dira, zuberera-koak aparte egonez. Ildo honetan, mintzatzen denean hiztunak badaki bere solaskidearekin noraino joaten ahal den, IEHn leku eta hizkera ezberdine-tako jendea baita. Bestetik, euskaldun berrien eta euskalkidunen «euskara batuak» bereizteko lirarteke.

Hona IEHn ahozko euskara batu motarik ez dela pentsatzen dutenetarik baten iruzkina: «Ahozkoan egoera lausoagoa da, ahozko euskara batu mota berezi bat baino erran nezake Iparraldeko hiztun guzietan aise elkar ulertzen dutela. Hainbat arrazoi: – hiztunek elkar ikusten dute Iparraldeko hiriburu-ruan, hots, Baionan – Euskal Irratien indarra – ikastolen garapena».

Erran bezala, erantzun ez dutenak anitz dira, herena, lehen galderari, euskara batu berezi bat bazenetz orain IEHn, ezetz erantzun baitzioten.

5. galdera: *Euskara batuak kalteak ekartzen ote dizkie Iparraldeko euskalkiei?*

BAI	3	% 7,50
EZ	32	% 80,00
BAI eta EZ	3	% 7,50
Erantzunik ez	2	% 5,00

Inkestatuan % 80k uste dute euskara batuak IEHko euskalkiei kalterik ez diela ekartzen. % 7,50ek alderantzia. Batzuek, erantzun eta, iruzkinak egin dituzte. Holaxe labur nitzake.

Ezetz erran dutenek uste dute euskara batuak berak ez diela kalterik egiten, baina gaizki erabiltzeak bai, euskalkiak murrizak eta okerrak direla edo Hego Euskal Herriko berezitasunak egiazko batua direla ustez. Aldiz, bai, frantsesak kalte egiten die. Euskara batua euskalkien kontrakoa dela «auzi faltsu» bat da, bakoitza behar den egoeran erabilten baldin bada. Iruzkin bat adibide gisa: «Frantsesak askoz kalte handiagoak ekartzen dizkie euskalkiei, euskara batuak baino».

Baietz erran duten hiruek uste dute IEHko ikastolek eta gau eskolek, Zuberoan salbu, euskara batu mota bat erakatsiz eta erabiliz euskalkien eta tokiko hizkeren ezagutzari eta erabilerari kalte egiten dietela. Azken horiek

gero eta arrotzagoak izanen direla. Batak dio: «Horrek erran nahi luke luzara euskara batua zabaltzen bada irakaskuntzaren bidez, euskalkiak arrotz bilakatuko direla, euskalkietan hiztun gutiago izanen dela eta denborarekin desagert laitezkeela». Beste batek: «Bai, logikoki. Errateko manera, hiztegia, egitura gureak emeki-emeki aldatuko dira, han hemenka desagertuz».

6. galdera: *Iparraldeko hizkeren berezitasunak zaindu behar ote dira?*

BAI	37	% 92,50
EZ	0	% 0
BAI eta EZ	2	% 5,00
Erantzunik ez	1	% 2,50

Galdera honekin ahobatezkotasuna handiagoa da, % 92,50. IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla uste dute. «Zendako?» Galdera honen bidez, iruzkinak, azalpenak galdatuak ziren eta kasik denek erantzun dute.

Hona bi iruzkin berezitasun horien begiratzeaz: «Bai, dudarik gabe, ahal bezain bat, baina nostalgia saminetik kanpo: honek beldur hertsu bat dakar eta absolutuki atxiki nahi duen naturaltasuna galtzen du». «Uste dut distantzia hartu behar dugula eta euskararen egoera orokorra gogoetatu behar dugula. (...) etorkizunari begira, zer nahi dugu? Euskara, munduko hizkuntza bezala, biziarazi, transmititu eta zabaldu. Eta horretarako sustraiak eta enborra sendotu behar dizkiogu, euskara batua azkartuz. Bestela desagertuko da, besteen irentsiko dutelako».

Beste inkestatu horrek, IEHko berezitasunak baztertu gabe, ohar orokorragoa egiten du, euskara batzeko bidean gaudela oraino: «Estandarizazioa jendeen solasak egiten du. Gure batua oraindik gaztegia da, nire ustez, bidean da, izateko bidean. Behar den egoeran erabiltzeko gai izanen garen denak, orduan izanen baita batua».

Gehienik erabilia den kalifikatzailea «aberatsa, aberastasuna» da: baietz erran duten 36 inkestatuetarik 21ek hitz hori erabili dute (*aberastasuna, aberasten, aberatsa, aberatsago* etab., *altxor bat* ere). IEHko euskalkiek euskara batua elikatzen dute, nortasun markatzaileak dira, mintzatzeko plazera

ematen dute, belaunaldien arteko komunikatzeko baliagarriak direlarik. Baina ez dira aski zainduak eta pobretzen ari dira.

Euskalkia nortasunari lotzen dio inkestatu horrek: «Nihaurek ttipitatik mintzatu dudan euskara garaztarra da, euskalki berezia dena. Euskalkiek badute nortasun bat, badakigu nungoa den mintzatzen den pertsona eta pertsonalki hori interesantea atzemaiten dut».

Hona ama baten aipamena, euskalkien erabileraz eta bizi den bilakaeraz IEHn: «Bakoitzaren sentimenduen arabera. Nik Ziburuko formak atxikitzen ditut haurrekin mintzo naizelarik, haiek Lekorneko formak ikasten dituzte ikastolan, nahastea ere ederra da. Ez ditut berezitasunak muga gisa ikusten (Hendaian hala egin behar da, Garazin hola...), baizik eta aberastasun gisa».

Azken inkestatu horrek euskaldunen diskriminazioa eta autodebaluazioa azpimarratzen ditu: «Hizkerak baino gehiago euskal hiztun guziak zaindu behar dira eta beraz “euskal hiztun hizkeradunak” ere bai. Euskal hiztuna diskriminatua izan da frantsesa ez zuelako ongi menperatzen edo azentu batekin (sic) mintzatzen zelako, orain ere bai (lehen baino molde leunagoan bada ere). Horri gehitu behar da hainbat hiztunek “beren” euskara guties-ten dutela, adibidez “etxekoa” dutelako, hots, ez eskolan ikasia. Pentsamolde horrek gaitzeko eragina ukan du erabileran eta transmisioan».

Nehork ez du erran IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar ez direla. Beraz, kasu honetan, ikusmoldea argi-argia da.

7. galdera: Hizkuntza aniztasuna baliagarria ote da euskararentzat?

BAI	35	% 87,50
EZ	1	% 2,50
BAI eta EZ	0	% 0
Erantzunik ez	4	% 10,00

Galdera orokor honekin ere ahobatezkotasuna handia da. Bai, euskararentzat, hizkuntza aniztasuna baliagarria da. Ohar gaitezen 7. galdera hau 6. galderari hurbila zitzaiola. Galdaturik ez izanik ere, batzuek iruzkinak egin dituzte.

Garrantzitsua da bizpahiru tresna ukaitea (euskara batua, euskalkia, tokiko hizkera, familiakoa...), erregistroak. Hemen ere batek baino gehiagok aberastasan nozioa aipatzen du. Aniztasun horrek aberastasuna ekartzen dio euskarari. Bi aipamen. Bata: «Aniztasuna beti ona da, alor guztietan» eta bestea: «Aniztasun horrek du aberastasuna ekartzen. Hori unibertetsala da».

Ezetz erran duen bakarrak ez du iruzkinik egin.

8. galdera: *Beharrezkoa ikusten ote duzu euskara batuaren izatea Iparraldean?*

BAI	38	% 95,00
EZ		
BAI eta EZ	1	% 2,50
Erantzunik ez	1	% 2,50

Galdera honek ahobatezkotasuna handiena eskuratzen du. Nehork ez du ezetz erran, batek bakarrik bai eta ez. Oro har, beraz, inkestatuen arabera euskara batuaren izatea beharrezkoa da Ipar Euskal Herrian.

«Zendako?» galderaren bidez azalpenak galdatuak ziren eta kasik denek erantzun dute. Inkestatu horren iruzkinak hizkuntza batasunaren beharrezkotasuna azpimarratzen du, hizkuntza-komunitatea batzeko: «Ezinbestekoa da, Iparraldean eta Hegoaldean. Munduan zehar eraman diren esperientziak erakusten dute, hizkuntza mehatxatu bat salbatzeko, batasuna beharrezkoa dela, ezen ez baita soilik hizkuntzaren batasuna, baina ere hiztun komunitatearen batasuna».

Inkestatuen ustez, euskara batua beharrezkoa da IEHan elkar ulertzeko, euskalkidunekin, hegoaldekoekin eta diasporarekin, Bernardo Atxaga adibidez edo Euskal Telebista ulertzeko, hedapen handiko komunikabideetan, zientzietan edo filosofian, irakaskuntzan, administrazioetan... Hizkuntza mehatxatua baita, euskararen batasuna beharrezkoa da hizkuntza bera salbatzeko baina ere hizkuntza komunitatearen batasunarentzat. Euskaldun berri gehienek ez dute besterik. Justifikazio aipatuena euskaldunen arteko elkar ulertzea da.

Lau aipamen: «Zendako? Denek elkar konprenitzeko. Bainan guk haiei buruz [Hegoaldekoiei buruz] egiten dugun urrats berak ikusi nahi nituzke

haien aldetik gure alderat. Hemen badu mende bat baino gehiago lapurtar batua denetan sartua dela, tokietako euskalki eta azpieuskalkiak galdu gabe».

Bigarrena: «Herri bat girelako, euskararen herria eta hizkuntza bat ez delako jendea sailkatzeko baina komunikazioa ahalbidetzeko. Gure desberdintasunetaz gain batuak izan gaitezke».

Hirugarrena: «Iparraldean, euskarak ez du gehiago nehon hegemoniarik. Ezin dugu zokokerietan indarrrik xahatu».

Eta azkena: «Hizkuntza guztietan [hizkuntza bateratua izatea] gauza bera gertatu da eta zendako ez euskararekin?».

Nehork ez du erran IEHn euskara batua izatea beharrezkoa ez dela. Hori litzateke, behar bada, inkesta honen ekarpena nagusia?

14. galdera: *Euskara eskuz esku (EEE) egitasmoaren laguntzaileen zerrendan zure deitura ager dadila onartzen duzua?*

BAI	38	% 95,00
EZ	2	% 5,00

Azken galdera horri erantzunak inkestatuek galderei gogo onez erantzun dietela erakusten du eta beren parte hartzea ez dutela gorde nahi. Bik baizik ez dute ezetz erran.

7. Ondorioak

Artikulu honetan, inkestaren galdera itxiei buruzko emaitzak eta erantzunei inkestatuek emendatu dizkieten iruzkinak azaldu ditugu bakarrik. Galdera irekiei buruzkoak beste argitalpen batean aurkeztuko dira.

Inkestatuen laginaren adierazgarritasunaz, 40 inkestatu erran dezakegu egokia dela, halere emazte eta gazte guti direla azpimarratuz. Inkesta batzuk gehiago eskuratuko ditugu eta horien arabera artikulu hau moldatuko dugu. 2016an, Ipar Euskal Herrian, euskaldunak 51.200 zirela estimatzen da, biztanleen % 20,5 (Eusko Jaurlaritza, VI. Inkesta soziolinguistikoa). Horietan

euskalgintzan ari direnak, gure xede-publikoa zena, erakasle, idazle, kazetari, itzultzaile, euskara teknikari... mila baino gutiago direla estima daiteke, horien artean irakasle kopurua handiena delarik.

Aurkeztu dugun inkesta honen bidez, lehen atalean azaldu dugun IEHn hizkuntza egoera konplexu hori nola agertzen den laburbiltzea ez da hain erraza. Halere, oro har, joera batzuk agertzen zaizkigu inkestan.

Inkestatuen % 92,5ek IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla uste dute. Gehienik erabilia den kalifikatzailea «aberastasuna» da.

Inkestatuen % 80k euskara batuak IEHko euskalkiei kalterik ekartzen ez diela erraten dute, aldiz frantsesak bai.

Hizkuntza aniztasuna baliagarria da euskararentzat –batua, euskalkia eta tokiko hizkerak– erregistro ezberdinen ukaiteko.

Euskara batua beharrezkoa ote da Ipar Euskal Herrian? Hau da ahobatezkotasun handiena eskuratzen duen galdera; % 95ek hori pentsatzen dute. Beharrezkoa da elkar ulertzeko, euskalkidunekin, Hegoaldekoekin eta diasporarekin. Bizi modernoko alor anitzetan beharrezkoa da, beste hizkuntzendako bezala.

Inkestatuen erdiak baino gehiagok uste du euskara batu berezi bat badela orain Ipar Euskal Herrian. Horietarik guti batzuek batu bat aspaldidanik badela IEHn erraten dute, lapurteran eta behe-nafarreran oinarritua. Orain, oro har, euskara batu hori idatzia denean, Euskaltzaindiaren arautegia aplikatzen dela uste dute, hitz berriak eta aditz arautua baliatuz, baina IEHko lexikoa eta erranmoldeak atxikiz. IEHko eragin hori fonetikan eta prosodian agertzen da gehiago, frantsesaren eraginarekin batera. Lexikoan ere bai. Euskara hori batuagoa da idatzian ahozkoan baino, bertako fonetika eta prosodia atxikitzen baitira ahoskatua denean.

Ikerketa honen ondoko urratsak galdera irekiei buruzko emaitzak aztertea eta argitaratzea izanen dira, beti euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanak Ipar Euskal Herrian hobeki ulertzeko helburuarekin. Ulermen hau garrantzitsua da euskararen aldeko hizkuntza politikak gero eta egokiagoak eramateko.

Bibliografia

CRAMER, Jennifer, 2016, *Perceptual Dialectology*, www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199935345.001.0001/oxfordhb-9780199935345-e-60.

EUSKALTZAINDIA, 1994, *Ene/Nire, Niri*, 5. araua, Arau guztiak, www.euskaltzaindia.eus.

———, www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak (2018-11-24an kontsultaturik).

EUSKO JAURLARITZA, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, 2018, *Euskararen egoera Iparraldean – 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa* <http://www.mintzaira.fr/eu/euskara/euskararen-egoera-iparraldean.html>

GALLY, Sylvia, 2015, Variation linguistique perçue : quelques localités du Piémont occidental (Italie). Questions de méthodologie en dialectologie perceptuelle, *Corela HS-16*, in 2016 revues.org, <https://journals.openedition.org/corela/4013>.

GOIKOETXEA GARIKOITZ ETA BESTE, 2016-10-23, *Harian: Euskara batua eta euskalkiak dozierra*, *Berria* egunkaria.

PAVEAU, Marie-Anne, 2008, Les non-linguistes font-ils de la linguistique ? Une approche anti-éliminativiste des théories folk, *Pratiques – Linguistique, littérature, didactique*, 139-140, <https://journals.openedition.org/pratiques/1200>.

SANDERS, Allison, 2013, *Développer une méthode de recueil de données sur la perception sociolinguistique : comment les jeunes perçoivent-ils l'occitan dans le Sud-Ouest de la France ?* Mémoire Master 1, UGA UFR LLASIC SLFLE – Université Grenoble Alpes, <https://dumas.ccsd.cnrs.fr/dumas-00841377>.

ZUAZO, Koldo, 2005, *Euskara batua Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkarlanean.

**-tegi leku-atzizkiaren aldaeraz:
toponimiaren ekarpenak euskal fonetikari**

**En torno del cambio del sufijo de lugar *-tegi*:
contribución de la toponimia a la fonética vasca**

**De l'évolution du suffixe locatif *-tegi* : apport de la
toponymie à la phonétique basque**

**About the evolution of the locative suffix *-tegi*:
toponymy's contribution to basque phonetic**

DUGUINE, Isabelle
Euskaltzaindia

Noiz jaso: 2018-09-26
Noiz onartua: 2019-03-07

Euskera. 2018, 2, 1. 209-234. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan, euskal etxe-izenen morfologian sartzen den *-tegi* atzizkiaren azterketa egiten da. Euskaltzaindiaren *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) deitutako datutegian oinarrituz, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko 23 herritan kokatuak dira 148 etxe-izenen idatzizko eta ahozko formak konparatzen dira. Toponimoen azterketa diakronikoak *-tegi* atzizkiaren aldaera fonetikoak testuinguru berezi batean erakusten du: hala nola *-te* bilakatzen da, *a* determinatzailea aitzinean duelarik eta kasu absolutiboan, *-tei* formatik pasatuz (*Serorategia* > *Serorateia* > *Seroratea*). Fenomeno biziki lokalizatu horrek 9 herri baizik ez hunkitzen baitu, pentsa daiteke *ei* diptongoaren aldaketa prozesua *e* bokal soilera naturalki egin dela, inguruko lekuetan gertatu ez den bezala.

Gako-hitzak: aldaera fonetikoak, *-tegi* leku-atzizkia, toponimia, euskalkia vs batua.

Dicho artículo trata del sufijo de lugar *-tegi* que entra en la morfología de algunos nombres de casas vascas. Partiendo de la base de datos, de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, denominada *Corpus Onomástico Vasco / Euskal Corpus Onomastikoa*, se comparan las formas gráficas y orales de 148 nombres de casas vascas repartidas todas ellas en 23 municipios pertenecientes a las provincias de la Baja Navarra y de Labort. El análisis diacrónico de los topónimos muestra que la variación fonética del sufijo *-tegi* ocurre en un contexto particular: se vuelve *-te* cuando el determinante *a* está colocado antes y en caso absoluto, después de haber pasado por la forma *-tei* (*Serorategia* > *Serorateia* > *Seroratea* 'La casa de la monja'). Teniendo en cuenta que dicho fenómeno está muy localizado (sólo afecta a 9 localidades), cabe pensar que el proceso de transformación del diptongo *ei* ha seguido un proceso de cambio fonético natural, a diferencia de lo ocurrido en lugares circundantes.

Palabras clave: variación fonética, sufijo de lugar *-tegi*, toponimia, variedad dialectal vs vascuence estándar.

Cet article traite du suffixe locatif *-tegi* 'demeure, lieu' qui entre dans la morphologie des noms de maisons basques. En s'appuyant sur la base de données *Corpus Onomastique Basque / Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) de l'Académie de la langue basque, nous comparons les formes écrites et orales de 148 noms de maisons répartis sur 23 communes de Basse-Navarre et du Labourd. L'étude diachronique montre la variation du suffixe *-tegi* dans un contexte particulier, c'est-à-dire que celui-ci devient *-te* lorsque le déterminant *a* est en position finale et au cas absolu, après un passage par *-tei* (*Serorategia* > *Serorateia* > *Seroratea* 'La demeure de la religieuse'). Seules 9 localités sont touchées par ce phénomène, et une des raisons invoquées pouvant être que la diphtongue *ei* ait suivi un processus naturel de changement phonétique, contrairement aux communes environnantes.

Mots-clés : variation phonétique, suffixe locatif *-tegi*, toponymie, variété dialectale vs basque standard.

This article examines the Basque locative suffix *-tegi* 'abode, place', which took part in the morphology of Basque house names. Relying on *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) database of the Royal Academy of Basque Language, we compare written and oral forms of 148 house names, spread over 23 municipalities of Lower Navarre and Labourd. The diachronic study shows the *-tegi* suffix's variation in a particular context, that is to say it becomes *-te* when it is followed by the determinant *a* in absolutive case, after a passage through *-tei* (*Serorategia* > *Serorateia* > *Seroratea* 'The house of the nun'). Only 9 towns are concerned by this phenomenon very localized and a possible explanation could be linked to the natural process of phonetic change of the diphthong *ei*, contrary to what happened on the surrounding towns.

Keywords: phonetic variation, *-tegi* locative suffix, toponymy, dialectal variety vs standard basque.

1. Sarrera

XX. mendeko korrante linguistiko ezberdinek luzaz bazterturik, badirudi toponimiako arloak interesa berriz pizten duela ikusiz zonbat argitalpen izan diren azken urte hauetan (Vaxelaire, 2009; Löfstrom & Schnabel-Le Corre, 2015). Haatik, irakur daiteke han eta hemen toponimiak, errankizunen artean, erroak eskas dituela linguistika arloan (Gouvert, 2008). Problematika horri erantzuteko, aterabide bat litzateke hizkuntzalaritzan erabiliak diren metodoak eta teoriak baliatzea (Delorme, 2009). Euskal Herriari begira, toponimiaren azterketak hizkuntzalaritzan bere garrantzia baduela kontzientzia bada. Salaberrik (2015: 268) dioen bezala:

Toponimoek eta antroponimoek ematen dizkiguten argitasunak ez dira inola ere gutiesteko modukoak. Erran bezala, gehienak morfologia (eratorpena) eta hiztegi mailakoak dira, baina deklinabidearen arloko zehaztasun zenbait ere erdiets daitezke (inesibo, adlatibo, genitibo eta leku genitiboaren ingurukoak batik bat), eta fonetika kontuak ere iker daitezke, neurri batean (palatalizazioa, adibidez).

Artikulu honetan, Iparraldeko toponimia aztertuz, bildu ditugun datuek zer-nolako ekarpena daukaten frogatuko dugu, bereziki fonetika mailan. Baina gaian sartu aitzin, lan honen emaitzak beren testuinguruan kokatu behar ditugu eta lehen lehenik, 2003-2005 urteetan, Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herriko toponimiari buruz akuilatu duen xede bat aipatuko dugu. Proiektu horren helburua zen Frantziako *Institut de l'information géographique et forestière* (IGN)¹ deitu erakundeak argitaratzen dituen 1: 25 000 eskalako mapetan emana den euskal toponimia grafiaren aldetik egokitzea, Iparraldeko Euskal Herriko 159 herriei dagokienez². Metodologiaren aldetik, Irisarriko herrian eraman den estudio piloto baten urratsak segitu dira, Hego Euskal Herriko eta Kataluniako toponimia lanetan oinarrituz (Soulé, 2003). Hain zuzen, toponimo baten egokitze lanak eskatu du izen horri buruzko informazioa biltzea, bai iturri idatziak miatuz, bai ahozko datuak kontuan hartuz. Horretarako, Iparraldeko toponimia

¹ 2012tik goiti izen berria hartu du IGNk, ber-akronimoa atxikiz.

² Euskaltzaindiaren eta IGNren arteko hitzarmenaren zati bat agertzen da Lejeune-ren artikuluan (2008: 39).

lanetan ibiliak ziren ikerlarien lanak kontsultatu dira, hala nola Goyheneche (1966), Orpustan (1983, 1997, 2006), Iglesias (2000), baita iturri administrati-
boak (Napoleoneko katastroa eta katastroa modernoa), gehi herrika eginak
izan daitezkeen ikerketak. Ahozko iturrirei doakienez, herritar batekin lan egin
da toponimoen erabilpena jendeen eleetan neurtzeko, bereziki IGNko toponi-
moak nola ahoskatzen dituzten, nola deklinatzen diren. Metodologia bera Ipar
Euskal Herriko herri guzietan aplikatua izan zaie. Bi urteko lan horretan, abantzu
12 000 leku-izen tratatuak izan dira. Toponimo bakoitzarentzat bildu diren al-
daerak Euskaltzaindiaren *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) datutegian gor-
deak izan dira. Perspektiba diakroniko bat ematen duelako, aspektu hori erabi-
li dugu artikulu honen mamiaren hazteko, bereziki -tegi leku-atzizkiaren
bilakaera fonetikoa aztertzeko.

2. Euskarazko leku-izenen morfologiaz: -tegi atzikia

Ezaguna da euskaraz hitz-elkarketa gehiago erabiltzen dela, hitz-eratorpena
baino (Mitxelena, 1989). Artikulu honetan eratorpenari interesatuko gatzai-
zio eta partikulari -tegi leku-atzizkiari. Mitxelenaren arabera (1961), atzizki
hori -egiren aldaera bat liteke, hitz berezien, izenen edo izengoitien osatzeko
erabilia dena, baita ere ofizio izenekin. Bizkitartean, Azkuerentzat (1969),
zaila da jakitea *tegi*³, aniztasunaren zentzuan hartuz, izen bat zenetz atzizki
bilakatu aitzin ala alderantziz. Izen gisa erabilia da Markinan, Bizkaian, eta
ugaritasunaren erranahiarekin (*maastegi* 'ainitz mahats', *umetegi* 'ainitz haur'),
edo leku zerratu baten zentzuan. Azkuek (1969) dio lehengo *egi* izenetik da-
torrela eta atzizki toponimiko gisa atxikia izan dela *Aranegi*, *Jauregi*, *Remonde-
gi* izenetan. Orpustanek (1997) ere galdera pausatzen du, atzizkia edo izena
den. Eta honen ustez, *egi* izenetik etor daiteke, loturazko herskari bat erantsi
zaiokelarik. Gaur egun, badirudi bi estatutuak bereizten direla (*Orotariko Eus-
kal Hiztegia*, 2004), *tegi* ager daiteke lexema gisa, atzizki tipitzaile batekin erai-

³ Artikulu honetan, ondoko irizpide hau hautatu dugu: marratxoa ematen dugu morfema delarik, adibidez -tegi atzizkia (eta haren aldaerak -tei, -te), -a determinatzailea, kasu markak besteak beste. Aldiz, *tegi* izen gisa aipatzen delarik, zeinurik gabe agertuko da; halaber, diptongo (ai, ei, oi), bokal (a, i, o, e) edo kontsonanteen kasuan (g, k).

kia (*tegitto*, *tegiška*), edo deklinabide kasu batekin, hala nola ablatiboan (*tegitik*), adlatibo bukatuzkoan (*tegiraino*), datiboan (*thegiari so*). *Tegi* atzizki gisa onartua da ere, lekuaren erranahiarekin (*liburutegi*). Lehenago aipatu bezala, toponimian aurki daitezkeen atzizkietarik bat da, ahoskera modernoan *-tei* edo *-dei* bilakatzen dena (Orpustan, 1983). OEHn ere, *tei* forma laburtua agertzen da, *teia* adibidean ‘zerritegi’ zentzuan, edo sintagma batean *urdia teiam hila*, euskal erran zaharrari oihartzuna eginez⁴.

Euskal fonetika historikoaren ikuspuntutik, gogoaraztekoa da kontsonante baten galtzea bi bokalen artean usu gertatzen dela, diptongo baten sorrera ondorioztatuz. Adibidez, Oñederrak (2004: 66) dio: «Hori gertatzen da euskaraz, esaterako, egin hitza ahoskatzean bokal arteko /g/ ahultzea galtzeraino iritsi eta elkarren ondoan gelditzen diren bokalak silaba bakarrean ahoskatzen direnean [ejn], [ejn]». Euskalki batzuetan, *egin* ahoskatze-ko ordez, *in* forma entzun daiteke, *g* herskari ozena isilduta eta *ei* diptongoa *i* bokalera pasatuz. Gavelek (1920), bere aldetik, Nafarroa Behereko Irulegi herriaren adibidea zititzen du, erranez ahoz *Irulei* formara pasatzen dela, herskari galtzearen ondotik. Orokorki, *-egi* atzizkia *-ei* diptongo bihurtzen da Nafarroa Behereko ahoskera arruntean. Beste kasuetan, Gavelek (1920) dio *ei* diptongoko *e* bokala hesten dela, ondoko *i* bokalaren eraginez. Nahiz gertakari hori ez den dokumentatua, Gavelen usteetan, *ii* diptongo bat izan zitekeen, garai batez hasteko, *i* bokal soil bihurtu aitzin.

Toponimiaren gaira berriz itzuliz eta bereziki *-tegi* edo *-degi* bilakaeraz etxe-izenetan, lan unibertsitario batek erakutsi du atzizki hori sistematikoki murrizten zela Izturitzeko etxe-izenetan (Duguine, 2005). Hain zuzen, *-tegi* forma osoa *-te* formara laburtzen da *-a* determinatzaileari lotua delarik (adibidez, *Serorategia* > *Seroratea*). Etxe-izenen morfologiari dagokionez, ikerketa horrek

⁴ «59 Apherila biribila, urdandegian urde hila» (Elissalde, 1936: 4), «Apirila, biribila, zeria urdandegian otzak ila» (Azkue, 1969: 151) edo oraino «Apiril biribil, urdea txerri-tokian il» formarekin (Zavala, 1985: 37). Zabalago joanez, bretoi ohituretan ere aurkitzen da horrelako erran zaharra, «Ebrél c’harw, Porc’hel marw» (Sauvé, 1876: 69-69), «Ebrél garv, Porc’hell marv» bretoi modernoan idazten dena (Le Bihan, 2018: KP). Korsikarrez ere, «Aprili Desfa purcili» atzeman daiteke ahozko usaietan. Azkenean, apirilean gerta daitekeen hotzaren ondorio latzak azpimarratzen ditu erran molde zahar horrek, mintzaira batean ala bestean izaki.

honelako sailkapena proposatzen du: 43 izen eratorri (% 38), 53 izen elkartu (% 53) eta 14 izen soil (% 13). Eratorpenaz osatuak diren izenetan, 18 etxe-izen *-tegi* atzizkiarekin osatuak dira (% 41,86). Beraz, beste atzizkiei konparatuz, etxe-izenen osatzeko *-tegi* nagusiki erabiltzen dela herri horretan adierazten du azterketa horrek. Eta bestalde, idatzizko eta ahozko iturriak kontuan hartuz, etxe-izen guztiak (salbuespenik gabe) *-tea* formarekin ahoskatzen dira, *-tegia* forma estandarra erabiltzeko ordez, *-teia* forma ez delarik sekula agertzen.

Aldaera linguistiko hori ($ei > e$) beste hizkuntzetan ere gertatu da. Frantsesaren adibidea hartuz, diptongoa mantentzen da hitz batzuen grafian, nahiz frantses garaikidean bokal bakuna ahoskatzen den: *reine* [ʁɛn] ‘erregina’ (Brunot & Bruneau, 1949: 59). Azpimarra dezagun gazteleraz diptongoa atxiki dela: *reina* [rejna], latineko *regina* [regina] oinarritik heldu dena. Beraz, hemen ikusten da argiki euskaraz pasatu daitekeen aldaera fonetikoak: $egi > ei > e$. Gaskoiz ere, horrelako fenomenoak gerta daiteke, bereziki *-èir* atzizkia (*-eir* edo *-ey* idatzia) *-èr* formara pasatzen denean (ad. *pomèr* ‘sagarrondo’). Iparraldeko gaskoiak *-èir*, *-èira* forma begiratu du (*leitèir*, *leitèira* ‘esnegile’), *-ariu*, *-aria* latinetik abiatuz. Baiona eskualdeko gaskoian, horrelako formak atzeman ditzakegu Erdi Aroko idazki batzuetan, baina orokorki, hegoaldeko gaskoia *-èr*, *-èra* formarantz aldatu da aspaldidanik. Katalan hizkuntzak aldaketa berari jarraiki dio Erdi Arotik goiti (Viaut, 2018: KP). Egia ere bada latinezko *-act-* multzoak okzitaniarrez eta katalanez, horrelako aldaketa segitu duela: latinezko *factu* formak *fait* eman du Languedoc aldeko okzitaniarrez eta *hèt* gaskoiz, gehiago *hèt* hego-ekialdeko partean (Ravier, 1991: 87), katalanez *fet* delarik.

Euskararen kasuan, eta artikulu honen helburua delako, ikusiko dugu aldaera fonetiko hori noraino hedatzen den, Izturitzeko auzoko herrien toponimia kontuan hartuz. Ondoko lerroetan, erabili dugun metodologia aurkeztuko dugu.

3. Metodologia

2003-2005 urteetan, Frantziako IGN erakundearen eta Euskaltzaindiaren partaidetza koadroan, eraiki den Iparraldeko corpus toponimikoa era-

bili dugu, geroztik *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) datutegian integratua izan dena. Izturitzeko auzo herrien toponimoen artean, *-tegi* atzizkia daukatenak begiratu ditugu. Leku-izenak, hidronimoak, oronimoak ez dira kontuan hartu. Baztertuak ere izan dira dudazko toponimoak, edo aski dokumentatuak ez zirenak *-tegi* atzizkiaren bilakaera argiki ikusteko. Azkenean, 1.300 toponimoren artean, 148 etxe-izen altxatu ditugu, 23 herritan hedatuak zirenak:

- Nafarroa Behereko 13 herri: Bastida, Izturitze, Aiherra, Armendaritze, Iholdi, Mehaine, Donamartiri, Donoztiri, Heleta, Oragarre, Irisarri, Ortzaize, Bidarra;
- Lapurdiko 10 herri: Hazparne, Lekuine, Makea, Lekorne, Luhuso, Kanbo, Haltsu, Jatsu, Mugerre, Beskoitze.

Gero, toponimoen idatzizko eta ahozko aldaerak elkartu ditugu taula bilduma batean (ikus eranskina). Taula horrek biltzen ditu, alde batetik, Napoleonen katastroa (guti gorabehera 1830-1835 urteetako iturria) eta katastro berriak (1970ean koka genezakeena) dauzkaten idatzizko toponimoak, eta bestetik, IGN mapetan agertzen diren leku-izenak. Toponimoen ahozko formei dagokienez, 2003-2004 urteetan egin diren terrenoko inkesten emaitzak dira. Lan honetarako, 28 lekukoren erantzunak bildu dira. Inkesta horietan, herria ongi ezagutzen duen lekuko bati, dazkikien etxe-izenak ematea eskatu zaio, auzoka eta nahi zuen puntutik abiatuz. Lekuko adina 50 eta 83 urte artean kokatzen zen. Gehienak gizonak ziren, lau emazte baizik ez ditugu kontatu gure laginean. % 61 laborantza mundutik etortzen zen. Honelako itxurarekin agertzen dira leku-izenen forma ezberdinak:

1. taula. Izturitzeko etxe-izen batzuen aldaerak

Herriak	Napoleoneko katastroa	Katastroa berria	IGN datu-basea	Ahozko forma
Izturitze	Arlandeguy	–	Arlandéya	Arlandea
	Bichiatéguy	–	–	Bitxiatea
	Carabindeguy	Carabindéguy	Carabindégua	Karabindea
	Castoundeya	Gastoundeya	–	Kastundea

4. Emaitzak

Datuen azterketak erakustera ematen digu *-tegi* edo *-degi* forma osoko izenak gehienik aurkitzen direla idatzizko iturrietan, Napoleoneko katas-troan partikularki. Ohartzen gara *-tegi* atzizkiak prozesu berezi bat segitzen duela, hala nola bokalarteko *g* kontsonante herskariaren galtzearen ondo-tik, *ei* diptongoa sortzen da (adibidez *Castoundeya*, ikus 1. taula). Aldatze prozesua ez da horretan gelditzen zeren eta diptongoa *e* bokal bakar bihur-tzen baita, bereziki ahozko datuei begira. Fenomeno hori gertatzen da atziz-kia singularrean mugatua delarik eta kasu absolutiboan (-Θ): *-tegia-Θ > -teia-Θ > -tea-Θ* (*Aphextegia > Aphexteia > Aphextea*) edo *-degia-Θ > -deia-Θ > -dea-Θ* (*Arlandegia > Arlandeia > Arlandea*).

Ondoko taulan (2. taula), *-tea* edo *-teia* atzizkia duten toponimo aldaeren kopurua herrika eta horien ehunekoa emanak dira. Ohartaraz dezagun *-tegi* forma osoa ez dela sekula aurkitzen ahozko datuetan. Ondorioz, «*-tegi* kilako toponimo kopurua» izendatu zutabearen, gure ustez *-tegi* oinarriarekin osa-tuak diren leku-izenak sartu ditugu, katastroetarik abiatuz baita horko he-rrien euskalkiaren ezagutza ukanez.

2. taula. *-te(gi)*a edo *-te(g)*iakilako toponimoen kopurua


Herriak	<i>-tegi</i> kilako toponimo kopurua (forma estandarrean)	<i>-te</i> kilako ahozko datuak	<i>-te</i> kilako ahozko datuak	<i>-teia</i> kilako ahozko datuak	<i>-teia</i> kilako ahozko datuak
Izturitze	14	14	% 100	0	-
Aiherra	21	21	% 100	0	-
Hazparne	22	22	% 100	0	-
Lekuine	8	8	% 100	0	-
Donoztiri	5	5	% 100	0	-
Makea	2	2	% 100	0	-
Donamartiri	4	4	% 100	0	-
Heleta	7	6	% 85,71	1	% 14,28
Lekorne	10	1	% 10	9	% 90

Herriak	-tegiakiko toponimo kopurua (forma estandarrean)	-teakikako ahozko datuak		-teiakikako ahozko datuak	
Mehaine	6	0	-	6	% 100
Armendaritze	4	0	-	4	% 100
Iholdi	4	0	-	4	% 100
Irisarri	9	0	-	9	% 100
Ortzaize	3	0	-	3	% 100
Bidarrai	1	0	-	1	% 100
Luhuso	4	0	-	4	% 100
Kanbo	3	0	-	3	% 100
Haltsu	-	-	-	-	-
Jatsu	1	0	-	1	% 100
Mugerre	5	0	-	5	% 100
Beskoitze	12	0	-	12	% 100
Bastida	1	0	-	1	% 100
Oragarre	2	0	-	2	% 100
OROTARA	148	83		65	

Ohartzen gara *-tegi(a)*tik *-te(a)*ra aldaera 9 herritan gertatzen dela, hala nola Izturitzen, Aiherran, Hazparden, Lekuinen, Donoztirin, Heletan, Makean, Lekornen. Halere, *-tea* forma bakarraren izatea ikusten da ondoko herrietan: Izturitzen (14/14), Aiherran (21/21), Hazparden (22/22), Lekuinen (8/8), Donoztirin (5/5), Makean (2/2) eta Donamartirin (4/4). Zonbait tokitan, nagusi izanik ere, *-tea* forma aldizkatzen ahal da *-teia* formarekin, Heletan bezala non forma bat baizik ez den aurkitzen (*Lakoteia*), beste zazpi *-teakikako* formen ondoan (6/7). Aldiz, alderantzizko gauza iragaten da Lekornen, non *-teakikako* forma bakar bat (*Zanbriutea*) atzematen baita, bederatzi izen *-teia* formarekin agertzen direlarik (1/10). Beste lekuetan *-teakikako* formarik ez da inon aurkitzen, erran nahi baita erabiltzaileek bokalarteko ioda atxikitzen dutela. Ondoko mapak fenomeno linguistiko horren hedapena erakusten du. Iparraldean muga bat argiki ikusten da, alde batetik *-teia* erabiltzen den lurraldea eta bestetik, *-tea* nagusiki baliatua den gunea (go-

riz mapan). Hegoaldera joanez, ukipen esparru bat (berdez mapan) haute-maten da, non bi formak (-teia eta -tea) elkarren ondoan bizi baitira (Lekornen eta Heletan). Espazio horretatik kanpo, erran nahi baita euskararen eremu gehienetan, -teia baizik ez da erabiltzen. Aitortu ere behar da -tegi atzizkia leku horietan gutiago erabilia dela etxe-izenetan eta horren orde, genitiboa (*Andresenea*) edo baita elementua (*Sebastienbaita*) onetsiko dela, bereziki Lapurdin⁵.

1. mapa. -tegi leku-atzizkiaren aldakien eremua



⁵ Orpustanen arabera, -tegi atzizkia biziki goizik agertzen da Erdi Aroko testuetan, eta garai hartan ainitz erabilia izan dela eredu gisa. XV. mendetik goiti aldiriz, auzo berrien eraikuntzarekin, genitiboaren erabilpena (-(r)ena) garatu da leku-izenetan. XVI. mendean, baita agertu da mendebaldeko Lapurdin, hiritzen ziren eremuetan oroz gainetik, (ikus http://www.tipirena.net/Tipirena_-_Site_officiel_de_Jean-Baptiste_ORPUSTAN/IV._Onomastique.html).

Bestalde, 2003-2005 urteetan egin ziren ahozko elkarrizketetan, toponimoak bildu ziren ez bakarrik forma mugatuan baizik eta mugagabea eta ablatiboan⁶. Azken forma hauei begiratuz, ohartzen gara, *-tea* ekoizten den eremuan, diptongoa berriz agertzen dela bi testuinguru horietan. Hazparden adibidez, *Xilbendea* sintagma mugatua, *Xilbendei* bilakatzen da mugagabea eta *Xilbendeitik* kasu ablatiboan, berdin *Malingotea* > *Malingotei*, *Malingoteitik*. Makean berriz, *Ilhaindea* etxe-izena emana da, baina *Ilhandeitik* forma ekoizten da ablatiboan. Lekuinen, *Xestretea* eta *Xestreteitik* bezalako formak ere baditugu.

Laburbiltzeko, *-tegi* atzikia *-te* bilakatzen da, singularrean mugatua delarik eta kasu absolutiboan (erran nahi baita *-a* artikulua aitzinean delarik). Aldiz, ioda berriz agertzen da kontestu berezi batean, hemen *t* kontsonantearen aitzinean, ablatiboazko morfemaren lehen hizkia izanik.

5. Eztabaida

Zati honetan, katastroa zaharreko toponimoek duten berezitasuna idazkeraren aldetik aipatuko dugu lehenbizikorik. Ondotik, interesatuko gara idatzizko eta ahozko datuen konparazioak salatzen duenari, erran nahi baita *-tegi* atzizkiaren aldaketa diakronikoari. Eta bukatzeko, fenomeno horren azaltzeko zoin daitezkeen hipotesiak proposatuko ditugu.

5.1. Napoleoneko katastroan diren toponimoen grafiaz

Katastroa zaharrean diren toponimoen grafia aztertuz, ohartzen gara kasik aldi guziz mugagabea agertzen direla (*Harguindeguy*, *Joanateguy*). Iduriz, ez da beti horrela izan Erdi Aroko dokumentuek erakusten duten bezala (Orpustan, 1999). Garai hartan, leku-izenak, etxe-izenak barne, determinatzailearekin emanak ziren (*Aritzia* 1054an, *Lamiateguia* 1246an). Baina,

⁶ Lekukoari emana zaion manua hau da: 1) «Etxe horretako jabeari nola erraten diozu?»; 2) «Etxe horretatik heldu bazara, nola erranen duzu?». Demagun Etxeberria etxe-izenarentzat, igurikatuak diren erantzunak Etxeberri eta Etxeberritik dira hurrenez hurren.

toponimo horiek latinezko edo erromaniko testuetan kokatuak baitziren, bereziki Akitaniako eskualdean, gertatu izan da determinatzaile gabe izatea. Orpustanen ustez (1999), idazleek ongi bazakiten *a* artikulua funtzioa zoin zen, XVI. eta XIX. mendeetan *-a* hondarrekoaren polemika hasi aitzin. Teoria horren arabera, izen arruntek (salbu izen bereziek) *a* hartzen dute singularrean eta *ak* pluralean (Oyharçabal, 1993). Beraz, izen arruntek ez bezala, izen bereziek ez dute arau hori segitzen, eta, ondorioz, artikulurik gabe agertzen dira. Halere, Duvoisinek dioen bezala (1866: 6-7), izen bereziak mugagabean deklinatzen dira, etxe-izenek mugatuaren marka hartzen dutelarik. Hartako, diferentzia egin daiteke *Etxeberri* antroponimoaren eta *Etxeberria* etxe-izenaren artean.

Napoleoneko katastroari dagokionez, ongi liteke jakitea toponimoen bilketa zer baldintzetan egin zen, eta zergatik etxe-izen nagusiak mugagabean agertzen diren. Nola esplika ditzakegu artikulurik gabeko izenak? Bilketariak izen berezien deklinabide prozesua ezagutzen ote zuten? Edo eskainia izana zaien manua aplikatzen ote zuten? Pentsa genezake ere administrazio-ko hizkuntzak (hemen frantsesak) inpaktu handi bat ukan lezakeela toponimoen morfologiari dagokionez, denboran latina edo erromanikoarekin gertatu den bezala. Hain zuzen, Napoleoneko katastroa eraiki zenean Languedoc eskualdean, leku-izenen frantsesteko nahia agertu zen (Marichy, 1997). Marichyk dio okzitaniar toponimoak frantsestu direla dokumentu administratiboetan, jendeak erabiltzen zituzten formatatik urrunduz. Bestela erranez, arteka bat badateke idatzizko dokumentu frantsestuaren eta okzitaniar ahozko tradizioaren artean. Oronen buru, katastroak duen ereduak balorea dudazkoa liteke, eta, hori kontuan hartuz, interesgarri liteke lan sakonago bat plantan ezartzea, jakiteko nor ziren xuxen Ipar Euskal Herrian ibili ziren katastroako geometrialariak⁷ eta zoin ziren heien lan egiteko manierak bilketa denboran.

⁷ Napoleoneko katastroa miatuz, ohartu gara Pirinioetako departamenduan geometria nagusi bakar bat bazela (Jean-Félix Barrau) eta terrenoko geometrialariak, aldiz, kopuru handian zirela. Adibidez, 1835ean, Dulaurier jauna ibili zen Izturitzen eta Donamartirin, Larras anaiak Aiherran, Labarthe jauna Donoztirin. Horrek erran nahi du, herriaren arabera, ez direla ber jendeak ibiltzen terrenoan eta bilketak egiten. Arrazoi bat izan liteke homogeneitate eskasa esplikatzen toponimoen idaztean.

5.2. -tegi atzizkiaren aldaera fonetikoaz

Lan honen emaitza garrantzitsuena ezaugarri linguistiko berezi baten erakustea izan da, erran nahi baita, *-tegi* leku-atzizkia *-te* forma bilakatzea, *a* bokal irekiaren giblean delarik, arteko formatik pasatuz (*-tei*). Diptongoen laburtzea, hizkuntzalaritzan fenomeno klasikoa dena, toponimia arloan gauzatzen da, eta, horretan, Martinetek jadanik (1986) edo berrikitan Salaberrik (2015) diotenarekin ados gara, leku-izenen azterketak hizkuntzari ekar liezazkion argitasunak azpimarratuz.

Nahiz Gavelek (1920: 85) jadanik altxatu zuen *ei* diptongoaren era laburtzea, adibide gisa hartuz *leizar* eta *lesar* hitzekin, gure corpusari konparatuz, diferentzia da aldaera hori ez dela ber ingurune morfofonologikoan gertatzen. Hala nola, gure datuek erakusten duten bezala, *ei* diptongoa *a* bokal irekiaren giblean jarria delarik iragaten da eta ez igurzkari baten giblean (*z*, *s*). Haatik, ikusi dugu *ei* diptongoa mantentzen zela sintagma ablatiboan (*eiitik*) edo mugagabeen (*ei*). Interesgarri liteke jakitea *-tegitik -tera* aldaera zeri lotua den: arrazoi morfoloikiko bati (artikuluaren gehitzea) edo arrazoi fonologiko bati? (*-tegi* atzizkia *a* bokal irekiaren gibleko posizioan delako). Galdera horri erantzun bat emateko, lan ildo bat litzateke *-tegi*ekin formatuak diren toponimoen ahoskera aztertzea, bereziki leku-genitiboan (*-ko*), adlatiboan (*-ra*) eta inesiboan (*-n*) deklinatuak direlarik, ikusteko diptongoa atxikia den kasu horien aitzinean. Hipotesia pausatzen dugu inesiboan diren izenak murrizte fenomenoia jasan behar luketela artikuluaren presentziarengatik.

Bestalde, ikusi dugu fenomeno hori ageri zela eremu berezi batean, Nafarroa Behere eta Lapurdiko arteko gunean hain zuzen. Euskalki horretako hiztegi arruntari so egiten badiogu, ohartzen gara diptongoaren laburtzea ilustratzen dela zombait adibidetan. Hala nola, hitz-elkartuetako osagai daitekeen *-gai* atzizkia, *-a* determinatzailea duelarik ondotik, usu *-ge* bilakatzen da: *gizongaia* > *gizongea*, *apezgaia* > *apezgea* (Videgain, 1991: 85), segur aski *-geitik* pasatuz. Berdin, *anea* erabiltzen da *anaiaren* ordez⁸,

⁸ Azkueren zerranda berriz hartuz (anae, anai, anaia, anaje, anase), Gavelek (1920: 99) ani aldaera gehitzen du, ai diptongoaren i-ra laburtzea ilustratzen duelarik. Ohartzen gara anea forma ez dela zerrendan agertzen.

Donamartirin, Bidarrain (hemen *anai* formarekin aldizkatuz) eta Nafarroako Abaurregainan (EAEL, 1983: 46). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA)ko datuen arabera (argitaratzekoa), *anea* harrapatzen da Bardozen, Beskoitzen, Hazparnen, Bastidan eta Izturitzen Ipar Euskal herriari dagokionez, baita ere Abaurregainan Nafarroako partean. Ondorioz, delako aldaketa fonetikoa (*eia* > *ea*) ustez baino hedatuago da, ardurazko hiztegia hunkitzen baitu.

Gero, *ai* eta *ei* diptongoen arteko aldizkatzea gertatzen denean, ez da beti *e* bokal soilera laburtzen. Hala nola, *gain* postposizioa *gein* bilakatzen da Izturitze aldean, baina ez da **gena* edo **genian* formarik aurkitzen (menturaz *n* sudurkariaren gibelean delako?). Gorago erran dugu *ei* diptongoaren *e* bokalara pasatzen zela *a* bokalaren gibelean delarik⁹. Molde bereko fenomeno bat ikusten da *oi* diptongoarekin, *o* bokal bihurtzen baita Izturitzeko etxe-izen batean, *Amextoia* > *Amextoa*, edo lekuko hiztegi arruntean, *doia* > *doa* (Duguine, 2005). Diptongoaren bokal-aurreko posizioak hipotesi fonologikoaren alde jokatzen du, lotura egiteko gorago aipatuko dugun galderarekin.

Gogoeta segituz eta *Makea* herri izenaren kasua hartuz, gogoraz dezagun Orpustanek (1997: 42) lotzen duela lehengo *mehaka-hegia* egitura batekin, menturaz *-aga* leku-atzizkiak luzaturik, eta *Makaia* edo **Makaia* bilakatu daitekeena. Ez du aipatzen euskarazko forma modernoa, *Makea*, laburtze fenomeno hori jasan lukeena: *Makaia* > *Makeia* > *Makea*. Pundu horrek erakusten du zonbat uste denaren kontrako den euskal izenen estandarizazioa. Hain zuzen, aldaera fonetikoa (*ai* > *ei* > *e*) bururaino iragatea onartzen da *Makea* herri izenarentzat, bestela erranez ahozko forma onartua da. Haatik, *-tegi* atzizkiarekin osatuak diren herri horretako etxe-izenentzat, lege fonetikoa (*ei* > *e*) ez da onesten, erran nahi baita forma osoa zaindu behar dela, *Hargindegia* eta ez erabileran den *Hargindea*. Artetik errateko,

⁹ Halere, ondoko adibideei so egiten badiegu, konturatzen gara diptongoaren laburtzea ez dela baitezpada a determinatzailearen aitzinean delako gertatzen. Ber fenomenoak aurki daiteke, ei diptongoa e bokalaren aitzinean (haiek > heiek > hek), edo k herskariaren aitzinean delarik (hamaika > hameka). Nahiz emaitza bera den (e bokal bihurtzea), ez dakigu prozesu bera obran den.

interesgarri da ohartzea frantses forma ofizialak atxikitzen duela bukaerako *ai* diptongoa: *Macaye* /makaj/.

Azken puntu gisa, azpimarra dezagun ezaugarri linguistiko berdintsuak Aezkoan aurki ditzakegula (Camino, 1997). Euskalki horrek dituen propietateetan, 1) *ai* eta *ei* diptongoen arteko aldizkatzea badugu: *Abaurregaina* > *Aburregeina* (Onomastika batzordea, 1997: 658), *gaixtoa* > *geixtua* (Moutard, 1975: 30), edo *Olatzegaña* > *Olatzegeina* (Salaberri, 1992: 626); 2) hitz bukaerako *ai* bilakatzen da *ea* deklinabide mugatuan, *ukarai* > *ukarea*, *arrai* > *arrea* (Moutard, 1975: 30); eta 3) *ei* diptongoaren *e* bokal soilera laburtzea, *anaia* > *anea* (EAEL, 1986: 46; EHHA, argitaratzekoa: ikus galdera 76010), *seian* > *sean*, *igiteya* > *iitea* (Camino, 1997: 225-226). Ohartzen gara *ei* diptongoaren laburtzea *e* bokalara, *a* bokala aitzinean delarik gertatzen dela, gure datuek erakusten duten bezala. Azkenean, bi gune linguistiko horiek (Arberoko harana eta Aezkoa), nahiz bata bestetik urrun diren, bederen hiru ezaugarri amankomun partekatzen dituzte, hemen tratatuko ez dugun despalatalizazio fenomeno ahantzi gabe. Egia da aezkera Nafarroa Behereko sortaldeko azpieuskalki gisa sailkatua dela (Lafon, 1955: 707-708) eta ondorioz, ez da harritzekoa antzekotasunak izatea bi eskualde horien artean.

5.3. Diptongoa laburtzeari doazkion hipotesi esplikatzaile zombait

Ondoko lerroetan saiatuko gara honenbeste arrazoi proposatzera *ei* diptongoaren *e* bokal iragatea justifikatzeko. Orpustani fidatuz (1992: 226), diptongo laburtzea ahoskeraren laxotasunarengatik esplika daiteke. Higadura fonetikoak sistematikoki bokalarteko kontsonante batzuk ezabatzen ditu, bokal segidak sortuz, eta azken hauek naturalki laburtzen dira. Oro har, artikulazio higadura hizkuntzen aldakuntzan ageri den joera bat da, garrantzi gutiko ezaugarri fonetiko edo aurkakotasun fonologikoak higatzen edo desegiten direnean. Soziolinguistikaren ikuspegitik, hitzaren laxotasunak konnotazio gutiesgarri bat dauka, estandar-azpiko hizkuntza bateko irudiarekin (Gadet, 2000). Bizkitartean, psikolinguistikaren ikuspegia kontuan hartuz, ahozko laxotasunak hizkuntzaren sinplifikazio prozesu natural bat segi lezake besterik gabe, kargu kognitibo inportante baten ttipitzeko,

ahoskeraren konplexutasunari lotua dena. Halere, ez da erraz ulertzeko zergatik aztertu dugun fenomeno hori ez den gehiago zabaldua, eremu mugatu bat –edo hiztun multzo bat– baizik ez baitu hunkitzen.

Orpustanek (1992) proposatzen duen bezala, *-tegi* > *-tei* aldatzea leku-atzizkiaren maiztasunarekin lot dezakegu. Haren ustez, higadura fonetikoak ohikoa da hitza edo silaba usu erabiltzen denean. Ondorioz, interesgarri liteke aztertzea *-tegi* atzizkiaren presentzia edo maiztasuna eremu horretan, jakinez beste lekuetako etxe-izenen egituretan gutiago erabilia dela, hala nola Lapurdin kasu genitiboa edo *baita* osagarria nagusiki baliatzen delarik.

Beste hipotesi bat liteke lotura egitea demografiarekin. Léonardek (2008) pentsatzen du korrelazio bat izan daitekeela pisu demografikoaren eta batasun soziolinguistikaren artean. Bestela erranez, gune baten emendatze demografikoak –hiri bilakatzearen ondorioz adibidez– ainiztasun dialektalaren ezabatzea eraman lezake, espazio horretan jendetza metatuz. Datu demografikoak aztertu behar litezke ikuspegi historiko batekin ikusteko biztanleen kopurua (eta beraz hiztunena) inportanteagoa den beste eremu euskaldun batzuekin konparatuz, gero eta jendetsuago den eremu batean, gero eta ezaugarri linguistiko amankomunagoak bil daitezkeen hipotesia egiaztatzen. Hizkuntza ohiturak errazten dituzten komunikabide ardatzak edo eremuen arteko mugimenduak kontuan hartzekoak dira ere. Gure mapako datuei berriz so egiten badiegu, *-tegi* atzizkiaren bi aldaeren (*-tei* eta *-te*) arteko ukipen eremu bat bazela ikusi dugu. Nola interpretatu behar ote dugu fenomeno hori? Gurutzatze ainitz izan baitira eskualde horretan? Ala bakar-tasun geolinguistiko bat bezala kontsideratu behar dugu? Mementoko ez dezakegu erantzunik eman.

Bestalde, Viaut eta Buroven (2008) ikuspegitik, eremu linguistiko batzuk autonomoak balira bezala ibiltzen dira. Adibidez, Médoc aldeko okzitaniaren ezaugarri fonetikoak aztertuz, autore horiek pentsatu dute toki bakartia izan zitekeela, zoinetan *-a* latinezko marka femeninoaren ahoskera konterbatzen baita. Badaiteke mikrogune hori konpresio mugimendu baten emaitza izatea, Médoc iparraldetik datorren sistema autonomoa, batetik, eta, bestetik, mendebaldeko gaskoia segituz (Viaut & Burov, 2008: 861). Gure lanarekin paraleloa egiten badugu, erran dezakegu *-tea* erabiltzen den

eremua mikrogune bat litzatekeela, ahoskeraren aldetik laxotasun prozesu natural bat jasan lukeena. Eta denbora berean, pentsa dezakegu gauza bera gertatu dela aezkeraren kasuan, bestela erranik, aldatze «naturala» iragan daitekeela lur eremu horietan, kanpotik inongo eraginik izan gabe.

6. Ondorioa

Artikulu honen helburua zen *-tegi* leku atzizkiaren tratamendu fonetikoaren aztertzea, Iparraldeko etxe-izen ainitzen morfologian sartzen dena. Idatzizko eta ahozko iturrietan oinarrituz, erakutsi dugu *ei* diptongoaren laburtzea, *g* herskari ezabatzearen ondorioz, *e* bokal soil bihurtzen dena, baldintzazko irizpidea delarik mugatua izan behar dela *-a* determinatzailearen bidez. Diptongoen laburtzea, euskaraz klasikoa dena beste hizkuntzetan bezala funtsean, ahoskeraren laxotasunarekin zer ikusirik baluke, diptongoaren eboluzio normalean sar daitekeena. Fenomeno horren esplikatzeko nahiarekin, parametro batzuk proposatu ditugu, hala nola *-tegi* atzizkiaren maiztasuna eremu horretan, ainiztasun linguistikoa atxikitzen edo ezabatzen lukeen pisu demografikoa, edo euskalki guneen autonomia fenomeno linguistiko batzuk gertatzera edo naturalki gauzatzera haizutzen duena. Hala balitz, ikus dezakegu leku-izenen bateratzeak zer ondorio ekar lezakeen, erran nahi baita, euskara batua aplikatuz, ahozko ezaugarri arraro edo bakanen ezabatzeko arriskua har genezake, eta urrunago joanez, galtze bat liteke hizkuntza baten barne eboluzioaren neurtzeko. Baina problematika hau ez da bakarrik euskararena, baizik eta hizkuntza idatzi eta estandarizatu guziena, batuan idatziak ahozkotatasunaren aniztasuna ez dezakeela erakutsi ondorioztatzen dugularik.

7. Bibliografia

AZKUE, Resurrección Maria, 1969 [1923], *Morfología Vasca*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca.

CAMINO LERTXUNDI, Iñaki, 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruñea, Nafarroako gobernua.

Euskaltzaindiko Onomastika batzordea, 1997, «Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak», *Euskera*, XLII(3), 653-666.

DELORME, Jérémie, 2009, *Éléments de toponymie générale du Grand-Bornand à Passamainty, terrain de longue durée et enquêtes contrastives en terrain varié dans les domaines roman, polynésien, basque et bantu*, Tesi-lana (zuz.: LE MARECHAL, A.), Paris, Université Paris IV.

DUGUINE, Isabelle, 2005, *Toponymie basque : étude de l'évolution des noms des anciennes maisons d'Isturits de 1830 à nos jours*, Maitrisa-lana, (Zuz.: VIDEGAIN, Charles), Baiona, Paue eta Aturriko Unibertsitatea.

DUVOISIN, Jean-Pierre, 1866, *Etude sur la déclinaison basque*, Paris, Maisonneuve.

ELISSALDE, Jean, 1936, *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran zahar*, Baiona, La Presse.

EHHA: *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a, argitaratzekoa, Bilbo, Euskaltzaindia.

EDEL: *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*, 1983, Donostia, Aranzadi.

GADET, Françoise, 2000, «Le terme «relâchement» en sociolinguistique», *Linx*, 42. URL: <http://linx.revues.org>

GAVEL, Henri, 1920, *Éléments de phonétique basque*, Paris, Champion.

GOUVERT, Xavier, 2008, *Problèmes et méthodes en toponymie française : essais de linguistique historique sur les noms de lieux du Roannais*, Tesi-lana (Zuz.: CHAMBON, J-P.), Paris, Université Paris IV.

GOYHENECHÉ, Eugène, 2011 [1966], *Onomastique du Nord du Pays Basque (XI-XVe siècle)*, *Iker* 27, Bilbao, Euskaltzaindia.

Euskarazko hizkuntza-atlasgintza berandukoa dela esaten denean ez da esan nahi beranduegi iritsi dela, ezpada lehenengo hizkuntza-atlasak XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran argitaratzen hasi zirela kontuan hartuta, mende bateko tartean badagoela beste hizkuntza-atlasek egindakoa ikusi eta aztertzeiko aukera. Halaber, mende bateko tartean egon badago euskarazko hizkuntza-atlasak aurrekariren bat izateko tartea, baina ezer zehaztu aurretik, azertu beharrekoa da zer hartu izan den aurrekaritzat ere. Hori egin ahal izateko, nahitaezkoa da lanaren prozedurari ez eze, helburuari ere begiratzea.

Bestalde, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* galdera jakin bati tokian tokiko erantzun zehatza emateaz harago, bada herri-jakintzaren eremuan kokatu eta jasotako erantzun hori goitik behera aberasteko modua, asko baitira erantzun bati buruzko informazioarekin hornitutako galderak. Maparen ikusgarritasunak gainerako informazioa sarritan lausotzen badu ere, herri-kulturaren arloko informazio osagarri eta aberatsa izaten da maparen inguruko oharretan.

Oharretara heldu aurretik, galderen elaboraziotik galderen interpretaziora dagoen bidearen erdialdean jarrita, gorputz-atalen gaineko gaietan jasotako izendapenen ibilbidea azertu da euskara ez den beste hizkuntza batzuetan (Baldinger 1964; Blank, Gévaudan eta Koch 2000; Brown 2005a; Brown 2005b). Horrenbestez, komenigarria izan liteke gorputz-atalen euskarazko izendapenen ibilbideari bi norabidetan erreparatzea: bate-tik, gorputz-atalen izendapen batzuek semantika-eremu bereko beste kontzeptu batzuk izendatzeko duten baliagarritasuna azalduta eta, bestetik, gorputz-atalen izendapen zenbaitek beste semantika-eremu batzuei erreferentzia egiten dien kontzeptuak izendatzeko duten baliagarritasuna aztertuta. Gorputz-atalak izendatzeko baliatutako forma askoren polise-mia-aukerak ugariak dira. Ugariak dira, berebat, herri-kulturarekin harreman estua izanik, metafora-metonymian oinarrituta sortutako izendapenak. Ugartasun horren lagin bat erakutsiko da artikuluko honetan, gorputz-atalen izendapenetatik hasi eta beste semantika-eremu batzuetara iritsita.

1. Hizkuntza-atlasgintza eta euskarazko hizkuntza-atlasgintza: aurrekari ez-egiazkoa

Euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen beharrezana sentitzen hasi zenetik asmoa gauzatzen hasi arte mende erditik gora igaro da eta ia mende bat pasatu da euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen beharrezana sentitzen hasi eta argitaratzen hasi zen arte. Beraz, horrek esan nahi du denborari, azken batean, urteei dagokienez, alde handia dagoela abiatu zen urteetatik argitaratzen hasi zen urteetara, sorreratik garapenera eta, azken batean, asmoetatik emaitzetara.

Euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen gogoaren jatorrira joanez gero, lehen hizkuntza-atlas oso moduan egin den *Atlas Linguistique de la France* (ALF, 1902-1910) argitaratu zen urteetatik ez dago gehiegi urrundu beharrik. Osoa, bukatua, ez den neurrian, ez da askotan benetako lehen hizkuntza-atlasa izateak beharko lukeen zilegitasunaz aipatu Georg Wenkerrek egindako hizkuntza-atlasa¹, baina 1881ean kokatu beharrekoa da, ALF baino hogeitertetik gora lehenago. Aipatutako hizkuntza-atlas horretan, J. Gilliéronen, fonetikaz haraindikoak ere bildu ziren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren mesedetan². Egia esan, hizkuntzaren askotariko alderdiak kontuan hartzen zituen hizkuntza-atlas hau garai hartan fonetika bakarrik kontuan hartzen zuten ikerketen nagusigoari erantzuteko ere sortu zen (Julià, 2007: 88).

Euskarari dagokionez, Euskaltzaindia bere ehun urtekoa betetzen ari den honetatik ehun urteko atzera-jauzia egin beharra dago, euskarazko hizkuntza-atlasaren beharrezana lehenengoz aipatu zuen Julio Urquijoren hitzetara joateko. 1921ean Menéndez Pidal izan zen euskarazko hizkuntza-atlas baten premia sumatu zuena. Urte berean, zehazki urriaren 27an, Resurrecion Maria Azkuek, artean euskaltzainburu zela, urrats bat gehiago egin zuen, ez

¹ Fonetika-gaira bideratutakoa da hizkuntza-atlas hau. Bere helburua alemana aztertzea izan zen, lege fonetikoaren erregularitasunaren berri ematea. Horretarako, maisu-maistrengandik jasotako gutunak baliatzea otu zitzaion. Ahaleginak ahalegin, ez zuen lortu alemanaren dialektoen mugak zehaztea.

² Lexikoa eta fonetika ziren hizkuntza-alderdi nabarmenenak.

horrenbeste euskarazko hizkuntza-atlasaren egiazko garapenerako; bai, ordea, euskarazko ahozko materialen balizko baliagarritasunerako: *Erizkizundi Irukoitza*. Gipuzkoako Foru Diputazioan izandako osoko bilkuran aurkeztu zuen, fonetikan, morfologian eta lexikografian oinarritutako galde-sorta hori, geroago, 1922an, Euskal Herrian barrena³ inkestagile aiposek⁴ gara zezaten prestatutakoa. Tartearen izan zen inkestagileak aukeratu eta galde-sorta garatzeko ere, baina bildutako material guztitik urria izan zen –laburpen batzuk salbu– Luis Villasantek, 1984an euskaltzainburu zenak, aitortu bezala, *Euskera* aldizkarian ezagun egin zena (Iker 3, 1984: 8).

Erizkizundi Irukoitza aipatu izan den askotan azaldu izan da euskarazko hizkuntza-atlasa eta euskarazko hizkuntza-atlasa aipatu izan den beste horrenbestetan azaldu izan da *Erizkizundi Irukoitza*. Zehatzago esateko, *Erizkizundi Irukoitza* euskarazko hizkuntza-atlasaren aurrekotzat hartu izan da edo, bestela esanda, euskarazko hizkuntza-atlasa hartu izan da *Erizkizundi Irukoitzaren* jarraikotzat. Helburuari erreparatu gero, bien arteko lotura hori ez litzateke horren erraz eta zuzen egin beharko, ordea: Mitxelenak eta Villasantek esan bezala, bata eta bestea lantzeko inkesta-metodologia gorabehera, helburuei erreparatu behar zaie, hain zuzen ere, hortxe dagoelako *Erizkizundi Irukoitza* euskarazko hizkuntza-atlasaren egiazko aurrekaria ez izatearen arrazoia. Lanaren erabilerari dagokionez gerta liteke *Erizkizundi Irukoitzaren* erabilera dialektologia-ikerketetara edo hizkuntza-atlasgintzari dagozkionetara bideratzea.

Ahozko jardunean oinarritutako inkestak dira bi ikerketen jatorrian daudenak, baina *Erizkizundi Irukoitza*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* ez bezala, ez zen euskarazko dialektoak ezagutzeko lagungarri izan edo, hobeto esanda, hori ez zen izan Azkueren jomuga behinena. Mitxelenak (1964: 471) arrazoibide bikoitz baten bitartez azaltzen du bere iritzia. Lehenengo arrazoia helburuarekin lotzen du: Akademiak euskararen ba-

³ 260 herritan egin ziren inkestak, nahiz eta 172 herritako koadernoak bakarrik gorde.

⁴ Policarpo de Iráizoz, Georges Lacombe, Gerhard Bähr, Nikolas Ormaetxea «Orixe» eta Odon Apraiz izan ziren nagusiak, nahiz eta horiek laguntzaile ere izan. 1923ko martxorako amaitua zegoen bilketa lana; izan ere, eskerrak ematen dizkio Eusebio Etxalarkoari, 100 pezetako esker onarekin batera.

tasunerako bidean hartu beharreko erabakietarako mesedegarri izan zedin egindako lana da, ahozko lekukotasun horietan oinarrituta, euskararen batasunerako baliabideak handitzekoa. Arlo teknikoan Azkueren lanean informazioa lortzeko prozedura dialektologia-inkesten antzekoa izanagatik ere, helburua ez da inondik ere dialektologia-inkestek izan ohi dutena. Villasante izan zen (Iker 3, 1984: 8) helburuen gaineko argibideak eman zituenetako bat: Azkuek datu zehatz eta fidagarrien corpus bat izan nahi zuen, euskara literarioaren edo euskararen batasunaren ordua heltzen zenerako, lagungarria gerta zedin, batez ere, erabakiak hartzeko orduan. Bigarren arrazoiak informazioa erakusteko moduarekin du harremana. Bildutako erantzunetako zenbait *Euskera* aldizkarian argitaratu ziren oso modu laburtuan. Beraz, hizkuntza-atlasgintzari zuzenean eragiterik ez zuen lortu eta aztertzekoa izango litzateke, halaber, ea euskararen batasuneranzko bidean azpimarratu beharreko lana den, materiala argitaratzeko moduari hertsiki lotutakoa baita material horrek izan ohi duen zabalkundea (Mitxelena 1964: 471).

Esan bezala, *Erizkizundi Irukoitza* euskarazko hizkuntza-atlasaren aurrekarizat hartu izan da, inkestagile batzuk, berriemaile batzuk eta euskararen ikerketan oinarritzen zen galde-sorta bat tartean zeudelako; ez besterik. Lehenengo eta behin, «Euskaltzainen urgazle ta lankideai» atalean inkestagile egokienaren profila diseinatzen du Azkuek (1921: 10).

12. Gure lankide eta urgazleak oar bezate, eritziak biltzeko arazo onek erraz egitekoa irudiarren, edozein eztela onetarako gai. Beren egikizun au ezpeziote beraz normairi ardurapetu. Bilakizun auek biribilatzen abil-arin bat as baledi, gerta liteke Mexicoar indio batzuk elizgizon zenbait emandako erantzun au norbaitek ematea.

–¿Cuántos años hace que no te has confesado?

–Padresito, tres... seis... dose, los que quiera su mersé.

Eskua ala eskue ala eskuu galdetzean, «lo que quiera su mersé» edo onelako zeren bat ezteztela erantzun.

Ez, beraz, urren ageri denari arazo au eman.

13. Lankiderik aski izan ezik, gure arteko norbaitzuk (Yaunak esango digu nola) iker ta aztertu bear izango dituzte gainerako zokomoko guztiak.

Berriemailearen profilari dagokionez, labur eta argi ematen ditu Azkuek zenbait ezaugarri:

1.^a Erizletzat, berdinean, yaiogutik (sorterritik) gutxitan irten dena obetsia izan bite. Irakurtzen eztakiena bada, obe.

Galde-sorta garatzerakoan berriemaileak emandakoa zalantzarria izan zitekeen kasuetan nola jokatu erakusten du Azkuek. Galde-sorta aurrera eramateko beharrezko diren jarraibideak ere azaltzen ditu, inkesta-metodologian ere geldialdia eginez: *Erizleak nola edo ala erderaz naiz frantsesez izketan badakite, noizbait egokiago izan ditek euskeraz galdeak ez egitea*. Inkestagi-leak berriemailearengan izan dezakeen eragina ere azpimarratzen du Azkuek: *Onegatik erizkizunpeko itza batzuri erderaz, besteai frantsesez galde ezaiozute. Euskeraz baizik ezpadakite, orduan galdeak zearka-mearka egin, zuen itzetan beren erantzumena sartu gabe* (Azkue 1921: 6-13).

EHHARI dagokionez, zazpi laguneko taldea ibili zen 145 herri edo auzotan barrena grabazioak egiten, Azkuek zioen moduan, zeharka-meharka galderak eginez. Galde-sorta aurrera eramateko, Azkuek inkestagile-lanak egin behar zituztenei agindu ez bezala, EHHAn galderak euskaraz egin behar ziren. Morfologiari buruzko galderetan eta joskerari buruzkoetan bakarrik erabili zen gatzelania eta frantsesa. Galdera horiei erantzunak eman zizkieten berriemaileak gutxi gorabehera hirurogeita bost urtetik gorako gizon-emakumeak izan ziren, galde-sorta garatzen den herrian jaio eta bizitakoak.

Esandakoak esanda ere, *Erizkizundi Irukoitzak* hizkuntza-atlas batekin aipatutako bat-etortzeak eta desberdintasun txikiak dituen arren, azaldu bezala, desberdintasun nagusia helburuan bertan hasten da: materialak ikusita, handiagoa da bakoitzaren helburuek bien artean eragindako desberdintasuna, metodologia antzekoak bien artean eragindako antzekotasuna baino.

Erizkizundi Irukoitzak erakusten du Azkuerentzat erdigunean ez zeudela euskalkiak, hizkuntza literarioa baino: hizkuntza estandar bat sortzea eta indartzea lehenesten zuen, euskararen biziraupena bermatu ahal izateko. Horri lotzen zaio Azkuek erdialdeko euskalkiaren alde egiten duen apustua, ez bere edertasunean oinarrituta, ezpada euskaldunen arteko elkar-uler-tzean eta euskaldun bihurtzeko gogoia zuen jendearen ikasketa-prozesua arintzean (Kintana 2015: 209).

2. Hizkuntza-atlasgintza: helburuak eta helburuak ez direnak

Ezinbestekoa da 80ko hamarkadara arte zain egotea euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen asmoaren egiazko garapenerako. Orduan hasi zen eremu dialektal handien interpretazioan lagungarri den materialaren garapena, kartografikoki irudikatutako kontzeptu baten bidez irakurlea hizkuntzaren osotasuna erakusteari erreparatzen diona (Sanchis Guarner 1953: 26).

Hizkuntza-atlasa hiztegi dialektal handia dela esan zuen S. Popek (1950: 17), baina hori baino gehiago da edo, bestela esanda, ez da hori bakarrik; izan ere, euskarazko hizkuntza-atlasean hainbat dira hiztegi batean agertutako ez lirakeen galderak (jokatzeko morfologiak 595 galdera ditu, joskerak 62 joskera-fonetikak 37) eta galderetatik harago ere desberdinak dira galderen berri emateko baliatzen diren bideak. Popek esandakoaren bidetik, adierazpen egonkorrak geografia-ordenaren arabera kokatzen eta antolatzen dituen da hizkuntza-atlasa. Berriz ere lexikoaren ikuspegiari bakarrik begiratuta, lexikoaren inbentario osatugabea dela esan daiteke, hitz-kopuru mugatua duena eta kontu handiz aukeratua. Aukeraketa horri esker jakin daiteke zein diren galdera batean jasotako erantzunen ezaugarri oinarrizkoak, geografia-banaketa eta bizitasuna.

Coseriuk (1977: 103) hizkuntza-geografia definitzeko duen modua ere oso lagungarria da, hizkuntza-atlasa zertan datzan ikusteko: metodo dialektal eta konparatiboa da, maparen gainean hizkuntza-forma ugari (fonikoak, lexikoak edo gramatikari dagozkionak) jartzen dituen, inkesta zuzen eta bakarraren bidez egiaztatutakoa eremu jakin bateko puntuen sare batean. Geografia-eremu batean formek duten banaketa kontuan hartzen du eta lurralde jakin baten hizkuntza-fenomeno nagusiak azaltzen dira.

Aitzitik, hizkuntza-atlasen helburu nagusien eta ezaugarrien artean ez da inondik ere ageri hizkuntza literarioaren gaineko aipamenik. Azken batean, hizkuntza-atlasen helburua hizkuntza-ezaugarri batek edo, lexikoari dagokionez, kontzeptu jakin batek aldeztetik hautatutako geografia-eremuan duen izendapen-aukeren eta izendapenen hedaduraren berri ematea da, besteak beste. Gaur egun euskarazko hizkuntza-atlasean

euskara literarioa mapan ageri den aldaeren aniztasunaren berri emateko baliabidea, bitartekoa, da. Hala eta guztiz ere, euskarazko hizkuntza-atlasaren helburuetan euskara literarioaren gaineko aipamenik ez izanagatik ere, euskara literarioaren edo batuaren aberastasuna handitzeko edo aberastasuna nabarmentzeko baliabideen artean izan beharko litzateke euskarazko hizkuntza-atlasa. Adierazi bezala, hori ez da hizkuntza-atlasaren helburua izan behar. Hala eta guztiz ere, euskara literarioaren edo batuaren aberastasuna, zehaztasuna eta erabilgarritasuna bermatu gura duten materialen helburuen artean –hala nagusiak, nola berariazkoak– izan beharko litzateke ahozko corpus erraldoi honetan bildutakoa nolabait baliatzea.

Bestalde, behin baino gehiagotan adierazi izan zaio EHHAREN lantaldeari, ez zuzenean, bai zeharka, komenigarria izango litzatekeela galderaren izena agertzen den gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko formaren ondoan euskara batuari dagokiona ere jartzea. Ez da samurra jakiten zehazki zertan oinarritzen den iradokizuna edo zein izan beharko litzatekeen izenburuan agertu beharreko euskara batuari dagokion aldaera; hots, bildutako aldaera guztien artetik zein izan litekeen lehentasunezkoetatik lehentasunezkoena. Azken batean, lehentasunaren arabera egin beharreko zerbait bada, ezinbestean jakin behar da zein izango den aldaera jakin bat lehenes- teko arrazoia, nahitaez ezer nabarmentzen hasi orduko.



Azkar, bizkor, segitian, arin, laster, presaka, segidan... Zeinen alde jokatu, beraz? Galderaren izenburua dagoen-dagoenean uztea da onena, hizkuntza-atlasaren helburuen artean ez baitago hizkuntza literarioan erabili ohi

den aldaera zein den adieraztea; are gutxiago, bat lehenestea. Horretarako diseinatu zena *Erizkizundi Irukoitza* izan zen, diseinutik helburua betetzera tarte handi samarra izanagatik ere. *EHH*Aren diseinu-fasetik gaur egunera artekoan ez da sekula euskara batuaren gaineko ezer helburuen artean jarri. Bestalde, *EHH*Aren kasuan, zergatik superlemetako bat nabarmendu eta galderaren izenburura eramane euskara batuaren ustezko mesedetan, baldin eta zuzenean euskara batura bideratutako lana ez baldin bada? *EHH*Aren galdera honetan agertzen diren superlema ia guztiek, dauden-daudenean, badute tokia *Euskaltzaindiaren Hiztegian*:

azkar²

4 adb. Laster, arin. *Tximista bezain azkar joan. Azkar etor zaitez. Azkar-azkar jaitsi zen asto gainetik.*

arin

5 adb. Laster. *Arin ibili. Ezpainak arin higituz. Goizean, jaikitzen zaren bezain arin. Arinegi ahaztu. Baserrira arin-arin doa nagusia.*

agudo

1 adb. *Heg. Laster, arin. Goazen etxera, eta agudo. Agudo atera nuen gorderik neukana. Agudo zabaldu ziren munduan haien ideiak. Ahitu egin omen da agertu bezain agudo liburutxo bikain hau.*

bizkor

2 adj. Arina, lasterra. *Zaldia bezain bizkorra.*

zalu

1 adj. *Ipar. Arina, lasterra. Ik. zoli 3. Haizea bezain zalua badarama lasterra. Orduan zalu ginen, orain mantso gabiltza. Begiak argi, zangoak zalu. Mihia luze eta zalu, ezin egon mintzatu gabe. Brinko zalu batez. Orkatz zalua.*

laster

7 adb. Lastertasunez. Ik. **lasterka**. *Laster dabilen zaldia. Laster esaten da hori. Etorri bezain laster joaten dena. Laster, laster! Lasterrago baitabil beti gogoia begia baino. Lasterregi haserretu naiz. Ahalik lasterrena handik alde egiteko. Hainbat lasterren ikus ditzagun.*

presaka

adb. Presaz. *Presaka egin behar izan zuen, eskatu zitzaiona. Irakurle zuhurrak gogoan eduki beza, presaka eta muturka, itobeharrez jaiok dirrela hemen agertzen diren zenbait izkribu. || Presakaegi irakurri. Nahi genuen baino presakago hasi da ibiltzen jendea.*

segidan

3 adb. Berehala. Ik. **segitan**. *Bai, eta segidan nahi baduzu.*

bertan

3 adb. Berehala, bertatik. *Uztaroa bertan baita. Ikusi eta bertan hil zen.*


Aurrekoa adibide bat baino ez da, behin galderaren elaborazioa amaituta ikus daitekeenarena. Aipatutako superlemetatik gehientsuenak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* azaltzeak are zailago egiten du eskakizuna betetzea; alegia, euskara batuan kontzeptu hori izendatzeko erabiltzen den formatatik bat lehenestea, gaztelaniaren, frantsesaren eta ingelesaren formen alboan ager dadin. *EHHA* euskara literarioaren aberastasuna nabarmentzeko edo, posible den kasuetan, aberastasuna handitzeko baliabide izan daitekeela esateak ikusteko gutxi du *EHHA*ren kontzeptuaren izenburuan forma bat lehenestearekin. Hori egingo balitz, formatako bat lehenesteaz gain, gaine-rakoak bigarren mailakotzat hartzeko joera izango litzateke; azken batean, baztertzekoa.

Bestalde, mapak izan ohi dira hizkuntza-atlasaren lehenengo eta azkeneko emaitza; izan ere, lehenengotzat har daitezke, informazioa nagusiki mapa baten bidez helaraztea delako *EHHA*ren xedea; azkenekotzat har daiteke, era berean, mapak egitera heldu aurretik informazioaren elaborazioa egin behar baita.

Hizkuntza-atlasetan bildutako informazioa mapan islatzeko moduak galdera batetik bestera ugari izan daitezke, baina mapak egiteko moduetan aldea ez da horrenbestekoa. Horrekin ez zaio erreferentzia egin nahi lematizatzeako atlas bakoitzak izan dezakeen baliabideari, ezpada lematizatzeako prozedurari berari. Galdera batean jasotako erantzun guztien zerrenda ortografikoki idatzirik ageri da *EHHA*ren lematizazioaren lehen urratsean eta, hizkuntza-irizpideetan bakarrik oinarrituta, erantzun guztiak multzokatu

beharra dago, lematizazioa bere azken urratsera hel dadin; hau da, maparen legenda osatzeko erantzun guztiak barneratzen dituzten legendako osagaiak, superlemak, sor daitezten.


EHHAk dituen 2.857 galderak (lexikoak 2.163 galdera, morfologiak 595, joskerak 62 eta joskera-fonetikak 37) salbuespenak salbuespen, Euskal Herrian barrena aukeratutako 145 herrietan (Bizkaian 36, Gipuzkoan 36, Araban 1, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18, Zuberoan 11 eta muga horretatik kanpokoa, baina gertukoa den Eskiula) egin dira. Hala ere, badirenez zenbait tokitan tradiziozkoak ez diren alor batzuei buruzko galderak, horiek dira, hain zuzen ere, herri guztietan, hau da, 145 herrietan, galdetu ez direnak. Itsasoari eta bertako bizidunei eta, hobeto esanda, bizi-moduari, dagozkion galderetako zenbait dira herri guztietan galdetu ez direnetakoak.



Galdera horretan ikusten den legez, itsasoaren mugan dauden herrietan baino ez da galdetu itsas animalia horren izena. Aitzitik, beste gai batzuen kasuan, sagardogintzan, adibidez, nahiz eta toki batzuetan bakarrik egiten den, gutxi dira galderarik jaso ez duten herriak, baina ez dira asko erantzuna erakusteko moduan direnak. Semantika-eremu batek eskualde jakin batean izan dezakeen pisuaren edo eraginaren arabera izan ohi da gai horretako galderak erantzuteko aukera. I. Caminok esandakoaren bidetik (2009: 281), ALPIn ere ez da galde-sorta osoa alde aurretik zedarritutako eremu osoan aplikatu. Herri bakoitzaren geografia-baldintzak eta orografia-baldintzak oso kontuan hartu behar dira, horren arabera erabaki baitai-

teke zer galdetu eta zer non galdetu, eta zer ez galdetu eta zer non ez galde-
tu. Galdetzen denean beti izaten da erantzunik ez jasotzeko arriskua, baina
galdetzen ez denean hartzen da arriskurik handiena, ez-jakintzat hartzen
baita beharbada jakin daitekeena. Dena dela, aurreko eta osteko adibideko
emaitzak ikusita, ulergarria izan beharko litzateke galde-sorta guztia 145
herrietan aplikatu ez izana.

Bigarren adibidean ikus daitekeenez, jokabide desberdina da beste gai eta
galdera batzuetan; izan ere, galdera gehienak *EHH*Arako aukeratutako 145
herrietan garatu dira. Nahiz eta sagardogintza ez landu *EHH*An azaltzen
diren herri guztietan, 48. gaiko ('la sidra / le cidre') 48040 'torno de machacar /
tour à piler' galdera *EHH*An hautatu diren herri ia guztietan egin da.



Herri edo eskualde jakin batek izan ditzakeen geografia-baldintzak, oro-
grafia-baldintzak eta ohitura apartekoak gorabehera, asko dira galderarik
galdera itaundutako kontzeptuari izendapena emateko moduan izan diren
berriemaileak. Asko dira, era berean, kontzeptu bakoitzari erantzun bat bai-
no gehiago emateko moduan izan direnak; beraz, ez da gutxitan gertatu izan
galdera bakoitzeko berrehun erantzun inguru biltzea. Berrehun erantzun
edo, hobeto esanda, berrehun prelema horiek dira euskarazko hizkuntza-
atlasaren elaboraziorako hautagai direnak.

Ezer baino lehen informazioa antolatu, multzokatu eta elaboratu egin
behar da, maparen legendaren oinarri izango diren superlemak sortu ahal
izateko. *EHHA* lantzeko eta garatzeko sortutako informatika-programaren
baldintza da gehienez 16 superlema izatea, esan bezala, legendan ager dai-
tezkeen 16 multzo sortzea. Era berean, gerta daiteke eta inoiz gertatzen da

aipatutako mapa horretan atalen bat behar den beste ez garatzea, gehienezko 16 superlemen zurruntasun horren eraginez, lematizazioa egiterakoan erabaki behar izan delako, esaterako, morfema bat izatearen edo ez izatearen arabera multzokatu informazioa ala hots bat izatearen edo ez izatearen arabera egingo den, bestela. Kasu horietarako, *EHH*Aren lan-tresnak bigarren mapa bat egiteko aukera ematen du, argitalpenean tamainaz askoz txikiagoa dena, baina hori egin ahal izateko, mapa nagusia egiteko baino askoz abstrakzio handiagoa eskatzen duena: 6 superlema izan daitezke gehienez; hots, seitan bana daiteke asko jota mapa txiki horren legenda.

Nola mapa handian, hala txikian, lematizazioan bildutako erantzun guztien zerrenda agertzen denean ez da jakiten zein den galdera zuzenen bidez jasotakoa edo zeharkako galderen bidez, zehatzago esateko, hitz baten proposamenen bidez, bildutakoa. Halaber, lematizazio-prozesuan galdera elaboratzen duenak ezin du jakin, garai batean ez bezala, erantzun bat, izan berriemaileak bere kabuz emandakoa, izan hitz baten proposamenaren ondoren jasotakoa, lehenengo erantzuna, bigarrena, hirugarrena ala hortik gorakoa den.

Horrenbestez, galderan jasotako 200 preleमतatik⁵ lemetarako jauzia egin beharra dago lehendabizi eta lemetatik superleमतarako, ondoren. Bigarren jauzi horretan erabaki behar da zein hizkuntza-irizpideren arabera edo zein hizkuntza-alderdiren arabera garatu behar den galdera horren lematizazioa. Etimologia izan daiteke, esate baterako, lematizaziorako irizpidea. Morfema bat azaltzea edo ez azaltzea izan daiteke, esaterako, bigarren irizpidea eta morfema esaten denean, hotsa ere esan daiteke eta, hotsa esaten denean, fonologia-araua esateko modua ere badago.

Bildutako prelema guztiakin ikertzaileak egiten duen lanketaren araberrakoa da lematizazioa eta mapa. Beraz, erantzunen tipologizazioaren oinarrian arrazoi subjektiboak daudela esan daiteke, nahiz eta guztiaren oina-

⁵ Preleमतan azaltzen direnak dira galdera jakin batean ahoskatu eta onartutako erantzun guztiak. Horiek lema bihurtzeko, nolabaiteko orrazketa bat egin behar izaten da. Azkenik, bildutako lemekin, kopuruz prelema eta superlema artekoak direnekin, superlema egituratzen eta egiten dira, esan bezala, ikertzaileak nabarmendutako hizkuntza-ezaugarriren baten arabera. Azken horiek, superlema, dira galderaren legendan agertu ohi direnak.

rrian sailkapen bat egon. Horregatik erabili izan da *elaborazio* hitza, *interpretazio* hitzaren kaltetan. Interpretazioa izango litzateke hitz, morfema edo hizkuntza-ezaugarri jakin baten izatearen arrazoia galdetzeko bidea. EHHAn ez da herri jakin batean hitz baten agerreraren arrazoiak galdetzen; hizkuntza-gertaera baino ez da jasotzen (Aurrekoetxea: 2004, 9-10). Hala eta guztiz ere, zilegitasun ia erabatekoa ematen zaio berriemailearen eskutik bildutako informazioari, ez informazioa bilduta hitz bat agertu izanaren arrazoia jakiteko, ezpada hitz jakin baten agerrera guztiz arrazoizkoa dela ikusteko.

Hizkuntza-gertaera hori jasotzen denean eta jasotakoa maparatzeko helburuarekin nolabait multzokatu behar denean, edozein hizkuntza-ezaugarri tartean izanik esan daiteke, arestikora bueltatuta, euskara literariotik hurbilago dagoen lema izatea ez dela inongo irizpidea superlema baten forma erabakitzerakoan. Superlema bihurtzeko dauden lemei dagokienez, erabakigarriagoa da lema horren maiztasuna, lema horrek forma literarioarekin duen distantzia gorabehera.

Informazioa lematizatzerako orduan izaten da, baina, berriemaileak emandako informazioaren zilegitasuna berresteko aukera: herri-jakintzatik etorritako informazioaren antolaketa nahitaezkoa da, lematizazio-prozesua burutzeko erantzun jakin bat agertu izanaren zergatiaz hausnartu gabe, baina erantzun jakin hori agertu izanari zilegitasuna emanda. Izan ere, herri-kulturarekin izan dezakeen lotura izan daiteke kasu askotan erantzun jakin hori agertu izanaren arrazoia.

3. Hizkuntza-atlasaren eta herri-kulturaren arteko harremana

Hertsiki lotutakoak dira dialektologia eta herri-kultura; beraz, hizkuntza-atlasak eta herri-kultura ezin urruti ibili. Hizkuntza-atlasek herri-kulturarekin duten harremanaren puntu sendoena galde-sorta bera da, hizkuntza-atlasaren oinarrian dagoena, hortaz. Zer galdetu erabakitzerakoan, hizkuntza, kasu honetan, euskara, bere kultura-eremuan murgiltzea komeni da, horrela eginda bakarrik lor baitaiteke, esaterako, erreka arrainen

izendapena eta informazioa eskuratzea, gurdiarena, goldearena, gobadarena, artilearena, lihoarena edo, zer esanik ez, euskaraz hitz egiten zenean garai batean jarri ohi ziren zigorrena, zenbait aipatzearren. Nahitaezkoa da horretarako inkestagileak galdetzen duena izendatzeko izan daitezkeen moduez gain –ez guztiak, halaberharrez–, balizko izendapen horri lotutako objektuaren erabilera, ohituraren funtsa edo sentimenduaren ñabardura ere ezagutzea. Orduan jarri beharko lirateke elkarlanean etnografoa eta dialektologoa (García Mouton, 1987b: 66). Besteak beste, epeen edo denbora igarotzearen aitzakian, elkarlana ez da beti behar bezain egingarria eta indartsua izaten, eta arlo horietan adituak diren lagunak biltzea sarritan nekeza izan daiteke. Arlo bietan adituak izateko asmoz –hori izango litzateke aproposena–, adar bietako aditu bana batzea baino samurragoa izan daiteke etnografotik ere izan dezakeen dialektologoa bilatzea edo, haatik, dialektologotik ere izan dezakeen etnografoa.

Galde-sortari erreparatuta, hizkuntza-atlasetan erabiltzen dena galde-sorta itxia da. Itxia izateak ez du esan nahi berriemaileak ez duenik galdetzen zaion izendapenetik kanpo ezer gehitzeko aukerarik; ezta antzik ere. I. Caminok (2009: 275) *datu-bilduma hertsia* aipatzen du, *datu-bilduma libre*arekin batera edo aurrez aurre. Galderak egin aurretik, galde-sorta goitik behera finkatuta izan behar da, itxiaren aldeko metodologia erabiltzeko asmoa dagoenean. Libre denean, aldiz, asmoak asmo, ez dago zertan ibili galde-sorta finko baten atzetik, elkarrizketa libreari eskerrak jasotzen baita interesgarria izan daitezkeen informazioa modurik naturalenean eta testuingururik ohikoenean.

EHHA nonbait kokatu behar izatekotan, itxien artean kokatu beharko litzateke. Itxiari eskerrak lortu da galde-sortan galdetutakoa zehatz biltzea, baina libre jokatzeari eskerrak lortutakoa ere bada itxiari esker bildutakoa testuinguru aproposalan kokatzea eta horren gaineko informazio erantsia izatea. 2.857 galdera egiteko, aurretiaz galde-sorta zehaztuta eraman ezik, amaitu ezinezko zeregina izango litzateke, izan dena baino amaiezinagoa, hartan ere.

Hizkuntza-atlasen galde-sorta itxi horri esker jasotako erantzunez gain, hainbat eta hainbat ohar jasotzen dira galde-sorta itxiaren barnean izan

daitezkeen aukera edo pasarte libreetan. Orduan biltzen dira begitxindorra sortu izanaren inguruko sineskerak eta osatzeko moduei buruzko oharrak, bataiatu gabeko haur bat hiltzerakoan lurperatzeari buruzkoak edo, lagin txiki bat aipatzearren, oiloek arrautzak erruteko moduaren eta egunaren momentuaren gaineko azalpenak. Azalpenok, oro har, berbaz, kontu-kontari, emandakoak dira, baina badira kantuz emandakoak edo kantuz hornitutakoak ere.

Hizkuntza-atlasak eta horien galde-sortak aipatzen direnean, monografiari aipamena gertukoa izaten da sarritan, bien arteko antzekotasuna ez eze, bien arteko desberdintasunak aipatzeko. Monografietan hizkuntza-atlasetan baino sakonago eta libreago jokatzeko aukera dago. Hizkuntza-atlasetan bizkor eta azal samarretik ibili behar da, nahiz eta hori ez den nahasi behar inkestagileak inkesta aurretiko lana edo galde-sortaren garapena bera azaletik egitearekin. *EHHA*n oso handia da, berbarako, bai hasierako galdere-tan, bai inkesta aurrera joan ahala egindakoetan, herri bakoitzean inkestagileak berriemaileari zer proposatu jakiteko egindako lana⁶.

Galde-sortaren edukiari dagokionez, behin baino gehiagotan aipatzen da lexikoaren alderanzko desoreka. Hizkuntza-alderdi guztiek nekez izan dezakete toki bera hizkuntza-atlasetan. Hortaz, nahiz eta lexikoa izan garaian garaiko bizimoduaren berri emateko baliabide aproposenetakoa, aipatu izan da (Camino, 2009: 280) dialektologia makurtuegi egon izan dela etnografiaren aurrean.

*EHHA*ren kasuan ere gehiena lexikoari dagokiona izanagatik ere, dena ez dagokio horri. Hala ere, lexikoari dagokion galde-sortaren parte semantikoki, ez ortografikoki, antolatua da. Arlo semantikoaren arabera egindako bereizketa hau ohikoa da hizkuntza-atlasetan eta ohikoak dira, ondorioz, *EHHA*ren galderaren alboan beste hizkuntza-atlas batzuei egiten zaizkien erreferentziak, semantikoki oinarritutako harremanak dituztenak, honenbestez. 37010 ‘yugo / joug / yoke’ galderan *ALEANR* I, 118 galderari egiten zaio erreferentzia eta 08250 ‘arco iris / arc-en-ciel / rainbow’ galderan *ALG*:

⁶ Inkestak aurrera egin ahala, askoz gehiago dira hitz proposatuak; izan ere, berriemaileek emandako erantzunetatik prestatutakoak dira proposamenak.

822; *ALEANR*: X, 1336; *ALE I*, 6-9 galderari. Horrenbestez, galdera batzuk beste hizkuntza-atlas batzuetakoetan oinarritzeak ere arrazoi semantikoak ditu.

Hizkuntza-atlas guztiak, lexikoaren ikuspuntutik bada ere, ez dira semantikoki ordenatuak. *ALF* lehenengo hizkuntza-atlasetakoa izatea eta *Wörter und Sachen* mugimenduaren ostekoa ez izatea nahiko arrazoi izan daiteke hitzak bestelako ordena baten arabera antolatzeke; alegia, ordena alfabetikoaren alde jokatzeko hitzak erakusterakoan⁷. *Atlas Lingüístic de Catalunya* (*ALC*) ere *ALF*en bidetik joan zen eta, nahiz eta 1923an argitaratu, ez zioten gehiegi begiratu herri-kulturari. García Moutonek esan bezala, A. Grierak hizkuntza-atlasa ez zen beste lan batzuetan ondo ederto aplikatua zuen metodologia berria, baina, ez zuen erabili, ordea, Kataluniako hizkuntza-atlaserako.

Wörter und Sachen mugimenduaren aurretik hasi zen hizkuntzaren eta kultura tradizionalaren arteko lotura. Dialektoen ikerketa eta etimologia lotu zituen Turgotek *Enciclopedia* XVIII. mendearen erdialdean eta Frantziako Iraultzan dialektoak deuseztatzeko ahalegina egin zen. Era horretako ahaleginek erantzuna ere bizkor izan ohi dutenez, Napoleonen eskutik heldu zen korrante nazionalista, arrazista eta populista, herria hartzen zuena kultura tradizionalaren gordailutzat. Kontzientzia diferentziala egonkortzeko oinarri-oinarrizkoak geratu ziren herri-kulturaren balorazioa eta nazionalismoaren goieneko unea (García Mouton, 1987b: 54).

Dialektoak serio hartzen hasi ziren garai horretan, dialektoak ikertu nahi zituenak nahitaezkoa zuen dialektoen bidez izendatutako objektuetara jotzea; alegia, izendatu nahi zena ezagutzea. Objektuaren eta izendapenaren arteko zubia eraikitzeke sortu zen 1909 inguruan *Wörter und Sachen* aldizkaria R. Meringer eta W. Meyerren eskutik, besteak beste. Aldarrikapen-testuan adierazi zuten, serioago heldu behar zitzaion hitzen eta gauzen arteko loturari edo harremanari. Mugimendutik oso urruti izan ez zen beste bat H. Schuchardt izan zen, baina berak lehenago besteek formulatu-

⁷ *Atlas linguistique et ethnographique de l'Italie et de la Suisse méridional* (*AIS*) izan zen hitzak eta objektuak lotzen zituen mugimenduari eskerrak semantikoki antolatutako lehen hizkuntza-atlasa.

takoaz hausnartu eta mugimenduaren izenaren hitzen hurrenkera aldatu duen: *Sachen und Wörter*. Bere iritziz, lehenengo objektuak daude, eta ondoren etor daitezke eta etorri ohi dira objektu horiek izendatzeko moduak. Dependentsia hitzak dauka objektuarekiko eta ez alderantziz.

Bestalde, hitzen jatorri diren objektuen artean bereizketa egin beharra dago: zehatzak, alde batetik; abstraktuak, bestetik. Kopuruari dagokionez, *EHHA*ren galde-sortan askoz gehiago dira zehatzen artekoak abstraktuen artekoak baino; hots, zatia gehiago dira objektuei lotutakoak ideiei edo sentimenduei lotutakoak baino. Abstraktuen artean 69. gaia (X. liburukia) da nabarmentzekoa, kualitateak eta bizioak azaltzen dituen (*Euskera* XXXVIII: 575): 69010 ‘costumbre / habitude’, 69020 ‘amor / amour’, 69030 ‘valentía / courage’, 69040 ‘esperanza / espérance’, 69050 ‘compasión / pitié’, 69060 ‘deseo / envie’ eta 69070 ‘envidia / jalousie’, zenbait aipatzearren. Gai horretakoak dira, era berean, pertsonaren izaeraren gaineko beste galdera batzuk ere: 69080 ‘holgazán / fainéant’, 69090 ‘desgraciado / malheureux’, 69100 ‘fuerte / fort’, 69110 ‘recto / droit’ eta, besteak beste, 69120 ‘carácter / caractère’. 69. gaia abstraktua da bere osotasunean, baina badira beste gai batzuk zehatzagoak, nolabait esateko objektuei lotuagoak, izan arren, galdera abstraktuak tartekatzen dituztenak. 66. gaian (‘la niñez / l’enfance’) 66150 ‘tímido / timide’ galdera dago; baita 66020 ‘bautismo / baptême’ galdera ere.

Lexikoari bakarrik erreparatuta, bi multzotan sartzekoak dira *EHHA*n, beste hizkuntza-atlas gehientsuenetan bezalaxe, lexikoari dagozkion 2.163 galderak ere: lehenengoa da landa-eremuetako lexiko tradizionalarekin harremanetan dagoena eta bigarrena, aldiz, oinarritzko lexiko-gaiei lotutakoa (Julià 2007: 93-95). Lehenengo hizkuntza-atlasak egiten hasi zirenean, bazegoen tokian tokiko ahozko hizkuntzan bakarrik biltzen ziren eta galtzeko zorian zeuden formak jasotzeko ahalegin apartekoa egiteko gogoia eta, eremu horretan zerbaitek tokia izatekotan, landaguneetako lexiko tradizionalak izan behar zuen. Oinarritzko lexikoari buruzko galderak aipatzen direnean, *EHHA*ren galde-sorta ikusita, adibidez, erraz igar daiteke zuzen-zuzenean zeri egiten zaion erreferentzia. Hizkuntza batetik bestera joanda ere badira eremu semantiko batzuk errepikatuko direnak, hots, komunak direnak edo, hobeto esanda, hizkuntza guztietan azalduko direnak.

Landa-eremuetako tradiziozko lexikoan sartuko lirateke, zenbait aipatzearen, *EHHA*ren galde-sortatik hartutako gai hauek: 33. gaia, teilatuari eta oholari buruzkoa; 34. gaia, etxearen parteei lotutakoa; 36. gaia, ezkaratzeko tresneriaren gainekoa; 37. gaia, gurdia aipatzen duena eta 48. gaia, sagardoari dagokiona. Oinarrizko lexiko-gaien artean sartuko lirateke, beste zenbaiten artean: 8. gaia, eguraldiari buruzko galderak biltzen dituena, 10. gaia, denboraren zatiketaz ari dena, 11. gaia, egunari buruzkoa, 58. gaia, giza gorputza ardatz duena eta 73. gaia, heriotzaren gainekoa.

Hizkuntza-atlasetan garai bateko objektuen izendapenak jasotzeko egindako ahalegina oso handia da. Handia da, halaber, izendatutako objektuari buruzko ezagutza izateko egindakoa. Ia bost mila ordu grabatu dituen *EHHA* bakarrik gaur egun garatzen ari den hizkuntza-atlaserako baliatzea zuribide handirik gabeko ahalegina izango litzateke. Hizkuntza-atlasak, are gehiago galde-sorta hizkuntza-alderdi desberdinetara bideratuta dutenak, iturri agorrezina izan beharko lirateke hizkuntzaren garai bateko lekukotasunen berri izateko, edozein izanik une jakin batean interesgarri gerta daitekeen hizkuntza-alderdia eta ez hizkuntzarena bakarrik. Azterketa lexiko-semantikoa egitea, esaterako, hizkuntza-atlasen bidea onomasiologikoa den neurrian, izendapenaren eta edukiaren arteko harremana zehazteko aukeretako bat izan daiteke. Garatek (1933) ahalegina egin zuen euskarazko familia-harremanen izendapenaren etimologiaren gaineko zertzeladak azaltzeko. Bährrek (1935) batez ere familia-izenak aipatu zituen. Corominasek (1970) lau formaren etimologia-azalpena eman zuen: *alargun*, *ahizpa*, *agure* eta *guraso*.

Familia-harremanen izendapenari dagokionez, behin baino gehiagotan egin izan da euskararen eremutik kanpo ere (lehenengoetakoak: Brown 1976; Andersen 1978; Brown eta Witkowski 1981) horren gaineko azterketa. Hortaz, aproposa izan daiteke gai horri buruzko galderak ikuspuntu semasiologikotik aztertzea. Horrela ikusi ahal izango da gorputz-atalen izendapenak semantika-eremu berean nola erabiltzen diren eta gorputz-atalen izendapenek beste semantika-eremu batzuei nola eragiten dieten. Lehenengo eta behin, hizkuntza-atlasen ohiko bidetik, onomasiologikotik, 'El cuerpo humano: la cabeza / le corps humain: la tête' (58. gaia) eta 'El tronco, las extremidades / le tronc et les membres' (59. gaia) alorretan bildutako eran-

tzunak aztertuko dira, gero, bide semasiologikotik, gai horietan bildutako izendapenen kontzeptualizazioaren ondoriozko errealitate askotarikoak aztertzeke.

58010 ‘cabeza / tête’, 58160 ‘ojo / oeil’ eta 59480 ‘brazo / bras’ galderak EHHAn monolexematikoen artekoak dira; haatik, horiek dira gorputz-atalen eremutik atera eta giza gorputzaren galderen artetik emankorrenak, beste eremu semantiko batzuetako galderen izendapen nahikotan agertzen baitira. Honenbestez, bide onomasiologikoan oinarrituta, aniztasuna beste galdera batzuetan bezain handia ez den neurrian, interes txikiagokotzat hartzen dira galdera horiek. Halaber, hizkuntza-atlasetan askotariko izendapenak edo izendapen ugariak dituzten kontzeptuak gorputzaren barruko aldekoak izan ohi dira (hala nola: hezurak, organoak edo muskuluak), beste gorputz-atal handiago baten parte direnak, bestela. Horien artekoak dira, esate baterako, EHHAn atzamarrak izendatzeko jaso diren forma guztiak.

Era berean, antzeko adibidea da 58170 ‘niña del ojo / prunelle’ galderan azaltzen dena. Galdera horretan badira metafora-metonymian oinarritzen diren izendapenak. Begiaren atal hori izendatzeko, nolabaiteko konparazioa egiten da: beste eremu kontzeptual bateko errealitatea parez pare jartzen da edo begiaren partean arteko metonymia-transferentzia bat egiten da, osterantzean. *Begiko sántu*, *sántu*, *begibóla*, *kanika*, *begísantu*, *kristel*, *áingeru*, *begiko amabirjinie*, *begiko mariposie*, *níni* eta *beginíni* dira erantzunetako zenbait. Era berean, badira begiaren atal horren deskribapenean oinarritzen diren beste izendapen batzuk ere: *begiko bélltx*, *begibárru*.

Bide semasiologikoan murgilduta, begiaren atal txiki horrekin gertatzen den ez bezala, erantzun desberdinen kopuru handia ez dutenak dira (eskua, burua, besoa...), hain zuzen ere, ibilbide luzeena izaten dutenak; beste kontzeptu batzuen iturri izaten direnak (Julià, 2011: 54).

Ibilbide laburrena izan duten gorputz-atalen gaineko galderetan giza gorputzaren eremuan geratu dira emandako erantzunak. Beraz, eremu semantikoa errepikatu egiten da, nahiz eta eremu semantiko horretan galdera desberdina izan. Esate baterako, 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan dauden superlema nagusiak *bekain*, *betule*, *betile*, *betazal*, *betarrots*, *begiezpal*, *bekosko* eta *zeja* dira. Galdera horretatik harago, beste galderaren batean agertu di-

renetakoak dira jasotako superlemetako zenbait: *betule* eta *betile* 58190 ‘pestaña / cil’ galderan ere ageri dira. *Betazal* 58190 ‘pestaña / cil’ eta 58200 ‘párpados / paupière’ galderetan azaltzen da. *Betarrots* 58020 ‘cara / visage’ galderan ere ageri da. *Begiezpal* 58200 ‘párpado / paupière’ galderan ere jaso da eta *bekozko* 58110 ‘frente / front’ galderan ere badago.

Ikus daiteke, honenbestez, semantika-eremu bereko kontzeptu desberdinak izendatzeko erabiltzen diren hitzak direla 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan bildutakoak. Antzekoa gertatzen da 58190 ‘pestaña / cil’ eta 58200 ‘párpados / paupière’ galderetan. Lehenengoaren superlema nagusiak *pestaña*, *betill(e)*, *betule*, *begiko ile*, *begiko bilo*, *betazaleko bilo*, *betazal*, *betezpal* eta *begiko kalpar* dira. *Pestaña* 37080 ‘mosquero (red) / émouchette’ galderan ere jaso izanagatik, *betill(e)* eta *betule* 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ere jaso dira. *Betezpal* ‘párpado / paupière’ galderan ere bildu da. Bigarren galderaren, 58200 ‘párpados / paupière’ galderaren, superlema nagusiak honako hauek dira: *begiko azal*, *betazal*, *begiezpal*, *betezpal*, *be(g)itxapel*, *begikapela*, *begitapa*, *parpado*, *begigan(e)*, *begigain*, *begitela*, *pestañasal*, *begistalki* eta *begiko ttapal*. *Betazal* 58180 ‘ceja / sourcil’ eta 58190 ‘pestaña / cil’ galderan ere ageri da. *Begiezpal* eta *begigain* 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ere jaso dira.

Sailkapen lexiko-semantikoa hiru multzotan banatuta:

- a) Lehenengoan 58180 ‘ceja / sourcil’ galdera izan, 58190 ‘pestaña / cil’ izan edo 58200 ‘párpados / paupière’ galderan izan, gaztelaniatik maileguak azaltzen dira. 58180an *zeja* agertzen da; 58190an, *pestaña* eta 58200an *parpado*.
- b) Bigarren multzoan metafora-metonimiak dira tokia dutenak. Beti ez da erraza metafora-metoniaren artean bereizketa egitea; izan ere, askotan elkarren artean lotura estua duten eta aldi berean gertatzen diren prozesuen *continuum*tzat hartzen dira; ez dira kontzeptu zurrun eta isolatu bi, hortaz (Kövecses and Radden, 1998; Heine et al. 1991; Goossens, 2002; Peirsman and Geeraerts, 2006). Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, polisemia- eta semantika-aldaketak soluzio aipostzat hartzen dira, eta testuingurutik eta pragmatika-indartzetik abiatuta ondorioztatu behar da zer den adierazi nahi dena. 58180an *begiezpal* eta *betintza* azaltzen dira; 58190an *betezpal*, *be(g)itxapel*, *begi-*

kapela, begitapa, begitela, begiestalki, begiko ttapal, betoskol eta *begigane-ko kapa*; 58200 galderan *begiezpál, betezpál* eta *betisats* agertzen dira. Metafora-metonimian oinarritzen diren erantzunak ez dira kopuruari dagokionez oso emankorrak, ez galderan bertan, ez beste kontzeptu batzuen berri ematerakoan. Aipatutako metaforetako zenbait beste hizkuntza batzuetan ere errepikatzen dira. Gaztelaniaz: *cobertera del ojo, tapas del ojo* eta *tela del ojo*. Katalanez: *tapes de l'ull*. Galegoz: *capel, capela* eta *tapa do ollo*.

- c) Hirugarren multzoan sartuko lirateke izendapen deskribatzaileak: 58180an, *begigain, bekain, betul, betule, betulle, batulla, betill(e), betazal, begigaineko biloak* eta *begigaineko iliek*; 58190an *betill(e), betule, betula, begiñle, begiko ile, begi(ko)bilo, betazale(ta)ko ile, betazaleko bilo, betazal, begiezpaleko bil(h)o* eta *begiko kalpar*. 58200an, *begi(ko)azal, betazal, begigan(e), begigain, pestañal* eta *betillak*. Izendapen deskribatzaileak erabiltzen dira (Julià 2011: 56-57), besteak beste, gainerako hizkuntzetan ere: gaztelaniaz, *piel de ojo, pellejo del ojo*; katalanez, *pell de l'ull*; galegoz, *papo do ollo* eta *piel do ollo*.

Galderetako zenbaitetan, ez gorputz-atalari dagozkionetan bakarrik, erreferentziatzat hartzen den objektua, gorputz atalaren zein gertaeraren izendapena lortzeko, kasu batzuetan atzamarrarekin edo eskuekin seinالاتu izan da. Horixe da bai izendapen metaforiko-metonomikoa duten galderetan, bai izendapen deskribatzailea dutenenetan, posposizio-sintagmen agerpena eragiten duena, erreferentzia-elementuaren bidez kokatzen baita izendapena: *begiko ile* (58190), *begiko bilo* (58190), *betazaleko bilo* (58190), *begiko kalpar* (58190), *begiko ttapal* (58190).

3.1. Gorputz-ataletatik gorputz-ataletara

58180 'ceja / sourcil', 58190 'pestaña / cil' eta 58200 'párpados / paupière' galderetan gertatu bezala, behin baino gehiagotan gertatzen da gorputz-atalen kasuan izendapen bera jasotzea gorputz-atal bat baino gehiago izendatzeko. Juliàk (2007: 158) *metonimia espazialtzat* hartzen ditu era horretako kasuak. Lehenago Ullmanek (1980: 247) aipatu zituen metonimia-transfe-

rentziak harreman espazialean oinarritzen dira. Berak esaten duenaren arabera, gorputz-atal batzuen mugak ez dira oso argiak eta, beraz, horrek justifikatzen du latinezko *coxa* ‘aldaka’ hitzaren esanahiaren mutazioa frantsesezko *cuisse* ‘izter’ hitzera. EHHAREN materialera itzulita, antzeko zerbaite gertatzen da nahitaez muga garbia ez duten gorputz atal batzuetan: 58180 ‘ceja / sourcil’ eta 58110 ‘frente / front’ galderetan jaso da *bekosko* hitza. Mugakide izateak, adibide horretan bezala, badu eragina bi atalak izendatzeko forma bakarraren baliagarritasunean.

Gorputz-atalen arteko muga argia izatea gorabehera, 58. eta 59. gaietan aztertutako galderetan jasotako superlema etengabe errepikatzen dira beste gorputz-atal batzuei buruzkoetan; hots, etengabekoak dira gorputz-atalen eremuko metonimia-transferentziak –ez dira gorputz-atalak halabeharrez mugakide izan behar; bai, ordea, gertuko–, etengabekoak diren moduan pertsonen eta animalien gorputz-atalen izendapenen arteko transferentziak ere.

Metonimia-transferentzietan dagokienez, buruaren ataletatik hasita, 58010 ‘cabeza / tête’ galderan bildutako superlema nagusietatik (*buru*, *bü*, *kasko* eta *kaskar*) *kasko* eta *kaskar* dira gorputz-ataleko lotutako beste galdera bateko kontzeptua izendatzeko erabilitakoak, 58640 ‘nuca / nuque, occiput’ galderan ere bildu baitira.

58020 ‘cara / visage’ galderan *aurpegi*, *bisaia*, *musu*, *begitarte*, *betarrots* eta *figura* dira superlema nagusiak. Horietatik beste gorputz-atal batzuk izendatzeko erabilitakoak dira *musu* eta *mosu* superlema, esate baterako, *betarrots* superlemaekin batera: 58290 ‘nariz / nez’ eta 58400 ‘mejilla / joue’ galderetan ere azaltzen dira *musu* eta *mosu*; *betarrots*, aldiz, 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ageri da.

58110 ‘frente / front’ galderan bildutako superlema nagusiak honako hauek dira: *bekoki*, *kopeta*, *belar* eta *bonte*. *Bekoki* 58100 ‘sien / tempe’ eta 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ere jaso da, *kopeta* 63070 ‘trenza / tresse’ galderan ere bildu den bitartean.

58120 ‘sesos / cervelle’ galderan *garaun*, *muñ*, *burumuñ* eta *hün* dira superlema nagusienak. Horietatik beste gorputz-atal batzuetan agertzen dena da *muñ*, 58100 ‘sien / tempe’ eta 59340 ‘médula / moelle’ galderetan ere ageri baita.

58290 ‘nariz / nez’ galderan superlema nagusiak *sudur*, *sur*, *mustur* eta *musu* dira. Superlema horietatik beste galdera batzuetan agertzen dena *musu da*, 58020 ‘cara / visage’ eta 58400 ‘mejilla / joue’ galderetan ere azaltzen baita.

58380 ‘mandíbula / mâchoire’ galderan jasotako superlema nagusiak *matrailezur*, *matelezur*, *mazel* eta *mandibula* dira. *Matrailezur* eta *matelezur* 58390 ‘pómulo / pommette’ galderan ere jaso dira eta *mazel* 58400 ‘mejilla / joue’ galderan ere bai. 58460 ‘diente / dent’ galderan superlema nagusiak *agin*⁸, *hagin*, *hortz*, *ortz* eta *dentadura* dira. *Agin* bildu da 58610 ‘dientes incisivos / incisive’, 58470 ‘colmillo / canine’ eta 58480 ‘muela / molaire’ galderetan ere. Azken galdera horretan azaltzen da *hagin* ere. *Hortz* 58610 ‘dientes incisivos / incisive’, 58470 ‘colmillo / canine’, 58480 ‘muela / molaire’ galderetan ere jaso da eta *ortz* 58610 ‘dientes incisivos / incisive’ galderan ere bildu ahal izan da.

58550 ‘barbilla / menton’ galderaren superlema nagusiak *okotz*, *kokotz*, *kokots* eta *bidar* dira. *Kokots* 58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’ galderan ere jaso da.

58600 ‘cuello / cou’ galderaren superlema nagusiak *sama*, *lepo* eta *lepho* dira. *Sama* 58620 ‘garganta / gorde’ galderan ere bildu da. *Lepo* 59050 ‘espalda / dos’, 59140 ‘regazo / giron’ eta 59030 ‘hombro / épaule’ galderetan ere ageri da. *Espalda* 27220 ‘omóplato / omoplate’, 59030 ‘hombro / épaule’ eta 59050 ‘espalda / dos’ galderetan ere jaso da.

58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’ galderan superlema nagusiak *gorgoil*, *intxaur*, *zintzur*, *kizkur* eta *txori* dira. 58620 ‘garganta / gorge’ eta 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderetan jaso da *gorgoil*. *Zintzur* 58620 ‘garganta / gorge’, 58630 ‘campanilla (úvula) / lulette’ eta 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan.

58620 ‘garganta / gorge’ galderan superlema nagusiak *sama*, *extarri*, *garganta* eta *zintzur* dira. *Sama*, esan bezala, 58600 ‘cuello / cou’ galderan ere bildu da. *Garganta* 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan ere jaso da,

⁸ Superlemek ahozko jardunean oinarritutakoak dira eta galdera batzuetan superlema desberdinak sortzeko irizpidea izan daiteke berriemaileek emandako erantzunen ahoskera. Erantzunen batek edo batzuek hasperena izateak zein ez izateak, esate baterako, eragina izan ohi du grafian.

zintzur 58630 ‘campanilla (úvula) / lulette’ galderan, *extarri* 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan bildu da.

Gatazkan oinarritzen diren teoriak gai dira hizkuntza-komunitateen baitan sortzen diren aldaketak ikertzeko, baita gatazka eta aldaketa hauen sortzaile diren faktore eta mekanismoak ere: borroka ideologiko-politikoak, interesen arteko lehiak, boterearen banaketa desorekatuak, mendekotasun harremanak...

Horrekin batera, gai dira hizkuntzen inguruan sortzen diren eztabaida, borroka, presio eta lehiak hizkuntzen berreskuratze prozesuetan izan dezaketzen eragin positiboa ulertzeko eta aztertzeko.

Era berean, oso kontuan hartzen dute hizkuntza-komunitateen bilakaera historikoa. Beraz, historian zehar hizkuntzengan eta hizkuntza-komunitateengan aldaketak eragin dituzten faktore eta eragileak ikertzeko eta hauen ondorioak zehazteko gaitasun handia dute.

Gutxitutako hizkuntzaren egoera ahula boterearen banaketa desorekatuaren eta mendekotasun harremanen ondorio direnez, hizkuntzen arazoek erantzule ekonomiko, politiko, kultural eta sozialei buruz inolako abstrakzioarik gabe hitz egiten dute.

2.4. Gatazkaren teorien alde negatiboa hizkuntza ukipena aztertzerakoan

Gatazkaren teorikoen diskurtsoa ez da erakargarria. Hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko harremanen alde bortitzena erakusten dutenez, askotan mezu desatsegina sortzen dute. Eta mezu horrekin zailagoa izan daiteke hizkuntza aniztasunaren edo gutxitutako hizkuntzen aurka daudenak erakartzea.

Gatazkak funtzionalak izan daitezke joera deuseztatzaileak edo desintegratzaileak kontrolatzen badira, baina kontrolagaitzak direnean oso kaltegarriak izan daitezke. Hots, kontrolik gabeko gatazkek hizkuntza-komunitateen arteko harremanak epe luzerako zapuztu ditzakete, eta hizkuntzen berreskuratze prozesuak oztopatu. Are gehiago, gatazkek eta interesen arteko lehiak ez dute beti elkarriketa bultzatzen.

Gatazkaren teorikoei egiten zaien beste kritika bat da, gatazka, lehia eta desberdintasunak azpimarratuz, ez dituztela behar bezala kontuan hartzen hizkuntza-komunitateen artean sortzen diren kooperazio harremanak, ezta kooperazio hauen sortzaile diren faktore eta mekanismoak ere: desberdinen arteko hitzarmenak, partekatutako balioak, elkarbizitza eta kooperazioa ahalbidetzen duten mekanismoak... Hau da, ahantzi egiten dute gatazka eta kooperazioa bata bestearen alboan bizi direla eta, sarri askotan, alternatu egiten direla.

Gatazkari garrantzia emanez eta adostasuna arbuiauz, diskurtso bazter-tzailea sortzen dute; izan ere, gatazkak duen indarra ulertzen ez dutenak txepeltzat, konformistatzat edo erreformistatzat (iraultzaren aurkakotzat) hartzen dira.

Gutxitutako hizkuntzen kasuan, biziberritzea bizkorregi egin nahi dutela aurpegiatzen zaie, eta, ondorioz, era honetako teoriak utopikoegiak direla esaten da.

2.5. Gatazkaren teoriak euskal soziolinguistikan

Arestian esan bezala, euskal soziolinguistikaren baitan hizkuntza ukipena aztertzen duten lan gehienek bi paradigmata edaten dute. Era batera edo bestera, bi korronte teorikoen eragina dute. Edozelan ere, gatazkaren paradigmaren eragin handiagoa duten ikerketetan era honetako ideiak eta ondorioak agertzen dira:

1. Euskara bertoko hizkuntza bakarra da, eta euskal izaeraren ardatza; aldiz, gaztelania zein frantsesa hizkuntza arrotz, menderatzaile eta inposatuak dira.
2. Euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusia edo hegemonikoa izango da, edo desagertu egingo da.
3. Hizkuntza-gatazkak eta hizkuntzen inguruko eztabaida ideologiko-politikoak etorkizunean ere jarraituko dute, hizkuntza-komunitateen artean interes kontrajarriak, mendekotasun harremanak eta boterearen banaketa desorekatua daudelako.
4. Mendekotasun harremanak gainditu gabe edo botere harremanak orekatu gabe erdaldunen eta euskaldunen arteko gatazkek ez dute amaierarik izango.
5. Adostasuna lortzea zaila denez, euskara berreskuratzeko ezinbestekoak dira presioak eta zigorrak.
6. Hizkuntzaren auzia Euskal Herrian auzi politikoa da. Beraz, euskararen gaia gatazka ideologiko-politikotik aterata, euskararen aldeko borroka umezurtz eta indarrik gabe gelditzeko arriskua dago. Are gehiago, abertzaletasunak erdaldunen artean sortu dituen kontraesanez eta, oro har, euskal identitatearen inguruko eztabaida, borroka,

presio, gogoeta eta kontzientzia hartzeek berebiziko garrantzia izan dute euskararen berreskuratzean.

7. Euskararen berreskuratzea astiroegi doa. Normalizazioa azkartu beharra dago.
8. Ikerketa enpirikoari dagokionez, gizarte aldaketek eta hauek sortzen dituzten eragile, mekanismo eta botere harremani loturiko ikerketek garrantzi handia hartzen dute.

3. Azken gogoeta

Paulo Iztuetaren arabera, Aitzolena da gatazkaren teorian oinarritutako euskal soziolinguistikaren lehenengotariko lana:

Ikusi dugu Aitzolek oso gutxi idatzi zuela euskaraz eta, egia esan, idatzi zuen apurra ere nahikoa modu traketsean. Hala ere, aitortu behar da gaurko Soziolinguistikak hari zor dizkiola hizkuntz gatazkari buruzko lehen gogoetak, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* (1935) saiakeran landu zituenak eta II. tomoan bilduta daudenak, eta jakin zuela garai hartan European indarrean zeuden hizkuntza teoriak euskal kasura ekartzen; honela, Joxe Manuel Odriozolak ondo zehazten duen bezala, hurbil-hurbiletik arakatu zituen hizkuntza baten ordezkapen-prozesuan Estatuak duen eragin asimilatzailea eta, alternatiba gisa, gizarte-statusaren plangintzan elebitasunak izan zezakeen eginkizuna; zentzu honetan, esan dezakegu, Iñaki Larrañagarekin batera, arlo honetan aitzindari izan zela. (Iztueta, 1993: 133-134)

Frankismoaren ostean, Jose Maria Sanchez Carrion «Txepetx»ek *El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* liburua argitaratu zuen 1972. urtean. Iñaki Larrañagak zera zioen lan honi buruz (1987: 9):

Lan horretan agertzen dira gure artean, lehen aldiz, hizkuntzen arteko ukipenak sortarazten dituen arazoak. Hizkuntzen arteko ukipena, alegia, ez dela inoiz ere baketsu eta gozoa, eztabaidaz eta konfliktoz betea baizik; jokoan sartzen diren hizkuntzak bakoitzak

beretzako errebindikatzen dituelako hizkuntza erabiltzeko guneak eta funtzioak.

1974an, Txepetxek berak, «Bilingüismo, diglosía (sic), Contacto de lenguas. Hacia una delimitación de conceptos» artikulua idatzi zuen. Artikulu horretan ere hizkuntza ukipenaren izaera gatazkatsua aipatzen zuen:

Por eso creo que, para empezar, reconocer entre nosotros una cierta forma de ‘conflicto lingüístico’ es ya, un primer paso, muy importante, para saber tomar partido dentro del mismo. O si se quiere, para estar en condiciones de participar en las decisiones que afectan a algo tan sutil, tan complejo y tan nuestro como es la lengua que hablamos. (Sanchez Carrion, 1974: 5)

Mikel Zalbideren hitzetan, artikulua honetan Txepetxek ukipen egoeran dauden hizkuntzen artean gatazka ezinbestekoa delako ideia zurkaiztu zuen:

Hiru ondorio kaltegarri utzi ditu saio hark, nire ustez: a) *elebitasun* kontzeptuarekiko mesfidantza-giroa, errezelozko jarrera, ahuldu ordez indartu egin zuen; b) ukipen-egoerako hizkuntzen arteko *konfliktu-borrokaren* ezinbestekotasun-ikuspegia zurkaiztu zuen, eta c) diglosia hitzaren distortsioa areagotu egin zuen, jatorrizko adiera-muinetik nabarmen aldenduz. (Zalbide, 2010: 33)

1978an Euskaltzaindiak *Euskararen liburu* zuria argitaratu zuen. Liburu horretan ere, hizkuntzen arteko gatazkei buruz hitz egiten zen:

Hizkuntza gizarteko elkar komunikabide sistema mirezgarri bat da. Arazoa, ordea, honetan datza: munduan komunikaziorako hizkuntza diferenteak 2.500dik gora sailkatu direla, eta hizkuntz diferentzia horiek, sarritan, gatazka bide gertatzen direla, batzuk berena besterenaren gain ezarri nahi izatean. Euskarak zailtasun berezi bat du berekin: ahaidetik, pobreena ere, ez ukaitea; ezagunik bederen; B. Malmberg-ek 2.500 hizkuntza diferente horiekin moldatu dituen 20 familia eta taldeetan, euskarak sail horietarik bat betetzen du bakarrik. Erants diezaiozun horri, euskal hiztunak gutxi garelara. Are: instituzionalki babes lezakeen Estaturik gabe da; gaineratiko hizkuntza ofizialak, handi ala txiki, ez bezala. Gehiago oraino: zati-katurik dago Estatu biren artean, eta historian barna, zapalduarik alde

bietan, behingoz izkuta ladino. Parada horretan, aise egon zitekeen aspaldidanik hilik; ez, ordea; bizirik da. (Euskaltzaindia, 1977: 651)

1977an argitaratu zen *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian*, eta bertan ere euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanari buruz hitz egiterakoan inposizioa eta gatazka aipatzen dira:

Pero ya estas áreas han perdido hoy el sentido estático que tenían; han intervenido en los últimos tiempos dos fenómenos: 1) se ha ido generalizando el castellano en todo *el territorio euskaldun* a través de la imposición oficial, de manera que ya el euskara está en contacto casi completo y permanente con él, y, más que en forma de contacto, de «conflicto». (Euskaltzaindia, 1977: 39)

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratu zuen *La Lucha del Euskara* ikerketa ere gatazkaren paradigmak kokatzen zen:

La situación de minoría lingüística numérica se agrava con la de una condición disglósica marginal, sistemática y pertinaz, por la cual el euskera se encuentra alejado de las instancias de poder, de cultura y de educación: las leyes, los mass-media, los tribunales, los centros docentes, han marginado al euskera hasta reducirlo a una postración general que lo mantiene desestructurado, minoritario y disglósico y, en consecuencia, en franca decadencia agónica. (Eusko Jaurlaritzak, 1983: 220)

1984an, Txillardegiren *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* liburua argitaratu zen. Euskara biziberritzeko eman behar ziren pausoei buruz hitz egiterakoan zera zioen Txillardegik: «1) elebidunen kopurua azkartzea: eskola, telebista, etab. Hori bai, jakina. Baina: 2) euskaldun elebakarrak (egiazkoak edo «faktikoak») sortzea; eta, tentsioak sortuz, eta abar, dinamika azkarrago bat sortzea» (Txillardegi, 1984: 113).

80ko hamarkadaren bukaeran ere indartsu zeuden gatazkaren teoriak euskal soziolinguistikan. Horrela, 1987an, Iñaki Larrañagak zera idatzi zuen:

Hizkuntzaren atzerakada edo galtze-prozesuari dagokionez, agertzen zen, hizkuntzen arteko ukipena hizkuntzen arteko gatazka bilakatzen dela. Ez dagoela elebitasun territorial orekatu eta baketsurik.

Hizkuntza batek (indartsuenak) bestea (indarrik gabea) jan egiten duela. Horrela gertatu dela Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko zenbait lurraldetan. Txepetxen teoria, beraz, guztiz frogatua gelditzen dela. (Larrañaga, 1987: 10)

1993. urtean, Joxe Migel Odriozolak *Soziolinguistikaren atarian* liburua argitaratu zuen, eta aurretik aipatutako lanen bide bera hartu zuen: «Ez gaudela hemen kontraesan eta borroka etengabeetatik kanpora, gatazka-egoeratik at, alderantziz baino: hizkuntzen arteko ezin konpondu hau azpi-azpitik baldintzaturik dagoela estrategia menderatzaile batzuren eskutik» (Odriozola, 1993: 54).

1998. urtean, Joan Mari Torrealdai *El Libro Negro del Euskera* liburua argitaratu zuen. Bertan, XVIII. mendetik euskara baztertzea helburu izan duten debeku, lege eta idatziak agertzen zituen. Historian zehar euskararen aurkako errepresioak hartu dituen formak ulertzeko adibide ugari ematen dira (Torrealdai, 1998).

Iruditzen zaigu 70eko hamarkadatik 2000ko hamarkadaren hasierara arte Euskal Herriko hizkuntza ukipena aztertu zuten euskal soziolinguista gehienak gatazkaren teorietan oinarritu zirela. Hauen ustez, euskaldunen eta erdaldunen arteko harremanak asimilazioan, errepresioan, bazterkerian, inposizioan, mendekotasunean eta boterearen banaketa desorekatuan oinarritzen ziren nagusiki.

Edozelan ere, 90eko hamarkadaren bukaeran, Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa aztertzeko paradigma aldatzen hasi zen, eta, apurka-apurka, adostasunaren teoriak pisu gehiago hartu zuen.

Zaila da aldaketa noiz gertatu zen zehaztea, baina, gure ustez, bi lanek eragina izan zuten paradigma aldaketan: Jon Sarasuaren *Biziaren hizkuntzaz. Txepetxekin solasean* (1997) liburua eta Juan Carlos Etxegoien «Xamar»-en *Orekan: Herri eta Hizkuntzen ekologiaz* liburua (2001).

Biziaren hizkuntzaz. Txepetxekin solasean liburuan zera dio Sarasuak:

Horregatik, biziaren hizkuntzari buruz mintzo naizenean, berdintasunaren printzipiotik ulertzen dut etikan edo erlijioan maitasunaren ikuspegia deitzen dena: bizitzaren muina maitasuna dela. (...)

Ikuspegi horretatik, hizkuntzei eduki hori, mezu hori, emango bagenie, ulertuko genuke hizkuntza guztiak beharrezkoak direla. Ez dira batzuk gehiago eta besteak gutxiago. Ikuspegi dikotomikoan gabiltzalako daude mehatxatuak hizkuntzak. Iduri du, ikuspegi horretatik planeta honetan batzuk (asko) soberan daudela. Biziaren ikuspegi batetik, denok gara beharrezkoak. Beharrezko bezala sortu izan naiz, pertsona bezala, herri bezala, komunitate bezala beharrezko. (Sarasua, 1997: 69)

Handik lau urtetara, Juan Carlos Etxegoienek zera aipatzen zuen: «Planetako Bizia osatzen duen puzzlean nork bere tokia bete behar du, landareak izan, animaliak edo pertsonak, beren aniztasunean. Eta hau, gizakien kasuan, hizkuntza/herri/kultura dibertsitatea da» (Xamar, 2001: 155).

Bi lan hauen ostean hainbat izan dira, hizkuntza-ekologiatik abiatuz, adostasunean oinarritutako gogoeta soziolinguistikoak egin dituztenak.

2005. urtean, *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena* idatzi zen. Ikerketa honetan zera irakurri zitekeen:

Hizkuntza aniztasunak, kultur aniztasunak bezala, izugarri aberasten du gizateria, eta guztion artean zaindu beharko genuke. Goitik behera aldatu behar da pentsaera. Bestea benetan ulertu nahi badugu, arreta jarri beharko dugu haren hizkuntza eta kultura ulertzeko. Hori lortzeko egin beharrezko ahalegina, baina, elkarrenganako errespetuan soilik oinarritu daiteke. Bestearen kultura eta hizkuntza gurea baino gutxiago direla pentsatzen badugu, hau da, pentsaera arrazista badugu, ez dugu inoiz egingo bestea gu baino gutxiago ez dena ulertzen saiatzeko behar adinako esfortzua. (Martí et al 2005: 142, itzulpena gurea da)³

2009an, Soziolinguistika Klusterrak *Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria* izeneko bi saio antolatu zituen Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kon-

³ Ikerketa honetan nabari zen Mühlhäusler-ek 1996. urtean argitaratu zuen *Linguistic ecology. Language change and linguistic imperialism in the Pacific region* liburuaren eragina. Hain zuzen ere, Mühlhäusler lehenengotarikoa izan zen hizkuntza-ekologia metafora erabiltzen, hizkuntzen eta hiztunen arteko elkarrekintza konplexuak deskribatzeko eta azaltzeko.

gresuaren baitan (Gasteiz, 2009ko azaroaren 18-20). Ekimen hau oinarritzat hartuz, zera ondorioztatzen zuen Maria-Jose Azurmendik:

Gure ‘ukipen-egoera tradizionala’ azaltzeko erabili ohi diren faktore esplikatzaileak –euskara/espainiera– honakoak izan dira: identitateak, motibazioak, irudikapenak, jarrerak, eta horrelako prozesuak, horiekin portaerak ere lotuz. Horrela eginez lortu ditugu hainbat azalpen euskararen gaitasun-mailari eta erabilerari dagokienean, besteak beste. Baina, badirudi horrela aztertzeak alde positiboak eta negatiboak dituela, euskararen aldekoak eta kontrakoak bihurtzen direnak, hain zuzen: 1) Aldeko arazoien artean dago euskararen normalizazioan ekiteko eta bultzatzeko ikuspegi hori beharrezkoa izan dela jakitea. 2) Kontrakoen artean, aldez, dikotomikoe-giak izatea da. Izan ere, horrek euskal populazio guztia ez inplikatzeari ekarri baitu, edo kontrako inplikazioa eragitea ere, EAEn behintzat, euskararen normalizazioaren alde egin ordez, oztopatzeko. (Azurmendi, 2010b: 161)

Hizkuntza-ukipena aztertzeko adostasunaren paradigma, zehatzago esanda, hizkuntza-ekologia, hemen zein kanpoan, XXI. mendeko bigarren hamarkadan hartzen ari zen indarraren erakusle da Belen Urangak zioena (2011: 26):

Gaur egungo gizartean ikuspegi ekologikoak arrakasta ideologiko nabarmena irabazi du; merkatuak egiten duen erabilera ikusi besterik ez dago arrakasta horren neurriaz ohartzeko, baina garrantzia handiagoa du jakiteak goi mailako erantzukizunak dituztenek ere, gero eta zailagoa dutela ikuspegi ekologikoa saihestea; nolabait esateko, ikuspegi ekologikoak eragina du mundu-mailako analisi eta praxian, baina baita ere, norbanakoaren pentsamenduan eta praktikan. Horrek ez du esan nahi, jakina, arrakasta ideologikoak praktikan isla zuzena duenik; askok esango lukete urrun, oso urrun gaudela horretatik. Nolanahi ere, sentiberatze horiek oso urte gutxitan gertaturiko aldaketak dira, nahiz eta ez duten arazoaren muinera jo, izan ere, benetako aldaketek maila guztietako ondorioak dakartzate, eta hor zailtasun handiak sortzen direla ezin ukatuzko kontua da. Hala ere, horren kontziente izateak ardurak maila guztietan har daitezen lan egiten jarraitu behar denaren zalantzarik ez dago. Beraz, zailtasunak zailtasun, ikus-

pegi ekologikoaren aldeko jarrera eta portaerak sustatzeko ekimenek jarraitzen dute. Ekologiaren gaiak, eta horren haritik hizkuntza-ekologiaren inguruan, erreferentziako lanak, ikerketak, proposamenak eta bibliografia-lanak gero eta ugariagoak dira. (Uranga, 2011: 26)

2011. urtean, hizkuntza-ekologiaren eta adostasunaren paradigmak Euskal Herrian pauso garrantzitsuak emanak bazituen ere, Iñaki Martínez de Lunak zioen hizkuntza ekologiaren ideiak zabaltzeko oraindik ere lan gehiago egin behar zela: «(...) gaur egun nagusi den sentsibilitate motatik hizkuntza-aniztasunaren ideiaraino jauzi egin ahal izateko, lan pedagogiko handia behar da (...)» (Martínez de Luna, 2011: 634).

Hipotesi gisa botatzen dugu, baina, iruditzen zaigu, azken 15 urteotan, gatazkan oinarritutako diskurtso eta azterketak guztiz alboratu gabe, adostasunean oinarritzen den paradigmak pisu garrantzitsua hartu duela euskal soziolinguistikan. Asimilazioa, errepresioa, desoreka, bazterkeria, inposizioa eta mendekotasuna bezalako kontzeptuak guztiz desagertu ez badira ere, berdintasuna, aniztasuna, tolerantzia edo errespetua bezalako kontzeptuak dituzten ikerketak ugari dira.

Ze paradigma da egokiena Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa ulertzeko eta ikertzeko? Adostasuna eta gatazka txanponaren bi aldeak direla kontuan hartuta, esan beharra dago, agian, bi oinarri teorikoak direla beharrezkoak.

4. Aipatutako bibliografia

AZURMENDI, Maria Jose, 2010a, «BAT Soziolinguistika Aldizkariaren XX. urteurrena ospatzen: hausnarketak», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 76, 2010-3, 19-51.

———, 2010b, «Hizkuntza ekologia eta jasangarritasuna, globalizazioan: euskarari begira», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 75, 145-163.

BASTARDAS-BOADA, Albert, 2016, «Ecología lingüística y lenguas minorizadas: algunas notas sobre el desarrollo del campo», in Fernández Planas, A. Ma. (ed.) (2016): *53 reflexiones sobre aspectos de la fonética y otros temas de lingüística*. Barcelona: 449-458.

COSER, Lewis, 1970, Lewis. *Nuevos aportes a la teoría del conflicto social*. Buenos Aires: Amorrortu

DAHRENDORF, Ralf, 1971, *Elementos para una teoría del conflicto social*. Madrid: Tecnos.

CRYSTAL, David, 2009, «Breves reflexiones en el umbral», in Baztarrika, Patxi. (2009): *Babel o barbarie. Una política lingüística legítima y eficaz para la convivencia*. Alberdania.

ERIZE, Xabier, 2011, «Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 81, 2001-4, 67-86.

ETXEGOIEN, Juan Carlos «Xamar», 2001, *Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologia*. Iruñea: Pamiela.

EUSKALTZAINDIA, 1978, *Euskararen Liburu Zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1977, *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Ediciones Vascas Argitaletxea.

EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA, 1983, *La Lucha del Euskera en la Comunidad Autónoma Vasca*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzua.

IZTUETA, Paulo, 2003, «Identitate kulturala eta boterea», *Uztaro*, 47, 97-110.

———, 1993, «Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia», *Uztaro*, 9, 119-151.

LARRAÑAGA, Iñaki, 1987, «Euskal Soziolinguistikaren egoera eta bide berriak», *Jakin*, 42-43 (ekaina).

MARKO, Iñaki eta URANGA, Belen, 2014, «Sobre la ecología lingüística en el País Vasco: visión de los agentes sociales». *Revista de Lengua i Dret*, 62.

MARTÍ, Felix; ORTEGA, Paul; BARREÑA, Andoni; IDIAZABAL, Itziar; JUARISTI, Patxi; JUNYENT, Carme; URANGA, Belen eta AMORRORTU, Estibaliz, 2005, *Words and Worlds. World Languages Review*. Erresuma Batua: Multilingual Matters.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki, 2010, «Framing: komunikazio-teoretatik euskararen beharrianetara», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 76, 53-67.

———, 2011, «Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena», *Euskera*, 56-3, 589-652.

MÜHLHÄUSLER, Peter, 1996, *Linguistic ecology. Language change and linguistic imperialism in the Pacific region*. Routledge.

ODRIOZOLA, Jose Manuel, 1993, *Soziolinguistikaren atarian*. Bilbo: BBK; Euskaltzaindia.

PARSONS, Talcott, 1984, *El sistema social*. Madril: Alianza.

SÁNCHEZ CARRIÓN, Jose Maria, 1974, *El estado actual del euskera en la provincia de Navarra* (1970). Iruñea: Vianako Printzea Erakundea.

———, 1974, «Bilingüismo, Disglosía, Contacto de Lenguas. Hacia una Delimitación de Conceptos», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, VIII, 3-79.

———, 1987, *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia: Sánchez Carrión (arg.).

SANCHEZ DE PUERTA, Fernando, 2006, «Los tipos ideales en la práctica: significados, construcciones, aplicaciones», *Empiria: Revista de metodología de ciencias sociales*, 11, 11-32.

SARASUA, Jon, 1997, *Biziaren hizkuntzaz. Txepetxekin solasean*.

TXILLARDEGI, 1984, *Elebidun Gizarteen Azterketa Matematikoa*. Iruñea: UEU.

TORREALDAI, Joan Mari, 1998, *El libro negro del Euskera*. Donostia: Tartalo.

URANGA, Belen, 2011, «Hizkuntza-ekologia. Ekologia biologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak», *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 81, 2011 (4), 25-50.

WEBER, Max, 1982, *Ensayos sobre metodología sociológica*. Buenos Aires: Amorrortu Editores.

ZALBIDE, Mikel, 2010, «Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 77.

Aditza aitzinago ekarriko dugu, efizienteago komunikatzeko?

**¿Anticipamos la posición del verbo para una mayor
eficiencia comunicativa?**

**Anticipon-nous le verbe pour une meilleur efficience
communicative?**

**Shall we anticipate the verb for a better communicative
efficiency?**

MAIA LARRETXEA, Julian
UPV/EHU-Dream Research Group. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saila
julian.maia@ehu.eus

Noiz jaso: 2018-11-09
Noiz onartua: 2019-02-04

Artikulu honen gaia da euskarazko hitz-ordena erranaldian, eta hartan erakusten dira bi iker-saiotan bilduriko emaitzak (2011 eta 2015ean), lagin desberdinekin, aditzaren posizioari eta atzerakargari dagokienez. Aztertu nahi izan da ea zenbateko joera ageri den inkestatuen artean atzerakarga handiagoko hitz-ordenak hobesteko. Horretarako, hiru lagin hautatu dira (adituak, unibertsitateko ikasleak, batxilergoko irakasleak), eta haiei aurkeztu zaie 61 itemeko erranaldi-sorta bat eta haien erantzunetan ikusi da ea onartzen duten atzerakarga txikiko ordena edo nahiago duten aditza atzerago eraman, eta, beraz, atzerakarga handitu. Emaitzek erakutsi dute adituek aisa ere errazago onartu dituztela atzerakarga txikiko hitz-ordenak bertze bi taldeetako kideek baino; bertzalde, aski emaitza desberdinak jaso dira inkestatuen artean. Bi datu horiek elkarrekin hartuz, ondorioztatzen da hitz-ordenaren auzian eboluzioa gertatzen ari dela gaur egun, atzerakarga txikitzeko norabidean.

Hitz-gakoak: Euskara, prosa logiko-diskurtsibo idatzia, hitz-ordena, atzerakarga, aditzaren posizioa, azterketa empirikoa.

Este artículo versa sobre el orden de las palabras en la oración en euskera y en él se muestran los resultados obtenidos, con diferentes muestras, en dos fases de la investigación (en 2011 y 2015), acerca de la posición del verbo y de la retrocarga. Se ha investigado si entre las encuestadas y encuestados existe una tendencia a preferir ordenaciones de elementos de mayor retrocarga. Para ello, se han analizado 3 muestras (expertas/expertos, estudiantes de grado universitario, profesorado de bachillerato), a quienes se les ha presentado un conjunto de 61 ítems, observándose en sus respuestas si aceptan la ordenación de retrocarga reducida o bien prefieren retrasar la posición del verbo y, consiguientemente, aumentar la retrocarga. Los resultados muestran que el conjunto de expertas y expertos aceptan con mucha mayor facilidad las ordenaciones de retrocarga reducida que las personas de las otras muestras; por otro lado, se ha observado la existencia de resultados notablemente diferentes entre las personas encuestadas. Tomando ambos datos conjuntamente, se concluye que actualmente está ocurriendo una evolución en el tema del orden de las palabras en la oración, en la dirección de reducir la retrocarga.

Palabras clave: Euskera, prosa lógico-discursiva escrita, orden de las palabras, retrocarga, posición del verbo, estudio empírico.

Cet article s'intéresse à l'ordre des mots dans la phrase basque. On y trouve les résultats obtenus, avec différents exemples, lors des deux phases de recherche (en 2011 et 2015), au sujet de la position du verbe et du déséquilibre. On a cherché s'il existe parmi les témoins de l'enquête une tendance à préférer des dispositions d'éléments de plus grand déséquilibre. On a pour cela analysé 3 exemples (experts, étudiants de niveau universitaire, professeurs de lycée), à qui on a présenté un ensemble de 61 items, observant en fonction de leurs réponses s'ils acceptent l'ordre de déséquilibre réduit ou bien s'ils préfèrent retarder la position du

verbe et, par conséquent, augmenter le déséquilibre. Les résultats montrent que l'ensemble des experts acceptent beaucoup plus facilement que les autres les ordres de déséquilibre réduit ; on a par ailleurs constaté des résultats notablement différents parmi les personnes interrogées. Si l'on réunit ces deux données, on peut conclure qu'actuellement une évolution est en cours en matière d'ordre des mots dans la phrase, tendant à réduire le déséquilibre.

Mots-clés : Langue basque, prose lógico-discursive écrite, ordre des mots, déséquilibre, position du verbe, étude empirique.

This article deals with the word-order in Basque sentences and shows the results obtained, with different samples, in two phases of the research (in 2011 and 2015), about the position of the verb and the rear-burden. It has been investigated if there is or not among respondents a tendency to prefer word-orders with a higher rear-burden. For this, 3 samples have been analyzed (experts, university degree students, high school teachers). They have been presented with a set of 61 items, observing in their responses if they accept the word-order with a lower rear-burden or instead they prefer to delay the position of the verb and, consequently, to increase the rear-burden. Results show that the group of experts accepts much more easily the sequences with reduced rear-burden than the people of the other samples; on the other hand, the existence of remarkably different results among the people surveyed has been observed. Taking both data together, it is concluded that an evolution is currently taking place in the topic of the word-order in the sentence, in the direction of reducing the rear-burden.

Key-words: Basque language, written logical-discursive prose, word-order, rear-burden, position of the verb, empirical research.

1. Aurrekariak edo/eta egoeraren ezaugarriak

Oso ezaguna da azken 50 bat urte honetan euskara normalizazio- eta biziberritze-prozesu batean ari dela, eta bide horretan gaztelaniarekin edota frantsesarekin duen erlazio diglosikoan hizkuntza ahula dela. Prozesu hori hasi arte esparru formal (ia) guzietako zereginak (ia) osorik erdaren bidez bideratuak izaten ziren, eta, beraz, euskal hizkuntza oso guti erabilia izaten zen zeregin horietan (erlijioaren alorra salbu, neurri batean). Horrela, euskal hizkuntzak ez zuen izan aukera handirik administrazioan edo komunikabideetan edo hezkuntzaren erabil-eremuetan garatzeko, eta, beraz, hala euskal hiztunek nola idazleek eskarmentu-bide txikia zuten trebatzeko zertan-eta esparru horietan baliatu ohi den hizkeran eta idazkeran.

Halere, tarteka jendartean han-hemenka sumatzen diren jokabide batzuek iduri dute ezen zenbaitentzat euskal hizkuntza aski ongi trebatua dela gaur egungo komunikazio-erronka guzietan erantzuteko inguruko bertze hizkuntza indartsuek bezain ongi, zalu, trebe eta tinko, eta zeregin horietan erabili beharreko hizkuntza-ereduak oso ongi finkatuak direla, eta ez dela zalantzarik haiek aplikatzeko orduan. Bertzela erranik, batzuen ustez, hala iduri du, euskaraz idazteko kanona behar bezain ongi asentatua da, bertzeak bertze, hitzen ordena antolatzeari dagokionez. Hau da, zenbaitek erranen dizu euskal hitz-ordena aski ongi zehaztua dela, esplikatuko dizu zer diren eta zein diren erdaratik harturiko kalkoak, eta argituko dizu idazle onak bertzerik gabe eredu on horri atxiki behar diola bere jarduna. Ikuspuntu horren arabera, esperimentazioak eta egungo ohitura nagusiekiko berrikuntzak ez luke tokirik euskarazko prosa eraikitzeke orduan.

Ez dira denak, halere, iritzi bereko. Izan ere, badira autoreak uste dutenak euskaraz oraindik pauso franko egin behar duela aitzinera, nahi baldin badu komunikagarritasunean konparatu zerekin-eta inguruko hizkuntza indartsuek¹ «mendetxo» batzuetan garatu eta findu duten kanon asentatuekin. Euskararen hastapen-egoera erlatibo hori adierazten du Juan Garziak, konparazio batera, aipu honetan:

¹ Hots, gaztelaniak, frantsesak eta azken urteetan «gure alorrean sartu» zaigun ingelesak.

[...] Ahozkotasun txirotik irten berri den eta oraindik ere idatzia-
ren formaltasunean finkatzeko arazoak dituen hizkuntza batean, ho-
rretan baitago gurea. (Garzia, 2014: 38)

Hau da, badira adituak uste dutenak euskal hitz-ordenaren auzia orain-
dik (arrunt) ebatzi gabea dela. Pentsamolde horretako batzuek ez dute etsi-
tzen gaur egun arte jorratua eta ustez finkatua den jakintza-mukuruarekin,
arranguratuak dira zenbapait ere orain artean ibiliriko bide ezagunen
mehartasunarekin, eta beraz, bertzeak bertze, hitzen hurrenkeraren afera
ikusten dute auzi landu-beharra oraindik, ez behintzat behin betiko ebatzia
eta hetsia. Hala, Pello Salaburuk eta Xabier Alberdik (2012), euskararen
normalizazio prozesuaz ari direlarik, oraindik eztabaidatu beharra ikusten
dute hitzen ordenaren afera:

Space precludes a detailed discussion here on matters of syntax,
stylistics, **word order and so on**. [...]. We must not forget that it was
necessary to dive into the tradition and models of the classic writers
in Basque, and at that time, just as now, different writing registers
had to be equally distinguished: that of poetry was not the same as
theater, for example. **This would remain a topic to be discussed in
the future**. (Salaburu & Alberdi, 2012: 111) (letra lodia guk jarria).

Bertzalde, zenbait adituren baieztapenetan ongi ageri da orain artean
garatu den kanonaren erlatibotasuna. Hona:

Azken ehun urteotan, SOA hitz-ordena (Subjektua, Osagarriak,
Aditza) nagusitzen joan da euskal prosan, ia bakarra izateraino. Au-
keretako bat zen. Eta hori gauzatu da, bere alde on eta arriskuekin.
[...] (Euskaltzaindia-Esnal, 2011: 75)

Nahiz eta euskal prosan SOA hitz-ordena nagusitu den azken
ehun urteotan ia bakarra gertatzeraino, SAO ordena ere nagusi zite-
keen. Baliagarria baita SAO ere, eta kontuan hartzekoa. (Euskal-
tzaindia-Esnal, 2011: 87)

Aipatzekoa da, orobat, nolako proposamen orokorra ageri den Ibon Sa-
rasolaren jardunean, gai honi dagokionez. Akademiko horrek, 2016an, *Back
to Leizarraga* aldarrikatzen du, Kepa Altonagaren ildoan, eta eransten du

Escape from Altube, mugimendu horien bidez adieraziz oraindik badela zertaz gogoeta egin, zer pentsatu, eta zer aldatu (Sarasola, 2016).

Ildo erlatibo-zale horretan kokatzen da lan hau ere: oraindik euskaraz hitzen ordenaren auzia orotara ebatzi gabea dela pentsaturik, eta sinetsirik norabidea ongi hartzeko garrantzitsua dela ekarpen guziak ongi aztertzea, eta uste izanik oraindik badela anitz zer-ikasi eta zer-aztertu goieneko maila erdiesteko euskarazko prosaren komunikatibotasunean eta efizientzian, lan honetan azterketa enpiriko bat aurkeztuko da euskarazko hitz-ordenari buruz. Ikerketa-saio honetan jaso diren datuek erakusten dute badela euskaldunen artean oraindik zehaztugabetasun maila nabaria euskarazko hitz-ordenari dagokionez, eta hortik ateratzen dugu ondorea ezen gaia ez dela agortua eta ez dela garaia iritzi eta jokabide heterodoxo oro aztertu gabe itotzeko, ustezko arau zurrun eta gogortu batzuek azpiraturik.

Normalizazio bidean eskarmentutik ikasten

Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egin zuen biltzar ospetsua hartzen badugu euskararen normalizazio-prozesuaren hasiera gisa, erran daiteke 50 urteko ibilbidea egin dela euskararen azken eguneratze-prozesu honetan. Normalizazio prozesua hasi zenean, eta egokiera izan zenean euskara erabiltzeko «bizitza ofizialeko» zeregin batzuetan, alde batetik ordu arteko hizkuntza-eskarmentua llaburra zen, bertzetik euskal hizkuntzari buruzko jakintza guzia ere aski mugatua zen, eta gainera jakite erlatiboki murriz hori hagitz jende gutiren ondare zen, zeren euskara ez baitzuen lantzen hiritar arrunt orok hezkuntzaren eremu orotarazailan (bertze hizkuntza bat berderen bai lantzen zuen bitartean). Euskara ongi bazekiela bazekien jendea oso guti zen, zeren, euskaraz jakinik ere, jende anitzek ez baitzuen batere konfiantzarik bere euskara-ereduan, erraz gogora dezakeenez garai haietan hizkuntzaren kezka izan zuen hainbat jende-orduan-gaztek. Testuinguru horretan hasi zen euskara erabiltzen eta trebatzen alor formal ohikoetan, zeinetan lehenago guti landua baitzen: administrazioan, komunikabideetan eta hezkuntzaren eremuan. Jardunbide berri horietan aritzeko, berriz, hizkuntza-ereduak behar ziren, erreferentzia gisa erabiltzeko. Eta eredu bilatze horretan, hitz-ordenari dagokionez, normalizazio prozesuaren hasierako urteetan *Erderismos* liburuko «dotrinak» jaso zuen onarpenik zabalena eta

jarraitzaile zerrenda handiena, Mitxelena gogoratzen digunez, 1981eko testuan:

Guztiok dakigu, ordea, 1929tik egungo egunera Altuberen Erderismos [...] izan dugula beti gidari. (Mitxelena, 2011: 343).

Beraz, normalizazio prozesuaren hasierako urteetan *Erderismoseko* proposamenen araberako hizkuntza-eredua nagusitu bide zen hitz-ordenaren afe-
ran. Orduko perspektiba urriagatik pentsatu bide zen eredu horrek arazorik
gabe balio zezakeela komunikazio efizientea bermatzeko euskaraz, bai zere-
gin guzietan eta baita hizkuntza garatuenean mailan ere. Orduan indartu zen
eredu oinarriko hartan, azpimarratzen ziren gaztelaniarekiko desberdinta-
sunak (frantsesarekikoek ez bide zuten hainbertzeko kezka pizten), baina
diferentzia horiek euskal hizkuntzaren ezaugarri bereizgarritzat harturik eta
sustatu beharrekotzat, ez zen sumatzen ezinegon handirik ea jokabide ho-
rrek ekar zezakeen eragozpenik euskal prosaren garapenean, salbu iritzi ba-
kan baina ongi funtsatu batzuetan (Mitxelena eta Villasante ditugu gogoan;
ikus Maia, 2014: 141-145).

Dena dela, lantegi batean aritzeak jarduera horren arazoak ere erakusten
ditu, haren ahalbideak ez ezik. Horrela, hasierako ustezko arazorik ezari,
kezka jarraitu zion: Zubimendik eta Esnalek 1993an argitaraturiko libu-
ruan, *Idazkera-liburuan*, erakutsi zuten zein den euskarak izan dezakeen
arazoetako bat egoki garatzeko eta komunikazio-lanak efiziente burutzeko:
atzerakarga erran zioten egileek, geroztik oihartzun nabaria izan duen kon-
tzeptua. Bertzalde, aipatzekoa da garai horretan hortxe-hortxe ibiliko zela
Bittor Hidalgo ere hitz-ordenaren arazoekin biziki arranguratua, ondoko
urtean amaituko zuen tesia prestatzen (1994an).

Beraz, korrante nagusia gorabehera, ekimen horiek erakusten dute ezen
joan den mendeko 90eko hamarkadarako hasiak zirela agertzen kezka,
Erderismosek hitz-ordenan ekartzen zituen arazoen inguruan.

Atzerakargaren definizioa

Modu desberdinetan erabili izan da *atzerakarga* kontzeptua bere hasiera-
ko agerpenetik aitzinera (ad. Zubimendi & Esnal, 1993; Kaltzakorta, 2007;
Maia & Badiola, 2015; Maia, 2017). Gure definizioa hauxe litzateke: atze-

rakarga da efektu bat gertatzen baita erranaldiko elementu batzuk, funtsezkoak direnak erranahia gradualki prozesatzeko eta ulertzeko, jartzen direnean erranaldiaren azken aldera, horrela haren prozesamendua oztopatuz, eta zailduz mezua osoki ulertzea lehen irakurraldian².

Atzerakargaz mintza daiteke hizkuntza baten ezaugarri soil gisa, bertzelako zama semantikorik gabe, baina baita konnotazio ideologikoz kargatua ere. Batzuetan atzerakarga handiko hitz-ordenak hobesteko arrazoia ideologikoa izan da, eta ez zaio hainbertzeko arretarik jarri haren komunikazio-balioari (Maia, 2014). Gure iduriko, ordean, euskal prosa logiko-diskurtsiboaren helburu/erronka nagusienetako bat da asmatzea nola lor daitekeen ahalik eta komunikazio-efizientzia handiena, hartarako jokoan sarturik orain arteko euskarazko tradizio guzia, batetik, eta bertzetik ongi begiraturik zer ordenamendu lirakeen aukeran komunikazio-efizientzia ahalik eta finena erdiesteko testuinguru bakoitzean. Gure ustez perspektiba izan behar da euskara oraindik garabidean dela, eta egokitze/moldatzeko prozesu batean dabilela, bereziki eduki eta forma luze-komplexuko prosa idatzia era(iki)tzeko zereginetan. Norabide horretan tradizio guziak aztertu eta baliatu behar dira, eta intuizioz badere ez genuke baztertuko baliabide berri-taileak ere erabiltzea bere izari egokian.

Hitz-ordenaren aferan, bilakaera

Euskararen normalizazio prozesua abiatu zenean XX. mendearen azken herenean, erran bezala, *Erderismosen* 1929an agerturiko norabideak erdietsi zuten jarraipen edo arrakasta handiena hitz-ordenaren antolamenduari dagokionez. Gogora dezagun *Erderismos* berriz argitaratu zela 1975ean, normalizazio prozesuaren hasierako urte kementsu eta bizkor haietan. Eta horrela, hogeigarren mendearen joanean nagusitu ziren joera batzuk, gero jarraipen handia izan dutenak hizkuntzaren normalizazio-bidean. Adibidez,

² Atzerakargaren definizioaren bertze aldaera bat hauxe da, gaztelaniaz: «Definimos la retrocarga o carga posterior (*atzerakarga*, en euskera) como el efecto producido por la tendencia a colocar elementos decisivos para el procesamiento gradual del mensaje en la parte posterior de la oración, de manera que se retrasa su procesamiento y se dificulta su comprensión en primera lectura» (Maia, 2017).

indartu zen aditza erranaldiaren gibelesko aldean jartzeko joera, aurreikusitako gabetanik jokabide horrek zer arrisku ekar zitzakeen (Euskaltzaindia-Esnal, 2011: 75).

Nolanahi ere, normalizazio prozesuak aurrera egin ahala euskarazko prosa idatziaren erabilera ugartuz joan zen, eta horren ondorioz hasi zen agertzen nolako problema-iturriak zituen prosaren garapenak. Arazoaren berri oso modu garbian azaldu zen 1993an, goian aipaturiko *Idazkera-liburua* eza-gunean (Zubimendi & Esnal, 1993), eta geroztik egile askok jardun du alde edo molde hitz-ordenaren auziarekin, eta hala aurkeztu dira hainbat proposamen eta irtenbide, atzerakargaren arazoa ukitzen dutenak, eta hura txikitzeko norabidean doazenak. Hona ekarpen adierazgarri batzuk, bertzeak bertze: Zubimendi & Esnal, 1993; Hidalgo, 1995, 2002; Garzia, 1996, 2014; Alberdi & Sarasola, 2001; Rubio, 2002³; EHAA-IVAP, 2005; *Berria*, 2006; Kaltzakorta, 2007, 2012; Aristegieta, 2009; Esnal, 2009; Amuriza, 2010, 2012; Euskaltzaindia-Esnal, 2011; Agirre, 2012, 2013; Sarasola, 2016... Aipatu ekarpen horiek guziaz aintzat hartuta, erran daiteke bilakaera gertatu dela eta gertatzen ari dela hitz-ordenaren auzian: *Erderismo*-sen ageri zen ereduak izanzen zuen nagusitasuna XX. mendearen amaiera aldera arte, baina gaur egun puntu batzuetan bederen eztabaidatua izatera pasatu da, bertze irizpide batzuk ari baitira agertzen. Horrela, urteen joanean, erran liteke euskarazko hitz-ordena kanonikoan halako eboluzio bat gertatzen ari dela⁴.

Aditzak eta hitz-ordena adibide baten bidez

Goian aipatu perspektiba diakronikoa harturik, eboluzioa sumatzen da hitz-ordenaren auzian euskarazko prosa idatzian. Egungo testu idatzi askotan ageri dira hitz-ordena batzuk harridura edo gaitzespena (eskandalua?)

³ Jesus Rubiok berak erakusten du Altubek ere izan zuela kezka eta joera hori 1951ko lan batean (in http://balbula.blogspot.com.es/2016/03/harribitxi-bat-seber-altube-defendituz_1.html). Ikus orobat Altube, 1951.

⁴ Normalizazio prozesuaren hasierako urteetan *idealismo ideologikoa* baldin bazen elementu giltzari bat euskarazko prosa-eredua antolatzeke, ondoko urteetan, haren ordez edo harekin lehian, *pragmatismo komunikatiboa* indar handiagoa hartzen ari da (Maia, 2014).

bilduko zutenak orain dela urte batzuk, baina gaur egun jende anitzek (ia) oharkabean irakurtzen dituenak, arreta berezirik erakarri gabe, eta baita batzuetan bertzeren ausardiak sortzen duen mirespen punttu batekin ere. Adibidez, ikus ditzagun erranaldi baten bertsio diferente batzuk, testuinguritik nahiko «libre» direnak⁵, eta gonbidatzen dugu irakurlea konpara ditzala aditzen kokaguneak ondoko erranaldi horietan guzietan:

- (1) Gazteleraz «oir» eta «escuchar» aditzen bidez gauza bana adierazi ohi dela **jakiteko**, kastillano hizkuntzako **akademiko izan behar denik ez dut uste**.
- (2) Gazteleraz «oir» eta «escuchar» aditzen bidez gauza bana adierazi ohi dela **jakiteko, ez dut uste** kastillano hizkuntzako **akademiko izan behar denik**.
- (3) Gazteleraz «oir» eta «escuchar» aditzen bidez gauza bana adierazi ohi dela **jakiteko, ez dut uste izan behar denik** kastillano hizkuntzako **akademiko**.
- (4) **Ez dut uste** kastillano hizkuntzako **akademiko izan behar denik**, gazteleraz «oir» eta «escuchar» aditzen bidez gauza bana adierazi ohi dela **jakiteko**.
- (5) **Ez dut uste** kastillano hizkuntzako **akademiko izan behar denik jakiteko** gazteleraz gauza bana adierazi ohi dela «oir» eta «escuchar» aditzen bidez.

Interesgarria da irakurleak denbora pixka bat iragan dezala pentsatzen ea zein ote den berak hobetsiko lukeen antolamendua.

Gure ikuskeran progresio bat ageri da aukera horien artean: (1) bertsioa izanen litzateke *Erderismoseko* ereduari atxikiena (aditzak «ahal adina» gibelatuz), eta bertze muturrean genuke (5)-eko antolamendua, gaur egungo joera «berritzaileen» arabera antolatua: funtsean, aditzak ahalik eta aitzinena ekarrita (bertze kontu bat da ea zer den zehazki «ahalik eta aitzinena»

⁵ Bertsio horietatik azkena, (5) zenbakiduna, *itzulist*-en agertu zen 2016ko irailean, eta gerok eratu ditugu bertze antolamenduak, konparatzeko.

delako hori). Azken bertsio hori egun irakurle anitzek aisa onartuko luke, eta baita hobetsi ere; aldiz, orain dela bi hamarkada, hagitzez ere kritikatuago izanen zen, euskararen arau sakonak hausten zituelakoan. Horretan ikusten dugu eboluzioa.

Gure planteamenduan beti gogoan dugu aditza kontsideratzen dela erranaldiaren ardatza (Euskaltzaindia-Esnal, 2011: 75; Garzia, 2014: 107). Haren kokagunea, hortaz, hagitiz garrantzitsua da komunikazio-efizientziari begiratuta, eta hura gibelera eramateko jaidura, berriz, arriskutsua euskal prosa bizkor garatzeko. Iritzi hori ikus daiteke ondoko aipu honetan:

Arriskuen artean, kontuan hartzekoa da, batez ere, aditza esaldiaren atzealdean kokatzearena, osagarri askoren atzetik, noiz eta esaldiaren ardatza izan behar duenean. Atzeratze hori are arriskutsuagoa da, baldin eta esaldiaren buruan ipintzen bada aditza behin eta berriro, oso zabaldua egon den joera baten arabera. [...] izan ere, zerbaitek baldintzatzen, aditzaren kokalekuak baldintzatzen du hitz-ordena. (Euskaltzaindia-Esnal, 2011: 75)

Arrisku hori gogoan dugula, lan honetan funtsean aditzaren kokalekua aztertuko dugu, eta kokaleku bakoitzak biltzen duen onespén/gaitzespen mailaz jardunen dugu.

2. Ikerketa

2.1. Ikergaia

Ondoan azalduko dugun ikerketa honetan atzerakarga aztertu da, kontzeptu hori ulerturik nola-eta goitiago testu honetan berean definitu dugun bezala. Baliabide desberdinak erabil daitezke atzerakarga arintzeko (adibidez, Zubimendi & Esnal, 1993: 189 eta hurr.), baina atzerketa honetan bertze jokabideak ez ditugu aztertuko, eta bakarrik aditza aitzinago edo gibelago jartzeak dakartzan aukerak izanen ditugu langai⁶.

⁶ Eta aditzaren toki aldatzeak nahitaez dakartzan bertzelako aldaketak, jakina.

Hemen aurkeztuko den iker-saioa bi fasetan gauzatu da. Lehenbizikoan, 2011. urtean, bi inkestatu-talderen datuak bildu ziren, eta haiek ere erakutsiko dira lan honetan, kontrastea ikusteko; geroago, 2015ean, bigarren saio bat egin zen, item berak analizatuz, baina bertze inkestatu-lagin baten laguntzarekin. Ikusiko den bezala, bi zatiak lotuta daude eta denak batean hartuta ulerbide edo perspektiba zabalagoa eskaintzen diote azterturiko auziari.

Lan honetan ikuspuntu enpirikotik aritu gara, eta aztertu nahi izan dugu ea hezkuntzaren eremuan toki edo posizio desberdinetan ari diren pertsona/hiztun berezi batzuek baduten joerarik atzerakarga handiko testuak hobesteko, edo bertzerik gabe prest ote diren onartzeko atzerakarga txikiagoko hurrenkerak; eta gero, zein-ere baita agertzen den joera, hura zenbatekoa den aztertu nahi izan dugu. Analizatu ditugu bai goi-mailako aditu batzuen jokoerak, bai unibertsitateko ikasle batzuenak eta baita batxilergoko irakasleen lagin batenak ere. Guk dakigula, gisa honetako ikerketa enpiriko guti dago egin orain arte, eta zinetan garrantzitsua iduritzen zaigu ezagutzea hizkuntzaren erabiltzaileen ohiturak eta joerak (hurbilketa edo norabide gisa bederen), hala aukera handitzen baita gaiaren inguruan gogoeta egiteko, eta horrela, ongi eginak goresteko eta indartzeko bezala, baita balizko oker-hasiak zuzentzeko eta hobetzeko ere.

2.2. Metodologia

2.2.1. Hipotesiak eta ikerketa-galderak

Ondoan agertzen diren hipotesiak planteatu ditugu.

H1: Analizatzeko ditugun pertsonen laginetan agertuko da batez bertze-ko joera nagusi bat zertako-eta ikergai diren itemen atzerakarga-maila handitzeko, eta beraz maiz ez dira onartuko zuzentzeko aurkeztzen diren hurrenkerak, atzerakarga txikikoak baitira. Bertzalde, joera honen balizko indarrak ere bildu nahi dira datuak.

H2: Goi-mailako adituek, batez bertze, joera txikiagoa erakutsiko dute atzerakarga handitzeko, bertze laginetako kideek baino.

H3: Inkestatuek ez dute atzerakarga handitzeko joera bera erakutsiko item guzietan: zenbait itemetan zuzenketa-kopurua handiagoa izanen da eta bertze batzuetan txikiagoa.

H4: Diferentzia pertsonal nabariak agertuko dira itemak zuzentzen lagundu diguten pertsonen artean, zuzentzeari dagokionez; batzuek joera handiagoa izanen dute atzerakarga handitzeko, bertze batzuek baino; zuzentzaileen profil muturrekoen berri ere emanen dugu, inkestatu taldeen artean konparazioak eginez (adituen, batxilergoko irakasleen, eta unibertsitate-gradu ikasleen artean).

2.2.2. Azterturiko itemak eta erranaldiak

Hirurogeita bat item analizatu dira: 1. koadroan ikus daitezke erranaldi guztiak, eta 2. koadroan, berriz, zer item aztertu diren.

1. koadroa: zuzentzeko aurkezturiko erranaldiak
1) Atzo eztabaida izan nuen lagun batzuekin munduan gertatzen ari diren gerra batzuei buruz.
2) Andonik futbola telebistan hainbeste emateak jendea azkenean guztiz nekatuko duela uste du.
3) Azkenik, pentsatzekoa da badela erlazioa jendeak komunikatzeko duen gaitasunaren eta lortzen duen boterearen artean.
4) Beldur naiz orain arte egin ditugun lan guztiak alferrekoak izango direla.
5) Bi alor ditugu: ahotsaren kontrola eta hitzez besteko komunikazioa. Ahotsaren kontrolean sartzen dira haren kalitate akustikoari dagozkion kontuak: inpostazioa, tonua, nabardurak markatzea, eta gorabeherak eginez hitz egitea. Eta hitzez besteko komunikazioan, berriz, beste ezaugarri guztiak.
6) Nire iritzia? Hona: gaur goizean plazaren erdi-erdian herriko hainbeste jenderen aurrean gertatu den ikuskizun benetan penagarri hura ez dut gustukoa izan.
7) Bi aukera ditugu. Guk bigarrena hautatu dugu, uste dugulako irakasleen prestakuntzak eraldaketa hausnartua ekarri behar duela berarekin.
8) Zer da «konpetentzia»? Konpetentzia da gaitasuna edo trebetasuna zereginak burutzeko edo hainbat egoerari aurre egiteko, modu eraginkorrean.

1. koadroa: zuzentzeko aurkezturiko erranaldiak
9) Deialdi hau zuzenduta dago aurreko urteetan ikasleen truke-programetan edo holakoetan ibili diren ikasleei eta ez besteei.
10) Denek egin behar izan dituzte ariketa batzuk balio dutenak oinarrizko trebakuntza jasotzeko gai horren inguruan.
11) Egile horiek uste dute baliagarria eta beharrezkoa dela, komunikazioaz gain, beste gaitasun batzuk ere izatea.
12) Esaldi bat oker ulertzeko arriskua badago, obligazioa dago arrisku hori minimizatzeko eta horretarako behar diren tresna guztiak erabiltzeko.
13) Esan nahi dudana da zailagoa dela norberak egitea ariketa guztiak, besteren laguntzarekin aritzea baino.
14) Irudipena dut gaurko negar guztiak egunen batean irri bihurtuko direla.
15) Eta orduan denak arnasestuka sartu ziren gelan, itxura eginez lasterka etorri zirela inon ere gelditu gabe.
16) Banku zentralak Euskadiko Gobernuaren zorraren kalitatea puntu bat jaistera erabaki du, nabarmenduta azken urte honetan zorra etengabe handitzen ari dela.
17) Europako Kontseiluak dio Espainiako eleaniztasuna babesteko ardura espainiar Gobernuari ere badagokiola.
18) Euskal hiztunek asmatu baldin badute euskararentzat tokirik bilatzen, izan da euskarak beren beharrizan komunikatiboak, hainbat alorretan bederen, betetzen zizkietelako.
19) Ez du batere ahaleginik egin guri laguntza bidaltzeko, badakien arren oso jende gutxi garelara eta garaiz amaitzeko lan handiegia dugula.
20) Ezin da aldaketa sakonik proposatu sistema guztian, kontuan hartu gabe hezkuntzaren esparruko eragile garrantzitsuena (irakaslea).
21) Frogatuko balitz ere salatutako torturak guztiz benetakoak direla, nekez ikusiko ditut pertsona batzuk torturaren kontrako fitxa mugitzen.
22) Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan datuak ikustean Hego Euskal Herriko pobrezia hazkundera buruz.
23) Haren eginkizun nagusia da giza eskubideak eta demokrazia babestea, eta helburu hori sendotasunez betetzen laguntzera dator Hizkuntzen Euroituna.
24) Hiru irakasleak gaiari ikuspegi historikoa ematen saiatu dira, ikusteko nola garatu diren euskarazko hedabideak azken 10 urteotan.

1. koadroa: zuzentzeko aurkezturiko erranaldiak
25) Horrela, oinarritzko hezkuntza-sistemaren bidez jendarteak norabide bat markatzen du zehazteko nolako jendea nahi lukeen etorkizunean.
26) Langileek segur aski grebara joko dute, jakin ondoren enpresak laster atzerrira joateko asmoa duela.
27) Gure irakasleak, azken azterketako eguna baino gutxienez hilabete pare bat lehenago ikasten hasi behar zela esaten zigun.
28) Ikastetxeetan ere, gela nola antolatuta dagoen ikusteak ideia ematen digu nolako estilokoa den irakaslea edo bertan garatuko den jarduna.
29) Ikusten duzunean nork agintzen duen hemen, ikasiko duzu berehala nor nola tratatu behar den.
30) Irakasleak badaki zeintzuk diren ikasleek behar dituzten orotariko laguntzak.
31) Italiarrak pozik daude, ikusitakoan Frantzia nola itzuli den etxera txapelketatik burumakur eta galtzaile.
32) Jakinarazi digute komisio berriak aplikatuko direla bankuko libretetan, eta lankide batek esan digu galdetzeko zer esan nahi duen horrek.
33) Lehiaketako epaimahaikideak izango dira zuzendaria, ikasketa burua, ikasleen kontseiluko burua eta gelako ordezkaria.
34) Nago oso nekatuta, ez naiz irtengo.
35) Nahiago dut oraindik nire jarrera ez agertu, ikusten baitut ez dela behar; ni konformatzen naiz ikustearekin bakoitzak bere proposamena defenditzen duela.
36) Nik Bilbori buruz idatziko dut, jakinda beste edozein hiri handik berdin balio duela azterketa horretarako.
37) Nik zer nahi dudana? Nik nahi dut bokata bat patata-tortilla eta <i>kas</i> bat laranja, besterik ez.
38) Nire lagun batek liburu bat idatzi du ibilbide erraz batzuk erakusteko eta horrela eskualdea ezagutzeko.
39) Ona da jakitea nork bere bazkaria prestatzen eta etxeko lanak egiten.
40) Onartuz gero gutako edozeinek edozein lanetarako berdin-berdin balio duela, nagusiek erosoago antolatuko lukete lana.
41) Pena ematen dit jakiteak kontzertuetara etortzen den jende guztiak ez duela ia inoiz nire diskorik erosi.

1. koadroa: zuzentzeko aurkezturiko erranaldiak
42) Telebistan entzun dut berria aurren <i>Tourrean</i> kontrol zorrotzagoak jarriko dituztela.
43) Zu lasaia bizi zara, ze daukazu esperantza handia ikasgai hau aprobatzeko.
44) Ongi oroitzen naiz Janire Marlyng-ez, zeren izen hori ez baita hain errazki ahazten nola beste zenbait.
45) Teknika horiek gai dira adierazteko zein den telebistan ikusi duzun azken programa ere.

2. koadroa: aztertu nahi diren itemak (61 item) Kolore grisean jarriak, adituek atzerakarga txikiarekin oso ongi harturiko itemak (39 item)	
Zenbakia	Aztergai den itema (letra lodian markatua)
1	Atzo eztabaida izan nuen lagun batzuekin...
2	..., pentsatzekoa da...
3	..., pentsatzekoa da badela erlazioa... artean vs ... erlazioa badela ...
4	Beldur naiz...
5	[...] Ahotsaren kontrolean sartzen dira hau eta hori eta hura.
6	..., uste dugulako...
7	Konpetentzia da... (definizioa)
8	... gaitasuna edo trebetasuna zereginak burutzeko edo ... -teko...
9	Deialdi hau zuzenduta dago... -ei.
10	... ariketa batzuk balio dutenak...
11	... jasotzeko gai horren inguruan. vs ... gai horren inguruan oinarrizko prestakuntza jasotzeko.
12	Egile horiek uste dute...
13	..., obligazioa dago...
14	Esan nahi dudana da...
15	... zailagoa dela... -tea... vs ... -tea zailagoa dela...
16	... norberak egitea ariketak... vs ... ariketak norberak egitea ...

2. koadroa: aztertu nahi diren itemak (61 item) Kolore grisean jarriak, adituek atzerakarga txikiarekin oso ongi harturiko itemak (39 item)	
17	Irudipena dut...
18	..., itxura eginez lasterka etorri zirela...
19	..., nabarmenduta...
20	Kontseiluak dio...
21	... hiztunek asmatu baldin badute hau eta hori eta hura...
22	... bilatzen, izan da...
23	..., badakien arren...
24	..., kontuan hartu gabe...
25	Frogatuko balitz ere...
26	..., nekez ikusiko ditut...
27	Gutziz hunkituta geratu nintzen lehengoan...
28	... lehengoan datuak ikustean ...ri buruz.
29	Haren eginkizun nagusia da...
30	..., ikusteko nola garatu diren...
31	Teknika horiek gai dira adierazteko... vs ... gai dira.
32	... gai dira adierazteko... vs ... adierazteko gai dira.
33	... jendarteak norabide bat markatzen du...
34	...markatzen du zehazteko...
35	Langileek segur aski grebara joko dute, ...
36	..., jakin ondoren...
37	... ikusteak ideia ematen digu nolako estilokoa...
38	Ikusten duzunean nork agintzen duen hemen...
39	..., ikasiko duzu berehala nor nola...
40	Irakasleak badaki zeintzuk diren...
41	..., ikusitakoan Frantzia nola...
42	Jakinarazi digute...
43	... komisio berriak aplikatuko direla bankuko libretetan,
44	..., eta lankide batek esan digu galdetzeko...
45	... esan digu galdetzeko... vs... galdetzeko.

2. koadroa: aztertu nahi diren itemak (61 item) Kolore grisean jarriak, adituek atzerakarga txikiarekin oso ongi harturiko itemak (39 item)	
46	... epaimahaikideak izango dira zuzendaria, idazkaria...
47	Nahiago dut...
48	..., ikusten baitut hau eta hori eta hura...
49	...; ni konformatzen naiz...
50	... konformatzen naiz ikustearekin hau eta hori eta hura...
51	..., jakinda...
52	... berdin balio duela azterketa horretarako. vs ...rako berdin balio duela.
53	Nik Bilbori buruz idatziko dut, jakinda... vs... idatziko dut.
54	Nik nahi dut bokata bat patata-tortilla eta...
55	Nire lagun batek liburu bat idatzi du... -teko vs ... idatzi du.
56	Ona da jakitea... vs ... ona da.
57	Ona da jakitea... -ten vs ... -ten jakitea (ona da).
58	Onartuz gero...
59	Pena ematen dit jakiteak...
60	... jakiteak... -ela vs ... -ela jakiteak.
61	Telebistan entzun dut berria... -ela vs -elako/-enaren berria.

Aztertu ditugun item guzien artean, hasieran ez, baina ikerketaren aitzina-bidean bi multzo bereizi ditugu, eta horretarako arrazoia izan da goi-mailako adituek item frankoren aurrean oso jarrera onartu-zalea erakutsi dutela, arazorik gabe onetsiz atzerakarga txikiko anitz hurrenkera: aztertzeko bereizirik 61 itemetatik, adituen multzo horretatik % 85ek⁷ baino gehiagok ederki onetsi ditu 39 item (item guzien % 64); bertze 22 itemak (item guzien % 36), berriz, gehiago zuzendu dira: % 12,5etik goitiago, haietan denetan. Adituen multzoak oso ongi onarturiko 39 item horiek kolore grisean jarrita daude 2. koadroan.

⁷ Adituak denetara 8 baitziren, haien «% 87,5ek» erratea edo «zortzitik zazpik» erratea gauza bera da.

2.2.3. Inkestaturen zertzeladak

Goian erran bezala, hiru inkestatu multzoren datuak erakutsiko ditugu eta konparatuko. Hauek dira talde horiek, aski ezaugarri desberdinekoak: 1) goi-mailako adituak (N=8); 2) UPV/EHUn Lehen Hezkuntzako Graduan euskal adarrean 1. mailan ari ziren ikasleen lagin bat (N=212); 3) Batxilergoko irakasleen lagin bat (N=88).

Adituen taldea 8 lagunez osatua da eta denek bakarka bete zuten ariketa, ikertzaileak aurrean izan gabe. Talde honen datuak 2011. urtean jaso ziren. Kide guztiak jo daitezke goi-mailako aditutzat prosa idatziaren esparruan; ibilbide luzea egin dute irakaskuntzan goieneko mailetan. Inkestatu hauen «aditutasuna» bermatu nahi izan da, hori bai, baina kideak hautatzeko ez da erabili ezein prozedura estatistiko, baizik eta arrazoi pragmatiko huts-hutsak: aditu haiengana iristeko ahalbidea eta haien borondatea kolaboratzeko. Aditu talde horrek, beraz, ez du ordezkatzeko estatistikoki goi-mailako adituen balizko unibertsoarik. Bertze funtzio bat, ordea, ongi betetzen du, eta horregatik bilatu eta baliatu da haien lankidetzat: aditu horien iritzia, multzo gisa hartuta, baliotsu eta erranahitsutzat jotzen dugu, batik bat harako kasu haietan zeinetan aditu horiek erakusten baitute iritzi-adostasun maila handia, zeren holakoetan haien jokarakerak balio baitezake erreferentzia gisa erakusteko zer bide diren aisa onartzekoak euskal prosaren garabidean. Hau da, aditu guzkiek onartzen badute atzerakarga txikiko item bat, iduri du ez litzatekeela arazorik izan behar hurrenkera hori eredu gisa ere irakasteko.

Azterturiko bigarren taldea unibertsitateko ikaslez osatua da. Zehazki, 212 kide dira lagin honetan eta 2011. urtean egin zuten ariketa. UPV-EHUn ari ziren Lehen Hezkuntzako Gradua egiten, hiru campusetan (Arabak, Bizkaian eta Gipuzkoan); lehen mailan matrikulatuak ziren, euskarazko adarrean. Ariketa egin baino lehenago ikasleei eskatu zitzaizen fitxa bat betetzeko, haien datu soziolinguistiko batzuk biltzeko (adina, zer herrikoak ziren, ikasketak zer eredutan zituzten eginak, euskara etxean ikasia zuten, euskara etxean erabiltzen zuten edo ez, euskalkia erabiltzen zuten edo ez...). Ikasle gehienak D ereduan ikasiak ziren (212tik 180

ikasle, % 84,9)⁸, baina ez zitzairen azterketarik egin haien euskara-maila zehazteko edota bermatzeko; hala ere, euskal adarrean ari baitziren, pentsatzekoa da gehienek behinik behin euskara maila ona izanen zutela (ariketa talde euskaldunetan bakarrik egin zen, eta ez gradu hori gaztelaniaz egiten ari zirenetan)⁹. Ikasturte horretan UPV-EHU gradu horretan eta maila horretan euskaraz matrikulatuak ziren guztiak 517 ziren, eta beraz ikerketarako laginak unibertso horren % 41 hartzen zuen. Lagina osatzeko prozedura hauxe izan zen: lanegun batean, ikertzaileak joan ziren ikasleen eskola-emanaldi ohiko batera, haien irakaslearekin adostuta, baina gazti-gatu gabe ikasleei zer eskatuko zitzairen egiteko. Ikasleei galdetu zitzairen ikerketako ariketa betetzeko, borondatezkoa zela adierazita. Ikasle gehienek ikertzailearen bat aurrean zutela egin zuten ariketa, baina kasuren batean ezin izan zen hala burutu (greba bat tarteko), eta hartan ikasleek beren ohiko irakaslearekin bete zuten egitekoa, hartarako jarraibideak emanda, baina ikertzaileak bertan izan gabe.

Ikergai izan den hirugarren taldea batxilergoko 88 irakaslek osatua da (haien batez bertzeko adina, 2015-2016 ikasturtean, 47 urte)¹⁰. EAEko 21 ikastegitako irakasleak dira, 14 sare publikokoak eta 7 bertzelakoak (azken hauetatik 6, ikastolak). Lagina osatzeko, 30 ikastetxe hautatu nahi ziren¹¹, batxilergoa eskaintzen zutenak, titulartasuna kontuan hartuz (publikoa/pribatua). Azkenean, parte hartu duten ikastetxeak hauek izan dira: Urbi BHI (Basauri); Gernika BHI (Gernika); Unamuno BHI (Bilbo); Arrigorriaga BHI (Arrigorriaga); Urritxe BHI (Zornotza); Botika Zaharra BHI (Bilbo); Unamuno BHI (Gasteiz); Bertendona BHI (Bilbo); Arratia BHI (Igorre); Bidebieta BHI (Donostia); Lizardi BHI (Zarautz); Pío Baroja BHI

⁸ B ereduan ikasiak ziren ikasleen % 12,3, eta A ereduan, berriz % 1,4 (bertze % 1,4k ez zion erantzun galdera honi).

⁹ Ikasleen datu soziolinguistikoaren azterketak bidea emanen du ariketaren erantzunak modu finalgo batean analizatzeko, baina hori hurrengo ekinaldi batean egin gogo dugu.

¹⁰ Zin-zinetan eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan eskuzabal lagundu diguten irakasle eta ikasle orori; haien kolaborazioak merezi du aintzat hartua izatea administrazioaren aldetik, eta hala eskatzen dugu hemen.

¹¹ Berrehun inguru ikastetxe osatzen dute unibertso guztiak eta haien % 15era iritsi nahi zen.

(Irun); Urola BHI (Azpeitia); Lekeitio BHI (Lekeitio); Larramendi ikastola (Mungia); Lauro Ikastola (Loiu); Urretxu-Zumarraga ikastola HLBHIP (Urretxu-Zumarraga); La Salle-Azitain (Eibar); Asti-leku ikastola (Portugalete); Zaraobe BHI (Amurrio); Santo Tomas Lizeoa (Donostia). Hautaturiko ikastetxe guzietan eskatu zaie 6na irakaslek egin dezatela ariketa (irakasleak izan zitezkeen hizkuntzakoak edo bertze ikasgaietakoak, erabaki hori ikastetxeko kideen gain utzirik). Erantzuleen kopurua garrantzitsutzat jotzen dugu, nahiz eta ez den lortu hasieran nahi zen adina kolaboratzaile.

2.2.4. *Datuak biltzeko eta tratatzeko prozedura*

Ondoan azalduko den prozedura baliatu da inkestatuen datuak biltzeko, haiek kodifikatzeko, eta indizeak ateratzeko.

Hiru laginetako kideei aurkeztu zaizkie erranaldi batzuk (denetara 61 item)¹² eta eskatu zaie haiek zuzentzeko baldin eta uste badute emaniko hitzen ordena ez dela onargarria; aldiz, itema onartzeko modukoa baldin bada, testuingururen batean, orduan ez da aldaketarik egin behar¹³. Erranaldi gehienak atzerakarga erlatiboki txikiarekin aurkezten zaizkie erantzuleei, nahiz eta badiren banaka batzuk atzerakarga handikoak (batzuk kontra-adibideak, eta bertze batzuk arreta edo/eta muturreko jarrerak neurtzekoak: ikus beheitiago). Proposatzen den zuzenketa-ariketaren bidez, espero da, batetik, inkestatuek erakutsiko dutela zein den beren ustez hitz-ordena zuzena (edo beharbada «kanonikoa» deitu daitekeena), eta bertzetik, ikusiko da zenbateraino onartzen dituzten edo errefusatzen dituzten atzerakarga txikiagoko hurrenkerak.

Goitiago erran bezala, bertzelako item batzuk ere aurkeztu zaizkio erantzule bakoitzari, haietako batzuk kontra-adibide gisa. Kontra-adibideko item berezi horiek beren hasierako formulazioan atzerakarga handiarekin

¹² Item berak analizatu dira 2011n eta 2015ean, nahiz eta batzuetan adibidea pixka bat aldatu den.

¹³ Lehen eranskinean jaso dira ariketa betetzeko jarraibideak, ikasleei irakurri/adierazi zitzaizkienak, ariketa hasteko unean.

aurkeztu zaizkie erantzuleei, eta haietan jasoriko datuek erreferentzia emanen digute ea lagineko partaideek atzerakarga handiko itemak zuzentzen dituzten atzerakarga txikiago bat ezartzeko. Hauek dira kontra-adibideko erranaldiak, 1. koadroko zenbakien arabera: 2011ko inkestan 2 eta 6 zenbakikoak; eta 2015eko ariketan, hiru erranalditako itemak: 2, 6, eta 27 zenbakikoak.

Ariketan sartu dira bertze bi adibide ere, aditza dutenak hasierako tokian jarria, eta zuzentasuna zalantzazkoa dutenak irizpide gramatikal ohikoenen/ezagunen arabera (ikus 3. koadroko lerro hau: *Arreta neurtzekoak eta gramatikaltasun zalantzazkoak*, 1. koadroan, 34 eta 43 erranaldiak). Haien funtzio nagusia da erantzuleen arreta neurtzea, eta bertzetik, muturreko adibide baten aurreko jarrera arakatzea bertze itemekiko kontraste gisa.

Laginetako kideen erantzunak jaso ondotik, haien kodifikazioa egin da, modu honetan: erantzuleak atzerakarga txikiko itema ontzat emanez gero, orduan 0 balioa ematen zaio erantzulari item horretan; itema atzerakarga handiarekin hobetsiz gero, berriz, 1 balioa ematen zaio erantzulari; ahal eta behar izan denean item batzuetan tarteko balioak ere eman izan dira, 0 eta 1en artean erantzunaren arabera (0,25; 0,5; 0,75).

Datu horiek kodifikaturik lagin bakoitzeko, *Excel* dokumentu banatan sartu dira, zeinetan zutabe bakoitzean item bat izan den, eta lerro bakoitzean, berriz, erantzule bat. Horrela, dokumentu horretan erraz kontsulta daitezke hainbat datu: hala bakarkako itemei eta erantzuleei buruz, nola emaitza globalak itemez edo-eta erantzuleez.

Item bati buruzko datu globalak ikusteko, indize forman, aski da operazio hauxe egitea: hari dagokion zutabeko balio kodifikatuak batu, eta emaitza hori zatitu erantzule guzieren kopuruaz¹⁴. Erantzuleei buruzko datu globalak indize gisa nahi badira, hauxe egin behar da: erantzulari dagokion lerroko balioak batu eta emaitza hori zatitu itemen kopuruaz (N=61, batzuetan, eta N=39, bertze batzuetan). Indize horrek egon behar du 0 eta 1en artean: zenbat eta zerotik hurbilago izan, horrek erran nahi du hainbat eta hobeki

¹⁴ N-ren balioa desberdina da lagin bakoitzean: N=8, adituen kasuan; N=212, graduiko ikasleentzat; N=88, batxilergoko irakasleei dagokienez.

onartu dela atzerakarga txikiko ordena (dela itemari dagokionez, dela erantzuleari doakiola); eta zenbatez eta letik hurbilago izan, hainbatez handiago da joera atzerakarga handitzeko. Emaitzak indize baten bidez eman orde ehunekoetan eman nahi badira, berriz, aski da arestian aipatu zifra biderkatzea 100ez.

Horrela atera daiteke, konparazio batera, item bat zenbateraino onartzen den, edo erantzule batek zenbat item onartu dituen eta zenbat zuzendu. Azken emaitza globalak emateko, berriz, hauxe egin behar da: item bakoitzari eta erantzule bakoitzari buruz atera diren datuen batezbertzekoak kalkulatu.

3. Emaitzak

Atal honetan, lehenbiziko, kontra-adibideen eta arreta neurtzeko itemen datuak erakutsiko ditugu (3.1); gero, gainerako itemen batez bertzeko emaitzak (3.2); eta azkenik, inkestatuen profilari dagozkion datuak (3.3).

3.1. Kontra-adibideen eta arreta neurtzeko itemen emaitzak

Bai kontra-adibideen emaitzak eta bai arreta neurtzekoenak 3. koadroan ikus daitezke (erranaldien zenbakiak, berriz, 1. koadroan ageri direnak dira).

3. koadroa: kontra-adibideen eta arreta neurtzeko itemen emaitzak, hiru taldetan (adituak, unibertsitate graduako ikasleak eta batxilergoko irakasleak) (AK=AtzeraKarga)			
	ADITUAK, 2011	GRADUKO IKASLEAK, 2011	BATXILER IRAKASLEAK, 2015
KONTRA-ADIBIDEAK	<p>2. erranaldia: ... <i>uste du.:</i> % 25ek bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 75ek, AK txikiagotu du.</p> <p>6. erranaldia: ... <i>ez dut gustukoa izan.:</i> % 37,5ek bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 62,5ek AK txikiagotu du.</p>	<p>2. erranaldia: ... <i>uste du.:</i> % 74k bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 26k AK txikiagotu du.</p> <p>6. erranaldia: ... <i>ez dut gustukoa izan.:</i> % 66k bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 34k AK txikiagotu du.</p>	<p>2. erranaldia: ... <i>uste du.:</i> % 67k bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 23k AK txikiagotu du.</p> <p>6. erranaldia: ... <i>ez dut gustukoa izan.:</i> % 57k bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 43k AK txikiagotu du.</p> <p>27. erranaldia: ... <i>esaten zigun.:</i> % 73k bere hartan utzi du, AK handiarekin; % 27k AK txikiagotu du.</p>
ARRETA NEURTZE-KOAK (ETA GRAMATI-KALTASUN ZALANTZAZ-KOAK)	<p>34. erranaldia: <i>Nago oso nekatuta.:</i> % 87,5ek kentzen du aditza hasierako posiziotik.</p> <p>43. erranaldia: ..., <i>ze daukazu esperantza ...-tzeko:</i> % 94k kentzen du aditza hasierako posiziotik.</p>	<p>34. erranaldia: <i>Nago oso nekatuta.:</i> % 95ek kentzen du aditza hasierako posiziotik.</p> <p>43. erranaldia: ..., <i>ze daukazu esperantza ...-tzeko:</i> % 83ek kentzen du aditza hasierako posiziotik.</p>	<p>34. erranaldia: <i>Nago oso nekatuta.:</i> % 99k kentzen du aditza hasierako posiziotik</p> <p>43. erranaldia: ..., <i>ze daukazu esperantza ...-tzeko.:</i> % 93k kentzen du aditza hasierako posiziotik.</p>

Horrela, kontra-adibideei buruz lan honetan bildu diren datu apurrek iradokitzen dute oso atzerakarga handiko hurrenkerak ez direla beti bere hala

onartzen (ikus 3. koadroa). Kasu horietan zenbapaiteko joera ageri da aditzaren posizioa aitzinatzeko ere. Beraz, oro har aditza atzera eramateko joerak indarra baldin badu ere, item gibel-kargatu batzuetan nabari da atzera-karga txikitze joera ere. Halere, adituek anitez joera handiagoa dute atzerakarga txikitze: % 75-62,5 vs % 26-34 vs % 23-43-27 (ikus 3. koadroa, kontra-adibideen lerroa). Datu horiek ere iradokitzen dute badirela korrante desberdinak zuzentzeko orduan, eta atzerakargaren kezka ez dela gertatzen bakarrik goi-adituen artean, eta bai ikerturiko bertze taldeetan ere.

Arreta neurtzeko itemen emaitzek, berriz, aditzera ematen digute ezen zuzentzaileak, oro har, nahiko erne egon direla zuzentzeko orduan, zeren ehuneko handian detektatu dituzte, eta zuzendu, nabarmenak ziren zuzendu-behar batzuk, betiere egungo estandar ohikoen arabera (ikus adibideen emaitzak 3. koadroan: % 83, gutien zuzendu den itema; % 99, gehien zuzendua).

3.2. Bertze itemen emaitzak

Batez bertzeko datuak. Kontra-adibideak eta arreta neurtzeko itemez at, bertze item guzien emaitzak 4. koadroan ikus daitezke, hiru taldetan: Lehen Hezkuntzako Gradu-ko ikasleak, adituak eta batxilergoko irakasleak. Koadro horretan ezkerreko zutabearen itema zein den adierazten da, eta hurrengo zutabeetan lagin bakoitzaz agertu diren emaitzak.

4. koadroa: azterturiko item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (61 itemekin):				
1) LH Gradu-ko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
		LH Gradu-ikasleak	Adituak	Batxiler irakas.
Zkia.	Azterturiko itemak	61 itemekin	61 itemekin	61 itemekin
1	Atzo eztabaida izan nuen lagun batzuekin...	55,9	3,1	46,9
2	..., pentsatzekoa da...	33	0	22,2

4. koadroa: azterturiko item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (61 itemekin):				
1) LH Graduko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
3	..., pentsatzekoa da badela erlazioa... artean vs ... erlazioa badela ...	56	0	35,2
4	Beldur naiz...	66	0	33
5	[...] Ahotsaren kontrolean sartzen dira hau eta hori eta hura.	66,5	12,5	33
6	..., uste dugulako ...	64,5	12,5	45,5
7	Konpetentzia da.... (definizioa)	84,7	37,5	59,1
8	... gaitasuna edo trebetasuna zereginak burutzeko edo... -tzeko...	56	62,5	58
9	Deialdi hau zuzenduta dago hau eta hori eta hura... -ei.	91,4	62,5	83
10	... ariketa batzuk balio dutenak...	69,8	68,8	77,8
11	... jasotzeko gai horren inguruan. vs ...gai horren inguruan prestakuntza jasotzeko.	68	75	76,1
12	Egile horiek uste dut...	37,7	6,3	31,8
13	..., obligazioa dago ...	67,2	6,3	52,3
14	Esan nahi dudana da...	24,8	3,1	18,2
15	... zailagoa dela ... -tea... vs ... -tea zailagoa dela ...	38	0	31,8
16	... norberak egitea ariketak... vs ... ariketak norberak egitea ...	43,4	12,5	35,2
17	Irudipena dut...	73,8	12,5	52,3
18	..., itxura eginez lasterka etorri zirela...	61,1	28,1	64,5

4. koadroa: azterturiko item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (61 itemekin):				
1) LH Graduko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
19	..., nabarmenduta...	62	25	63,6
20	Kontseiluak dio...	54,7	12,5	24,4
21	... hiztunek asmatu baldin badute hau eta hori edo hura...	50,5	6,3	30,7
22	... bilatzen, izan da...	75,5	37,5	70,5
23	..., badakien arren...	75,9	12,5	58
24	..., kontuan hartu gabe...	75,5	37,5	70,5
25	Frogatuko balitz ere...	69,8	0	64,8
26	..., nekez ikusiko ditut...	18	0	11,1
27	Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan...	46	0	40,3
28	... lehengoan datuak ikustean... -ri buruz.	91	75	88,6
29	Haren eginkizun nagusia da...	82,5	6,3	63,1
30	..., ikusteko nola garatu diren...	80,7	25	76,1
31	Teknika horiek gai dira adierazteko... vs ... gai dira.	61,9	12,5	52,3
32	... gai dira adierazteko... vs adierazteko gai dira.	67,5	75	70,5
33	... jendarteak norabide bat markatzen du...	24	0	15,9
34	...markatzen du zehazteko...	62,7	25	68,2
35	Langileek segur aski grebara joko dute, ...	40	0	38,6
36	..., jakin ondoren...	84,4	62,5	79,6
37	... ikusteak ideia ematen digu nolako estilokoa...	47,6	6,3	36,4
38	Ikusten duzunean nork agintzen duen hemen...	61,7	28,1	46,6

4. koadroa: azterturiko item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (61 itemekin):				
1) LH Graduko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
39	..., ikasiko duzu berehala nor nola...	40,8	6,3	36,6
40	Irakasleak badaki zeintzuk diren...	32,6	0	15,9
41	..., ikusitakoan Frantzia nola ...	83,5	50	66,4
42	Jakinarazi digute...	56,1	0	56,3
43	... komisio berriak aplikatuko direla bankuko libretetan,	59	12,5	38,6
44	..., eta lankide batek esan digu galdetzeko...	57,2	0	42,3
45	... esan digu galdetzeko... vs ... galdetzeko.	70,6	0	58,5
46	... epaimahaikideak izango dira zuzendaria, ...	90,1	53,1	79,6
47	Nahiago dut ...	26,7	0	21,6
48	..., ikusten baitut hau eta hori...	69,3	0	42
49	...; ni konformatzen naiz...	72,4	25	63,6
50	... konformatzen naiz ikustearekin...	84	50	83
51	..., jakinda...	57,1	0	52,3
52	... berdin balio duela azterketa horretarako. vs ...rako berdin balio duela.	41	0	33,5
53	Nik Bilbori buruz idatziko dut , jakinda... vs... idatziko dut.	21	0	26,7
54	Nik nahi dut bokata bat patata-tortilla eta...	85,8	43,8	83,5
55	Nire lagun batek liburu bat idatzi du ...-teko. vs ... idatzi du.	56,4	0	52,8

4. koadroa: azterturiko item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (61 itemekin): 1) LH Graduko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
56	Ona da jakitea... vs ... ona da.	43,9	0	39,2
57	Ona da jakitea ...-ten vs ...-ten jakitea (ona da).	80,7	28,1	69,3
58	Onartuz gero...	72,2	37,5	73,9
59	Pena ematen dit jakiteak...	42	0	50
60	... jakiteak ... -ela vs ... -ela jakiteak.	62,7	0	56,8
61	Telebistan entzun dut berria ... -ela vs -elako/-enaren berria.	65,8	0	69,6
	Batez bertzeko emaitzak	% 60,0	% 19,0	% 51,4

Hiru erantzule-talde desberdin horien datuak konparatuta ikusten da goi-mailako adituek errazago (proportzio handiagoan) onartzen dituztela atzerakarga txikiko ordenak: kasuen % 19an bakarrik handitzen dute atzerakarga; aldiz, unibertsitateko ikasleen laginak erakusten du joera handiena atzerakarga handitzeko: % 60an nahiago dute atzerakarga handiagoa; azkenik, tarteko posizio batean kokatzen dira batxilergoko irakasleen erantzunak: % 51n handitzen dute atzerakarga (ikus 4. koadroko azken lerroa).

Itemen batez bertzeko datu partikularrak aski erranahitsuak eta adierazgarriak begitantzen zaizkigu bere bakarrean hartuta ere, baina horretaz gainera, item bakoitzari buruz ateratako emaitzetan nolabaiteko koherentzia ageri da hiru laginen arteko erlazioan: atzerakarga handitzeko joerarik nabariena ikasleen artean ageri da, gero dator batxilergoko irakasleen lagina, eta, azkenik, adituen taldeak erakusten du jaidura handiena atzerakarga txikiko ordenamenduak onartzeko. Hala, 61 itemen zerrenda hartuz gero, adituek erakusten dute joera txikiena atzerakarga handitzeko: 59 itemetan hala ageri da (bakarrik bi itemetan zuzentzen dute adituek bertze bi laginek baino apur bat gehiago). Ikus 4. koadroa.

Bertze alde batetik, arestian erran dugu 61 itemetatik 39tan adituek hagitx ongi onartu dituztela atzerakarga txikiarekin aurkezturiko ordenak.

Hala ikus daiteke 5. koadroan. Itemen zerrenda horri begiraturik, joera bera ageri da: item guzietan adituak erakusten dute joera txikiena atzerakarga handitzeko.

5. koadroa: aztertutako item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (adituak ongi onartutako 39 itemekin): 1) Lehen Hezkuntza Gradu-ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
		LH Gradu- ikasleak	Adituak	Batxiler irakas.
Zkia.	Aztertutako itemak	39 itemekin	39 itemekin	39 itemekin
1	Atzo eztabaida izan nuen lagun batzuekin...	55,9	3,1	46,9
2	..., pentsatzekoa da...	33	0	22,2
3	..., pentsatzekoa da badela erlazioa... artean vs ... erlazioa badela...	56	0	35,2
4	Beldur naiz...	66	0	33
5	[...] Ahotsaren kontrolean sartzen dira hau eta hori eta hura.	66,5	12,5	33
6	..., uste dugulako ...	64,5	12,5	45,5
12	Egile horiek uste dute...	37,7	6,3	31,8
13	..., obligazioa dago ...	67,2	6,3	52,3
14	Esan nahi dudana da...	24,8	3,1	18,2
15	... zailagoa dela... -tea... vs ... -tea zailagoa dela...	38	0	31,8
16	... norberak egitea ariketak ... vs ... ariketak norberak egitea...	43,4	12,5	35,2
17	Irudipena dut...	73,8	12,5	52,3
20	Kontseiluak dio...	54,7	12,5	24,4
21	... hitzunez asmatu baldin badute hau eta hori edo hura...	50,5	6,3	30,7

5. koadroa: azterturiko item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (adituek ongi onarturiko 39 itemekin): 1) Lehen Hezkuntza Graduko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
23	..., badakien arren ...	75,9	12,5	58
25	Frogatuko balitz ere...	69,8	0	64,8
26	..., nekez ikusiko ditut...	18	0	11,1
27	Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan...	46	0	40,3
29	Haren eginkizun nagusia da...	82,5	6,3	63,1
31	Teknika horiek gai dira adierazteko... vs ... gai dira.	61,9	12,5	52,3
33	... jendarteak norabide bat markatzen du...	24	0	15,9
35	Langileek segur aski grebara joko dute, ...	40	0	38,6
37	... ikusteak ideia ematen digu nolako estilokoa ...	47,6	6,3	36,4
39	..., ikasiko duzu berehala nor nola...	40,8	6,3	36,6
39	Irakasleak badaki zeintzuk diren...	32,6	0	15,9
42	Jakinarazi digute...	56,1	0	56,3
43	... komisio berriak aplikatuko direla bankuko libretetan,	59	12,5	38,6
44	..., eta lankide batek esan digu galdetzeko ...	57,2	0	42,3
45	... esan digu galdetzeko ... vs.... galdetzeko.	70,6	0	58,5
47	Nahiago dut...	26,7	0	21,6
48	..., ikusten baitut hau eta hori...	69,3	0	42
51	..., jakinda...	57,1	0	52,3
52	... berdin balio duela azterketa horretarako. vs ...rako berdin balio duela.	41	0	33,5

5. koadroa: aztertutako item bakoitzaren emaitzak, hiru laginekin, ehunekoetan (adituek ongi onartutako 39 itemekin):				
1) Lehen Hezkuntza Graduko ikasleak; 2) adituak; 3) Batxiler irakasleak				
53	Nik Bilbori buruz idatziko dut, jakinda... vs... idatziko dut.	21	0	26,7
55	Nire lagun batek liburu bat idatzi du ...-teko. Vs idatzi du.	56,4	0	52,8
56	Ona da jakitea ... vs ... ona da.	43,9	0	39,2
59	Pena ematen dit jakiteak...	42	0	50
60	... jakiteak ... -ela vs ... -ela jakiteak.	62,7	0	56,8
61	Telebistan entzun dut berria ... -ela vs -elako/-enaren berria.	65,8	0	69,6
	Batez bertzeako emaitzak	% 51,3	% 3,7	% 40'1

Beraz, graduko ikasleek erakutsi dute joera handiena atzerakarga handitze-ko. Batxilergoko irakasleen laginean, berriz, item gehien-gehienetan tarteko balioa ageri da «alda-zaletasunari» dagokionez: adituek baino gutxiagotan onartzen dute atzerakarga txikiko hurrenkera, baina aldi berean ikasleek baino gehiagotan onesten dituzte atzerakarga txikiagoko ordenak. Horrela, 61 itemen multzoa hartuta, ikusten dugu haietako 49tan batxilergoko irakasleek joera txikiagoa erakusten dutela graduko ikasleek baino, atzerakarga handiko aukerak hobesteko, eta bakarrik 12tan gertatzen dela hori bertzela (gainera, 12 item horietako 8tan aldea % 5 baino txikiagoa da: ikus 4. koadroa). Eta 39 itemeko sorta analizatuta ere, norabide bera nabari da (ikus 5. koadroa): adituek oso ongi onartzen dituzte item horiek (% 3,7k bertzerik ez dute zuzentzen), batxilergoko irakasleek batez bertze % 40,1 zuzentzen dute, eta graduko ikasleek, berriz, % 51,3 (ikus 5. koadroaren azken lerroa).

3.3. Inkestatuen zuzentzaile-profilaz

Datu orokorrak eta batez bertzeakoak emanda, interesgarria da halaber ikustea zuzentzaile bakoitzak nolako joerak erakutsi dituen itemen aurrean,

horrela jakiteko nolako profila duten inkestatuek gure aztergaiaz. Horri dagokionez, muturreko balio batzuk azpimarratuko ditugu. Emaitza muturrekoenak bereizi ditugu lagin bakoitzean: item gehien zuzendu dituen erantzuleak zenbat zuzendu dituen, eta gutien zuzendu dituenak zenbat (6. koadroan dira datuak).

6. koadroa: inkestatuen zuzentzaile-profilaz (muturreko jarrerak/emaitzak)						
	Adituek		Graduko ikasleek		Batxiler irakasleek	
	61 item	39 item	61 item	39 item	61 item	39 item
Gehien zuzendu dituenak	% 41 zuzendu ditu	% 10,9	% 92,2	% 93	% 96,3	% 99,4
Gutien zuzendu dituenak	% 0	% 0	% 15,2	% 7,7	% 1,6	% 1,3

Berehala ikusten da adituen kasuan muturreko profilen artean dagoen desberdintasuna txikiagoa dela (% 0tik % 41ra da gutien zuzendu dituenaren eta gehien zuzendu dituenaren arteko aldea) ezen ez graduko ikasleen edo batxilergoko irakasleen artekoa (ikasleen artean % 15,2 eta % 92,2ren artean, eta irakasleen artean % 1,6tik % 96,3ra arte).

Seinalatzekoa da orobat nolako eredu sendoa erakutsi duen gehien zuzendu duen batxilergoko irakasleak (% 96,3 zuzendu ditu, 61 itemetatik; eta adituek ongi onarturiko 39 itemetatik, % 99,4ko zuzenketa gertatu da).

Baina ereduaren sendotasun bertsua erakutsi du, nahiz eta alderantzizkoa, gutien zuzendu dituenak (% 1,6 bertzerik ez baitu zuzendu, hau da, atzerakarga txikiarekin onartu ditu ia item guzizuziak).

4. Gogoetak eta ondorioak

Hasteko, ohar batzuk lan honetan azertu diren itemei buruz. Hautatu diren itemek (eta baita atera diren emaitza kuantitatiboek) ez dute ez aha-

lik eta ez asmorik ere hiztun euskaldunen jokaera bere osoan ordezkatzeko hitzen ordenaren auziari buruz. Lagin mugatu bat hautatu eta hura aztertu da (bai pertsoneri eta bai itemei dagokienez), erreferentzia minimo bat izateko auzia nondik nora joan daitekeen, eta batik bat elementu objektibo-xeagoak izateko, gogoetan sakontzeko. Emaitzak, beraz, ez dira hartu behar bere balio matematiko zehatzarekin, baina bai islatzen dute, neurri batean, eta une jakin batean, azterturiko pertsonen joera analizaturiko itemei buruz. Izan ere, alda-bidean den auziari buruzko jarrerak jaso nahi izan dira, funtsean norabide nagusiaz gogoeta egiteko. Hiztunok –eta azterketa honetan inkestatuak izan direnek ere berdin– ez dugu hizkuntza matematikoki erabiltzen, baina ez kaotikoki ere, eta horregatik uste dugu iker-saio honetan eginiko hurbilketa mesedegarria dela aztertu nahi den egoera ezagutzeko.

Lanaren xehetasunetan sarturik, erran behar da azterturiko item guzietiko jarrera ez dela parekoa izan: item batzuk gogorrago errefusatu dira bertze batzuk baino. Itemen izaerarengatik espero zitekeen horrelako zer-bait, ildo honetan: item batzuk ezagunagoak, ohikoagoak dira, ez dira azken urteotako «berrikuntza», eta bertze batzuk, berriz, «ausartagoak» dira. Beraz, nekez espero zitekeen jarrera bera item-mota hain desberdinak analizatuta. Konparazio batera, erranaldi baten aditz nagusia erranaldiaren lehen partean jartzea nekez kontsidera daiteke azken boladako berrikuntza atzerakarga kentzeko, adibidez honelako item batzuetan: «Nik Bilbori **buruz idatziko dut**, jakinda...», edo «Segur aski langileek **grebara joko dute**, ...», edo «...**, nekez ikusiko duzu**...».

Horrelako item batzuk ere analizatu dira, nahiz eta ez diren berrikuntza inondik ere euskal prosa idatzian. Horregatik, ez da harriztekoa horrelakoen aurrean zuzenketa handirik ez egitea, eta bai gaitzestea, ordea, honelako erranaldi bat, «Deialdi hau **zuzenduta dago... -ei**», edo honelako bat, «Nik **nahi dut bokata** bat... honelakoa eta honelakoa», hain zuzen bietan ere aditz nagusia aurrean jarria delakoz, «bere toki berea» erranaldiaren amaieran izaki, behinik behin indarrean ibili den prosa-eredu nagusiaren arabera.

Itemen aurrean agertu diren jarrera desberdinak esplikatzeko arrazoiaren bertze zati bat izanen litzateke inkestatuen hizkuntza-profila. Labur erranda, izanen dira inkestatuen artean komunikazio-gaitasuna euskaraz

oso desberdina dutenak, eta horrek ere izanen luke eragina euren zuzenketetan.

Lan osoari begiratuta, hiru inkestatu-taldeek emaitzak aztertuta lehenbiziko ondorioa da badela inkestatuen artean joera nabaria atzerakarga handiko hurrenkerak hobesteko¹⁵. Joera hori askoz ere txikiagoa da goi-mailako adituen artean. Bertze taldeetan agertu diren emaitza handiek, adituen taldeak eman dituenekin alderatuta, iradokitzen dute joera atzerakarga-zalea ez dela hain handia, hiztun batzuen artean behintzat. Unibertsitateko ikasleek eta batxilergoko irakasleek taldeak franko joera handiagoa erakutsi dute ez onesteko atzerakarga txikiko ordenak. Adituen emaitzetan ere nabari da atzerakarga handitzeko joera zenbapaitakoa, baina hauek anitzez ere «eskuzabaltasun» handiagoa erakutsi dute atzerakarga txikiagoko proposamenekin (zenbaitentzat beharbada «eskuzabaltasuna» baino gehiago «esku-zabartasuna» izanen da, baina). Baliteke beharbada bertzelako gogoeta-biderik eta interpretaziorik ere egitea, baina adituek atzerakarga txikiagoko hurrenkerak hobeki «jasan» badituzte, gure iduriko badira gutienean bi ideia kontuan hartzekoak gertakari horren inguruan: bat, adituek hizkuntza-tradizioaren ugaritasuna hobeki ezagutzen dutela; eta bi, badakitelako atzerakarga handitzeak dakarkeen komunikazio-arazoaren berri.

Bertzalde, graduko ikasleek eta batxilergoko irakasleek erakutsi duten jarreraren arrazoi nagusia izan liteke, gure ikuskeraren arabera, haien formazio garaian ez zela ezagutzen atzerakargaren kontzeptua, ez zela kezka, eta haien ikas-ibilbide oinarrikoan nagusi izaten zen kanonak arreta handiagoa jartzen ziola erranaldiaren elementuen ordenamendu formalari ezen ez komunikazio-helburua ahalik eta modu efizienteenean erdiesteari. Eztabaida liteke, bai, ea iker-ariketa honetan agertu diren item atzerakarga-txikiak bertzerik gabe sustatzekoak diren euskal prosa garatzeko orduan, edo euskararen izaera hondatzen ote duten gehiegi (kalko onartezinak ote di-

¹⁵ Testuingururik gabeko erranaldi solteen zuzenketan fokalizatzeak beharbada ultrazuzenketarako joera ere sortu edo indartu dezake, eta gerta liteke normalean testu osoetan ontzat emanen liratekeen item batzuetan ere zuzenketa egitea, ohi baino irizpide zorrotzagoa erakutsita. Hala ere, horrek ez lioke balioa kenduko zuzentze-jardunari: zuzentzen bada, zerbaitengatik da, hots, zuzentzailearen ustez «arau» batek hartara behartzen duelakoz.

ren), edo komunikazio-helburua hobeki edo okerrago betetzen duten, baina uste dugu ausarkeria handirik gabe erran daitekeela ezen baldin eta gure ikerketako aditu taldeak hagitz ongi onartu baldin baditu hizkuntza-baliabide batzuk, baliabide horiek badutela «eskubidea» (ez lehentasuna?) euskal prosa idatziaren garapenean beren ekarpena egiteko (zuzentzaile zorrotze-gien mailu-kolpeak jaso gabe).

Bertze ondorio nagusi bat atera dezakegu inkestatuaren profilak analizatuta. Inkestatu bakoitzak item guzietan zer erantzun eman dituen azterturik, eta denak batuta, atera daiteke zenbaki bat «inkestatuaren profil laburtua» emanen lukeena (hau da, zenbat item zuzendu dituen erranen ligukeena). Hori eginik ikusi da oso jokabide desberdineko erantzuleak/inkestatuak izan ditugula gure ikerketan. Zuzentzaile batzuek oso jokabide zuzendu-zalea izan dute item atzerakarga-txikien aurrean, eta bertze batzuek, berriz, aisago utzi dituzte bere hala itemak aldatu gabe, zuzendu gabe (6. koadroan erakutsi ditugu muturreko datu batzuk). Horrek ere erakusten du euskaraz prosa idatziaren eredu ez dela oraindik erabiltzaileen artean oso asentatua hitzen ordenari dagokionez, eta bereziki dela hala erranaldiak luzeak gertatzen direnetan; bertzela erranda, horrek erakusten du prosa hori garabidean dela, eta oraindik estilo logiko-diskurtsiborako kanona ez dela bertze hizkuntza indartsu batzuetan bezain ongi finkatua edo sendotua. Guziaren buruan, asentatu-falta horren arrazoia ez litzateke harritzekoa ere: azken urteotan aitzina-pauso politak egin badira ere euskarazko prosa idatziaren umotze-prozesuan, oraindik ere nabari da azken saioan 50 urteko ibilaldia bertzerik ez duela egin euskal hizkuntzak prosa molde hori indartsu garatzeko, bertze hizkuntza batzuek, berriz, mendeak egin dituztelarik beren komunikazio-ahalmena fintzen (ahantzi gabe euskaraz ere izan dela zenbapaiteko tradizioa, hartako ereduak aztertze eta imitatze, baina izan da nahiko ezezaguna, etena eta botere politikorik gabeta hedatzeko eta sendotzeko).

Bertzalde, 6. koadroan bildu diren datuak direla eta, aipatzekoa iduritzen zaigu nolako ehuneko handiak gertatu diren muturreko kasuetan ikasleen eta batxilergoko irakasleen taldeetan atzerakarga handitzeko norabidean: atzerakarga handitzeko joera handiena erakutsi duen gradu-ikasleak itemen % 92,2an erakutsi du jaidura hori, eta batxilergoko irakasleen kasu muturrekoenean, berriz, itemen % 96,3 aldatu da. Hain datu handiak agertzeak

erran nahi du, gure interpretazioaren arabera, emaitza horiek erakutsi dituzten inkestatuek aski eredu/irizpide zehatza edo finkatua (koherentea, nahi bada) erabili dutela aurkezturiko itemak zuzentzeko orduan¹⁶.

Ohartzeko da, orobat, zer alde handia dagoen gehien zuzentzen duen inkestatuaren eta gutien zuzentzen duenaren artean; batik bat, berriz ere, graduko ikasleen eta batxilergoko irakasleen artean (adituen artean muturreko bi balioen arteko desberdintasuna franko txikiagoa da, nahiz eta adierazgarria iduri duen). Konparazio batera, batxilergoko irakasleen artean gutien zuzendu duenak itemen % 1,6 bertzerik ez du zuzendu (ikus 6. koadroa); hots, zuzentzaile horrek ontzat eman ditu –errateko moduan– ikergai diren item guzi-guziak, eta emaitza horrek ere eramaten du pentsatzera inkestatu horrek aski jokabide sendoa duela aditza aitzinean jartzearen aldekoa. Beraz, batek oso guti zuzentzen du, eta bertze batek ia dena zuzentzen du: bi jokabide ongi-definitu direla ematen du. Hain alde handiak agertzea ikasleen artean, eta irakasleen artean, gure ustez da seinalea gai honetan badirela profesionalen artean ikuspegi aski desberdinak (eta muturreko kasuetan iritzi-aurkaritza franko nabaria ere bai), alegia nola antolatu behar diren elementuak erranaldietan (behinik behin iker-saio honetan analizatu diren itemen gainean). Hori ere, euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuaren isla izanen litzateke (ahantzi gabe, jakina, hiztunak gai honi buruz izan dezakeen jarrera ideologikoaren eragina): euskal hiztunek oso hizkuntza-ikaste prozesu desberdinak izan dituztenez (oso egoera sozio-psikolinguistiko desberdinak gerta baitaitezke euskal herrietan hiztunak euskara ikasteko orduan), oraindik iduri du darabilten prosa idatziaren erueda ez dela hain ongi asentatua, ez dela aski den dinako kontsentsua erdietsi hainbat puntu zehatzetan.

Bertzalde, iritzi-adostasuna edo iritzi-desadostasuna dela eta, pentsa liteke orain arteko kanon nagusiaren arabera erdiasentatuak diren irizpide/jokabide batzuk zalantzan jarrita are gehiago jartzen dela ezbaian gaur arteko nolabaiteko kontsentsua, eta horrek kalte bertzerik ez diola egiten euskarazko prosaren garapenari, eta beharbada pentsa liteke, ondorioz, eztabaida

¹⁶ Horretaz gainera, ehuneko hain handi horiek adierazten dute, bidenabar, analizatu diren itemek balio izan dutela diskriminatzeko, aztertu nahi zen auzian.

hetsi egin behar dela eta norabideari/lemari tinko eutsi behar zaiola debaterik gabe eta «ahuleriarik» gabe, baina gure ustez jokabide intelektualki irekiagoek emaitza hobek emanen dituzte etorkizunean.

Gogora dezagun hiru lagin desberdinekin eginiko lana aurkeztu dugula: 1) goi-mailako aditu batzuk; 2) batxilergoko irakasle batzuk; 3) unibertsitateko gradu-ikasle batzuk. Goi-mailako adituek erakutsi dute joera txikiena atzerakarga handitzeko; batxilergoko irakasleek joera handiagoa erakutsi dute adituek baino zertako-eta itemen atzerakarga handitzeko, eta txikiagoa gradu-ikasleek baino; gradu-ikasleek –inkestatu gazteenez osaturiko lagina– erakutsi dute joera handiena atzerakarga handitzeko. Datu horiek denak batean hartuta koherenteak dira honako iritzi edo interpretazio honekin, alegia, alor horretan bilakaera gertatzen ari dela: goien mailako adituek errazago onartzen dituzte atzerakarga txikiagoko ordenak, horrela zalantzan jarriz edo zabalago hartuz orain arteko kanon nagusia, zeina hobeki eta akritikoago onartzen baitute gradu-ikasleek. Adituek atzerakarga txikiagoko hurrenkerak errazago onartzeko, bi arrazoi iradokitzen ditugu (bertzeak bertze): 1) alde batetik adituak ohartuta daude atzerakarga handitzea kaltegarria dela komunikazio-efizientziaren aldetik; eta 2) adituek hobeki dakite tradiziozko formen ugaritasunaren berri, eta beraz irizpide zabalagoarekin epaitzen dituzte hitz-ordena batzuk, gaur egungo prosan oraindik hain ohikoak ez direnak, baina nolabaiteko presentzia izan dutenak tradizioan.

Gure iritzian, bertzalde, hiztun gazteenek kanon murriztegia edo zurrungia jaso bide dute beren ikaste prozesuan, eta ez dute hainbertzeko kezka izan ea zer komunikazio-arazo etor litekeen kanon hori zorrozki aplikatzen. Horrek esplikatuko luke –zati batean behintzat eta bertzelako arrazoen balizko eragina gutietsi gabe– zergatik erakutsi duten joera zurrungo goien mailako adituek baino, eta baita batxilergoko irakasleek baino.

Ikasleen jokabide erlatiboki zorrotz hori esplikatzeko bertze arrazoi bat izan liteke ultrazuzenketarako joera: ariketa horren aurrean, eskola-giroan, beharbada ikasleek beren eredu «gogorrena» (*heavyena*) aplikatzen dute (irakasle izateko prestatzen ari dira, Lehen Hezkuntzako Graduan). Dena dela, hori hala balitz ere, emaitzak erranahitsuak izanen lirarteke eta ez lukete beren balioa galduko, zeren galderak zutik iraunen bailuke: zergatik

ageri da hainbertzeko joera aditza atzerago eramateko? Eta erantzuna, gure ustez, orain arte indarrean egon den kanonean bilatu behar da, edo/eta haren aplikazio zorrotzegian (eta hori, erran bezala, adituek aisago jartzen dute zalantzan edo ezbaian).

Gure ikuskeran, euskarazko prosa idatziaren eredia oraindik garabidean da, ez da hetsia eta amaitua, eta egokitzeko prozesu batean ari da, bidea bilatzen ahalik eta efizienteenik erantzuteko komunikazio-behar berriei, testuinguru eleaniztun batean. Adituek ikerketa honetan erakutsi duten ildoan iduri du bideak irekitzen edo zabaltzen ari direla hitz-ordena euskaraz modu malguagoan antolatzeko –aditza aitzinago ekarriz, ikerketa honi dagokionez–, nahiz eta badiren jarrerak orain arteko bidea askitzat jotzen dutenak eta euskarazko hitz-ordenari buruz arauak modu zurrunagoan aplikatuko lituzketenak, berrikuntzaren beharrik sumatu gabe.

Bibliografia

AGIRRE, J. M., 2012, «Hizkera-juridiko-administratiboan-esamolde-prepositibo-berriak-hedatu-beharra». URL: <https://31eskutik.com/2012/10/26/hizkera-juridiko-administratiboan-esamolde-prepositibo-berriak-hedatu-beharra/> [kontsulta: 2018/07/17]

———, 2013, «Estilo jarraituaren alde». URL: <http://31eskutik.com/category/jesus-maria-agirre/> [kontsulta: 2018/07/17]

ALBERDI Xabier, SARASOLA Ibon, 2001, *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: Servicio Editorial UPV-EHU.

ALTUBE, Seber, 1975 [1929], *Erderismos*. Bilbo: Cinsa.

———, 1951, «Erderakadarik txarrenak IV», *Euzko Gogo*, 11-12, 1951ko azaroa-abendua

AMURIZA, Xabier, 2010, *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Bilbo: Lanku.

———, 2012, *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*. Bilbo: Lanku.

ARISTEGIETA Xabier, 2009, «Euskarazko testuen komunikagarritasun-problema larriak», *Senez*, 37, 103-141.

BERRIA, 2006, *Estilo liburua*. Andoain: Berria.

EUSKALTZAINDIA; Esnal, Pello, 2011, *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ESNAL, Pello, 2009, «Testu-arkitektura eta gramatika, ekintza komunikatiboaren baitan». *Hizpide*, 71, 3-160.

GARZIA, Juan, 1996, *Joskera lantegi*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP

———, 2014, *Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako*. Bilbo: SPUPV-EHUAZ

HAEE-IVAP, 2005, *IVAPeko estilo-liburua*. Vitoria-Gasteiz: Inst. Vasco de Admón. Pública

HIDALGO, Bittor, 1995, *Hitzen ordena euskaraz*. Doktore tesia. UPV-EHU. URL: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/bittor_hidalgo.pdf [kontsulta: 2018/07/17]

———, 2002, «Hitzen ordena esaldian». *Senez*, 25, 75-109. URL: <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20021201/hidalgo> [kontsulta: 2018/07/17].

KALTZAKORTA, M., 2007, *Prosa komunikagarriago egiten (zenbait proposamen)*. Bilbo: UEU.

———, 2012, *Zelan ordenatu egoki informazioa testuetan-I*. Bilbo: Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako Udalak.

MAIA, Julian, 2014, «Euskararen hitz-ordenaren norabidea: idealismo ideologikotik pragmatismo komunikatiborantz». *Fontes Linguae Vasconum*, 117, 121-168.

MAIA, Julian; BADIOLA, Nerea, 2015, «Word-order and Basque logical-discursive prose development: different approaches», in B. Schrammel & C. Korb (argit.) *ICML, XIV. Dominated languages in the 21st Century*, 134-147.

MAIA, Julian, 2017, «Sobre la retrocarga del euskera en la enseñanza secundaria post-obligatoria». *e-AESLA*, 3, 152-163. URL: <https://cvc.cervantes.es/lengua/eaesla/pdf/03/13.pdf> [kontsulta: 2018/07/17]

MITXELENA, Koldo, 2011 [1981], «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», in J. A. Lakarra (apail.), *Luis Mitxelena Obras Completas VII*, ASFV 'Julio de Urquijo», LX, 335-361.

RUBIO, J., 2002, *Euskararen garabideak*. Irun: Alberdania.

———, 2016, URL: <http://balbula.blogspot.com.es/> [kontsulta: 2018/07/17]

SALABURU, Pello; ALBERDI, Xabier (arg.), 2012, *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country*. Reno: University of Nevada-UPV/EHU.

SCHRAMMEL-LEBER, Barbara; KORB, Christina (argit.), 2015, *ICML, XIV. Dominated languages in the 21st Century*. Graz: University of Graz.

———, 2012, «The Search for a Common Code», in P. Salaburu & X. Alberdi (arg.), *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country*, 93-112.

SARASOLA, Ibon, 2016, *Bitakora kaiera*. Donostia: Erein.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello, 1993, *Idazkera-liburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jauriaritza-Kultura Saila.

Eranskinak

1 eranskina: Esaldiak zuzentzeko, oker baldin badira.

Ondoko orrietan esaldi batzuk ikusiko dituzu. Horietako batzuetan (edo askotan) beharbada hutsen bat edo okerren bat izan daiteke. Hauxe da eskatzen zaizuna:

Zuzendu, mesedez, esaldi horietan ikusten dituzun hutsak.

Errepara iezaiozu batez ere esaldietako hitzen ordenari; hau da, ea esaldietako hitzen ordena onargarria den edo ez. Onargarria ez bada, zuzendu ezazu eta jarri zure ustez zuzena litzatekeen forma eta ordena.

Zuzenketarako puntuzko lerro bat duzu esaldi bakoitzaren azpian, eta hartan jar dezakezu zuzenketa-proposamena. Dena dela, denborarik ez galtzeko, ordena aldatetaz gezien bidez ere adieraz ditzakezu, dauden tokian.



Jean Etxepare Bidegorri zubigile

Jean Etxepare Bidegorri tendiendo puentes

Jean Etxepare Bidegorri jetant des ponts

Jean Etxepare Bidegorri building bridges

ORTIZ DE PINEDO, Aitor
Euskal Filologian doktorea
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
aortizpinedo@gmail.com

Noiz jaso: 2018-12-12
Noiz onartua: 2019-04-07

Euskera. 2018, 2, 1. 365-391. Bilbo
ISSN 0210-1564

Jean Etxepare heldua saiatzen da *Beribilez* (1910) bidaia-kontakizunean hil aurreko pentsamoldea adierazten. Azpimarratu nahi da medikuak egin duen ahalegina gizartean topatu dituen jarrera kontrajarri batzuk bateratzeko: hain zuzen, euskal batasunari dagozkionak, eta laikotzearen ingurukoak, XX. mendearen hasieran muntakoak ziren aferak; desadostasun horien inguruan aipagarriak dira, hurrenez hurren, Euskal Herriko historiaren ikuspegi orohartzailea, eta, bestetik, jesuiten gaineko estereotipo batzuk kolokan jartzea.

Gako-hitzak: bidaia-kontakizuna, euskaltasuna, laikotzea, literatura konparatua.

Dos caras de la visión de Jean Etxepare sobre polémicas de principios del siglo XX en el País Vasco continental, entresacados de su libro de madurez, un relato de viajes. Los dos puntos aquí recogidos serían estos: una propuesta de concepción común de buena vecindad de los algunos acontecimientos históricos de entonces; una toma de posición moderada sobre el entonces polémica orden de los jesuitas, en tiempos de secularización de las instituciones republicanas francesas.

